ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2009ko abenduaren 7a > Astelehena > VI. urtea > 257. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net TOKIKOM

"Ezkertiar politikarien jazarpenarekin amaitzea ezinbestekoa da Kolonbian"



**Javier Orozco**
Kolonbiar errefuxiatua > 08

**EKONOMIA**
**Urrian baino 23 langabe gutxiago izan dira bailaran azaroan** > 04

**ESKORIATZA**
**Kaleko 100 elkarrizketatik 28 euskaraz izan dira** > 11

**ARRASATE**
**ONCEren loteriako 210.000 euroko saria Arrasaten saldu da** > 13

**FUTBOLA**
**Mondrak eta Aloñak galdu egin dute, eta Bergarak berdindu** > 24

**INTERNET** > 'WWW.TURISMODEBAGOIENA.COM'

# Turismo webguneari, Buber saria

**MANKOMUNITATEA**
Debagoieneko Mankomunitatearen guneak jaso du saria

**ZERBITZUA**
Herritarrei zerbitzua ematen dion webgune onena aitortu dute > 03

**EKONOMIA** > ENPRESA

## Stadlerren hasi dira kaleratzeak

Astelehenaz geroztik joan dira irteten 10 langile > 06

**KULTURA** > AZOKA

## Ibarrekoak Durangoko azokan

Bihar arte, ibarreko ordezkaritza zabala dago Durangon > 30-31

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Denbora-pasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39

**KIROLA** > SASKIBALOIA

## Euskadiko txapelketako lehiak, Eskoriatzan

Gaur Araba eta Bizkaia lehiatuko dira, 10:00etan neskak eta 12:00etan mutilak; bihar, Gipuzkoa eta Araba, ordu berean. Intxaurtxuetan izango da; sarrera, doan. > 23







**AKORDEOI LEHIAKETA** Gipuzkoako Jaialdian 200 gaztetxok hartu dute parte. JOSETXO ARANTZABAL

## Hauspoari eraginez, musika bikaina sortu

**G2a**

Akordeoiaren hiriburu bilakatu da asteburuan Arrasate, eta hala jarraituko du izaten martitzenean Arrasate Hiria lehiaketako irabazleen izenak jakin arte. Nazioarteko akordeoi-jotzaile onenen bilgune izan da aurten ere lehiaketa, argi utziz Debagoiena ere badela musikan erreferente. > 29

GipuzkoaKultura

“ GipuzkoaKultura” telebista saioak, gure inguruan daukagun kultura ekarriko digu etxera, bizirik dagoena eta batez ere, gertukoa eta egunerokoa.”

“ El programa televisivo “GipuzkoaKultura” nos acercará a nuestra cultura, una cultura viva y,ante todo, cercana y cotidiana.”

*“ L’émission de télévision « GipuzkoaKultura » nous permettra d’approcher notre culture, une culture vivante mais surtout proche et quotidienne.”*

Gipuzkoa2.0
KULTURA KOLOREZTATUZ, ZUREKIN AURRERA
www.gipuzkoa2.net

“ Euskal kulturaren erabilera guztion ohitura izatea helburu duen bide orria.”

“ La hoja de ruta que quiere convertir en costumbre cotidiana el uso de la cultura vasca.”

*“ La feuille de route qui veut changer en coutume quotidienne l'usage de la culture basque.”*





**Goiena telebista**
Osteguna, 22:15etan.

**Goierri telebista**
Osteguna, 22:30etan.

**28 kanala**
Osteguna, 22:00etan.

**Erlo telebista**
Osteguna, 22:00etan.

***zure, gure, denon TB saioa.***

*www.gipuzkoakultura.net*
*www.tokiko.tv*

GIPUZKOA zurekin, aurrera
KULTURA ETA EUSKARA DEPARTAMENTUA

**AISIALDIA** > INTERNET ETA TURISMOA

# Ibilaldi turistikoa Debagoieneko Mankomunitatetik sarera

**BUBER** Debagoieneko Mankomunitateko 'www.turismodebagoiena.com' webguneak euskal webgunerik onenen sarietariko bat jaso du

**ERABILTZAILEAK** Turismoaren gaineko webgunea bilatzaileendako prestatu dute eta erabiltzaileen kopurua igo egingo dela uste dute

**'EZAGUTU DEBAGOIENA'** Taldeen ezaugarrietara egokitutako ibilaldiak gertatu dituzte ondare historikoa, artistikoa eta naturala ezagutzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI

Euskaldunek gustukoen dituzten eta gehien erabiltzen dituzten webguneak proposatzeko eta hautatzeko aukera izan ostean, euskal webgune onenei ematen dizkiete Buber sariak. Aurtengo edizioko sariak abenduaren 3an, eguenean, banatu zituzten Donostiako Kursaal jauregian. Gure ibarreko hautagairik bazen finalisten artean, eta saritua izan zen gainera. Herritarrei zerbitzua ematen dien webgunerik onenaren saria jaso zuen Mankomunitateko *http://turismodebagoiena.com* webguneak.

Epaimahaiak irabazlea aukeratzeko kontuan izan ditu ahalegina, kalitate artistikoa eta diseinuarena, egituraketa, erabilgarritasuna, eskuragarritasuna, negozio edo zerbitzu publiko sena eta edukien aberastasuna.



Herritarre zerbitzua ematen dien webgunerik onenaren Buber saria jaso du *http://turismodebagoiena.com*-ek. JOSETXO ARANTZABAL

**PROMOZIORAKO TRESNA**

*http://turismodebagoiena.com* webguneak, "Debagoiena eskualdeko informazio turistikoa jasotzen du: ibarreko herrietako baliabideak eta zerbitzu eta eskaintza turistikoak. Internet Debagoieneko turismo arloko promoziorako eta komunikaziorako tresna garrantzitsua da; ezinbesteko estrategia izanik, une honetan Interneten posizionamendu egokia lortzea dugu helburu", esan digu Ana Heriz Debagoieneko Mankomunitateko turismo teknikariak sareko baliabideez galdetutakoan.

Webguneak honako atalak ditu bere baitan: ibarreko herrien gaineko informazioa; mendi ibilaldien gainekoa; turismoaren gaineko berriak; zerbitzu turistikoak (alojamenduak, jatetxeak, garraioa eta turismo aktiboa); bisitak egiteko argibideak; herriz herriko gida; eta turismo bulegoen berri. Ana Herizek esan digunez, "webgunea osatzen ari gara eta 2.0. tresnak txertatzen joango gara epe laburrean. Webguneko edukien eguneraketaz Debagoieneko Mankomunitateko turismo arloa arduratzen da eta eguneraketa teknikoa Adaki enpresak egiten du".

Debagoieneko turismoa Internet sarera eraman dute, baina jendeak jotzen ote du hara gureko informazio bila? Ana Herizek baietz esan digu: "Orain, bilatzaileendako prestatu da, eta hobekuntza horrekin erabiltzaileen kopuruan igoera espero dugu. Erabiltzaileen artean Espainiakoen kopurua zabala da, eta bide hau erabiltzen dute informazio eskaerak egiteko".

**TURISMO ESKAINTZA**

Gureko informazioa eskatzen dute eta Debagoieneko eskaintzaren berri ematen diete gurera etortzeko asmoa duten turistei. Neguko eta udako turismo eskaintza ez da bera eta negu partean Debagoienera etorrita aisialdirako zer aurki daitekeen jakinarazi digute Mankomunitatean.

Negurako honako bisitak gomendatzen dituzte: Leintz Gatzagako Gatz museoa eta Erdi Aroko gunea; Eskoriatzako Ibarraundi museoa; Oñatin, Arrikrutz kobak, Sancti Spiritus Unibertsitatea eta San Migel parrokia; Arantzazun bi bisita mota: Arantzazu bakarrik edo Oteizaren gaineko azalpenekin; 21 mendi ibilbide eta GR-120 bidea, Hiru Tenpluena.

Bestalde, Ezagutu Debagoiena egitasmoa ere gertatu dute taldeei eta ikastetxeei zuzendua. "Eskualdeko ondare historikoa, artistikoa, naturala... ezagutzeko taldeen ezaugarrietara egokitutako ibilaldi gidatuak dira", azaldu digu Ana Herizek. Aukeran ipintzen dituzten bisitetako batzuek dira: Aretxabaletako elizateetan barrenako mendi ibilaldi gidatua; Ertaroa Debagoienean; Bergara eta Antzuola; Gerra Zibilaren gaineko ibilbide historikoa...

Bestalde, III. Jardunaldi gastronomikoen gaineko balorazio positiboa egin ostean, otsailerako eta martxorako laugarrenak gertatzen dihardute.

**ESKUALDEAK BAT EGINDA**

Turistak gurera ekartzeko, beste eskualde batzuekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Foru Aldundiarekin hainbat promozio jardueratan ere parte hartu du Debagoieneko Mankomunitateak. "Urola Erdia eta Urola Garaia eskualdeekin Ignaziotar Lurraldea proiektua garatu dugu turismo kulturala eta erlijiosoa ardatz dela; aurten, proiektu honen barnean teknologia berrien inguruko apustua egin da eta webgunea berritu da hainbat aukera gehituz; esaterako, *Google earth*-en bidez Ignaziotar Lurraldeko ibilbideak ikus daitezke eta ibilbideak GPSra jeitsi; poltsikoko telefonoan ere informazioa jaso daiteke".

Bestalde, *Gipuzkoa zein berdea* proiektuan Urola Erdia, Urola Garaia, Tolosaldea eta Goierri eskualdeekin hainbat promozio jarduera egin dituzte azoketan parte hartuz edo karpak jarriz. "Azaroan, Bilboko Exponatur azokan, Valladolideko Intur azokan eta San Sebastian Gastronomika azokan izan ginen", dio Herizek.

Kalitatezko turismo eskaintza Internet bidez esku-eskura, baina bertatik bertara ezagutu nahi duenak bisitatu besterik ez du.

## Kalitatearen adierazgarria

Gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio kalitateari eta kalitate turistikoa ziurtatzen duen *Q ikurra* duten turismo zerbitzuak badira gurean ere; hainbat bidaia agentziak eta Oñatiko turismo bulegoak badute; eta Etxe-Aundi jatetxe eta hotelak abenduaren 10ean Bilbon egingo den ekitaldi batean jasoko du.

Bestalde, Debagoieneko hainbat establezimendu *Konpromisoa Kalitate Turistikoarekin* diplomaren jabe dira; eta beste zazpi gunetan diploma hori lortzeko prozesua abian dute.

**Q ikurra**

**Bidaia agentziak**
- > Eroski bidaiak: Arrasateko, Bergarako, Aretxabaletako eta Oñatiko bulegoak
- > Araba bidaiak (Oñati)

**Turismo bulegoak**
- > Oñatiko turismo bulegoa

**Jatetxeak**
- > Etxe-Aundi (Oñati)

**Konpromisoa Kalitate Turistikoarekin diploma**

**Alojamenduak**
- > Ibarre (Antzuola)
- > Mitarte Garai (Aretxabaleta)
- > Arteaga (Arrasate)
- > Mondragon hotela (Arrasate)
- > Lamaino Etxeberri (Bergara)
- > Barrenengua (Elgeta)
- > Areano (Eskoriatza)
- > Azkoagaenea hotela (Eskoriatza)
- > Mendigoia hotela (Eskoriatza)
- > Aterbe (Gatzaga)
- > Arregi (Oñati)
- > Etxe-Aundi hotela (Oñati)
- > Soraluze hotela (Oñati)

**Jatetxeak**
- > Baster Alde (Aretxabaleta)
- > Taberna Berri (Aretxabaleta)
- > Errastikua (Arrasate)
- > Hilarion (Arrasate)
- > Kanpanzar (Arrasate)
- > Espaloia (Elgeta)
- > Lasa (Bergara)
- > Mekolalde (Bergara)
- > Tartufo (Bergara)
- > Zabala (Bergara)
- > Zumelaga (Bergara)
- > Gaztainuzketa (Gatzaga)
- > Gure Ametsa (Gatzaga)
- > Etxe-Aundi (Oñati)
- > Goiko Benta (Oñati)

**Turismo Bulegoak**
- > Debagoieneko Turismo eta Interpretazio Zentroa

**Zerbitzu turistikoak**
- > Oñati-Arrikrutz kobak
- > Paintball Arrasate

**EKONOMIA** > ENPLEGUA

# Bailaran behera egin du langabeziak azaroan; 23 langabe gutxiago daude

Bergaran gora egin du langabeziak; bederatzi bergarar gehiago daude lan barik

Hego Euskal Herrian, hilabete beran, 2.300 lagun gehiagok eman zuten izena

**MIRIAN BITERI** > ARRASATE

Bosgarren hilabetez jarraian, Hego Euskal Herrian gora egin du azaroan langabeziak. Hilabete horretan beste 2.300 lagunek izena eman zuten izena enplegu zerbitzuetan eta dagoeneko 166.703 langabe daude.

Debagoienean, dena dela, kontrako bidea hartu du langabeziak, azken hilabetean behera egin du-eta. Urrian 3.237 lagun zeuden lan barik eta azaroan, berriz, 3.214 langabera jaitsi da. Hain justu ere, 23 langabe gutxiago daude.


Arrasateko INEM bulegoa. ARTXIBOA

**BERGARAN, 9 LANGABE GEHIAGO**

Bergaran izan ezik, bailarako gainontzeko herri guztietan egin du behera kopuruak (Aramaioko datuak falta dira). Kasu esanguratsuena Eskoriatzakoa da, 14 pertsona gutxiago daude-eta lan barik. Urrian 246 langabe zituen eta azaroan 232. Aretxabaletan eta Elgetan ere pozik egoteko arrazoia dute, aurreko hilabetearekin alderatuta, herritar gutxiago daudelako enplegu zerbitzuetako zerrendetan: Aretxabaletan, zortzi; eta Elgetan, bost.

Antzuolan eta Leintz Gatzagan, bestalde, kopuruak ez du ez atzera eta ez aurrera egin; berdin mantendu da azaroan. Bergaran, aldiz, 9 langabe gehiago daude.

**ARRASATE, TASA ALTUENA**

Bestalde, langabezia tasa altuena duen herriak Arrasate izaten jarraitzen du: %11,83. Horren atzetik daude Eskoriatza (%11,16), Antzuola (%10,66) eta Aretxabaleta (%10,66). Debagoienean, tasa baxuen dutenen artean, Elgeta (%7,11) eta Oñati (%7,27) daude. Hego Euskal Herriko tasei dagokienez, Araba, Bizkaia eta Nafarroakoa %12koa da. Gipuzkoan, apur bat txikiagoa da: %11koa, hain zuzen ere.

**ESKORIATZAN, %13,23**

Urtearen bilakaerari dagokionez, Eskoriatza da beherakada handiena izan duena. Aurtengo urtarrileko tasa %12,41ekoa bazen ere, ekainean %13,23ra igo zen. Irailetik hona beheranzko joera izan du. Arrasatek ere tasa altua du. Urte osoan %12tik gora ibili da; martxoan izan zuen altuena: %12.96, hain justu ere.

Hego Euskal Herrian, iazko azaroan 7.000 langabe gehiagok eman zuten izena enplegu zerbitzuen bulegoetan. Orain dela urtebete baino 41.000 langabe gehiago daude; gorakada %33koa izan da azken urtean. Ehunekoei erreparatuz gero, Arabak izan du igoerarik handiena (%37 gehiago). Gipuzkoan kopuru horrek %35 egin du gora; Bizkaian, %33,5; eta Nafarroan, %30.

**Azaroko datuak, herriz herri**

| | |
|---|---|
| Antzuola | 97 |
| Aretxabaleta | 344 |
| Arrasate | 1.369 |
| Bergara | 732 |
| Elgeta | 35 |
| Eskoriatza | 232 |
| Leintz Gatzaga | 12 |
| Oñati | 393 |

**GAZTEAK** > GAZTE BATZARRAK

## Deba bailarako jardunaldiak egingo dituzte hilaren 11tik 13ra, Arrasateko gaztetxean

Egitarau zabala gertatu dute; aisialdiarekin lotutako ekimenez gain, hitzaldi eta mahai-inguru asko antolatu dituzte

**M.B.** > ARRASATE

Deba bailarako gazte batzarrek jardunaldiak gertatu dituzte Arrasateko gaztetxean, abenduaren 11tik 13ra. Egitarau zabala antolatu dute horren harira. Egubakoitzean, 18:00etan, aurkezpena egingo dute eta ordubete geroago, autoen kalteen gaineko formazioa eta Oñatiko txosna batzordeko gertaeretaz gogoeta egingo dituzte. 22:30ean, *La batalla de Argel* ikusi ahalko da; eta 00:30ean, txango gautiarra dago.

Zapatuan, 10:00etan, ogi tailerra eta 11:00etan, Joxe Manuel Odriozolak *Abertzaletasuna eta euskara* izeneko hitzaldia egingo du. 16:00etan, *Begetarianismoa: aldekoak eta kontrakoak* berbaldia egongo da, Izar Beltz ateneokoen eskutik. 17:30ean, berriz, Eibarko gazte batzarrekoek bideratuta, *Gazteak: gizarte ereduarekiko menpe edo aske* eztabaida izango da. Eguna amaitu aurretik, Nos la suda eta Alcoholic sound taldeek kontzertua eskainiko dute. Domekan, 11:00etan, AHTren aurkako asanbladakoek *Lewis Munford y la critica del progreso* hitzaldia eskainiko dute; 16:30ean, azkenik, intsumisioaz jardungo dute.

**"HUTSUNEAK BETE"**

Antolatzaileek jardunaldien helburua azaldu digute: "Gazteon kezkak argitu eta gure burua aberasteko antolatu ditugu. Kezkak orotarikoak dira, baina maila soziopolitikoan ikusten dugun hutsunea bete nahi dugu".

**EGURALDIA** > DATUAK

## Azaroa hilabete euritsua eta epela izan zen gurean

Azaroaren 5etik 10era, metro karratuko 335,5 litro bota zituen Bergaran

**M.B.** > BERGARA

Azaroa, orokorrean, hilabete hezea izan zen gurean. Lehen 10 egunak izan ziren, bereziki, hilabete osoko egunik euritsuenak. Bergarako San Juan auzoan jasotako datuen arabera, azaroaren 1ean, esaterako, 22,4 litro metro karratuko jaso ziren. Arazoaren 5etik 10era bitartean, euri jasek ekaitz tankera hartu zuten eta, guztira, egun horietan 335,5 litro metro karratuko bota zituen. Egun euritsuenak 5a eta 6a izan ziren, 73,6 eta 73,9 litrorekin, hurrenez hurren.

**MINIMOA, 2 GRADUKOA**

Tenperaturari dagokionez, hilabete epela izan dela esan genezake. Azaroaren 1ean, 24 gradu izan genituen; azaroaren 16an, 22. Hilabetea, dena dela, negu itxurarekin amaitu zen. Azaroaren 26an, 2 gradu bakarrik egin zituen eta azaroaren 30ean, gainera, txurituta ikusi genituen inguruko mendiak.



Debagoienean Aizkorri-Aratz natura parkea izango da sare honen barruan. GOIENKARIA

**INGURUMENA** > SUSTAPENA

# Gipuzkoako Parketxe Sarea fundazioa eratuta

Oñatiko Udala Fundazioko kide da Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Kutxarekin eta Aiako, Ataungo eta Oiartzungo Udalekin batera

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > OÑATI

Gipuzkoako parke naturalen kudeaketa integratua egiteko Diputatuen Kontseiluak Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioa eratzea onartu du.

Fundazio horren sortzaileak dira Foru Aldundia, Kutxa eta Aia, Ataun, Oiartzun eta Oñatiko udalak. Izan ere, Aiako harria, Aralar, Pagoeta eta Aizkorri-Aratz natura parkeek bat egiten dute Fundazioan; gainera, Miramongo Kutxaespazioan ere, Sareari koherentzia eta eraginkortasun handiagoa eman nahian, Donostialdean bisitariak eta eskoletako taldeak hartuko dituen erreferentzia zentro bat egongo da. Fundazioaren egitekoa da parketxeen sare bat sortzea, sustatzea eta zabaltzea irizpide bateratuetan oinarrituta.

**NATURA JARDUERAK SUSTATU**

Parketxeen Sarearen bitartez, Fundazioak ingurumen hezikota, natura ingurunearen ezagutza eta ingurumenarekiko errespetuzko balioak sustatuko ditu herritarren artean. Bestalde, naturarekin lotutako aisialdi jarduerak eta natura ingurunearekin bat eginda gauzatzen diren jolas jarduerak sustatu eta bultzatuko ditu. Eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetza ere bultzatuko du eta marka irudi bat sortu,guneguztiakhartukodituena.

Aldundiak 30.000 euroko hasierako ekarpen ekonomikoa egingo du, eta jarduerak finantzatzeko urteko gehieneko ekarpena. 2009 eta 2010 urteetako ekarpenak 50.000 eta 400.000 eurokoak izango dira, hurrenez hurren.

Aizkorri-Aratz natura parkeko Arantzazuko parketxea Gandiaga eraikineko atzealdean egongo da. Parketxea egokitzeko lanak hasiak dira dagoeneko eta, aurreikuspenen arabera, udarako lanok bukatuta egongo dira.

etxeko leihotik



**Inazio Arregi** > 'zuzen@goiena.com'

## Iruña-Veleia

Internet eta bere abarrak tentu handiz erabili behar direla diote. Batzuk, benetako zaleak, ordu asko ematen dituzte sarean surfeatzen. Ni berriz, lanaren eta ofimatikaren esklabo izanik –bataren esklabo dena bestearena ere bada gaur egun–, beharra dagoenean baino ez naiz aritzen web, blog eta halakoetan.

Aspaldion baina, interes pixka batekin ari naiz jarraitzen JMartin Elexpuruk *Goiena.net*-en zabaldu duen bloga: Iruña-Veleia, gezurra ala egia?

Iritziak iritzi, webgune honen bidez jakin dut agertutako inskripzioen egiazkotasuna eta faltsukeriaren arteko eztabaida sutsua dagoela komunitate zientifikoan, eta epaitegietan.

**"Hain erraza da faltsifikazioa egitea? Edo faltsukeria frogatzea?"**

Komunitate zientifikoaren hesiak gainditu dituen eztabaida, iruzurraren eta inkonpetentziaren arloetan kokatzen ari da.

Eta diot: Hain erraza al da faltsifikazio erraldoi bat egitea? Edota hain zaila al da datazioekin ostroken faltsukeria frogatzea?

Ez dakit benetakoak ala faltsuak gertatuko ote diren, baina aitortu behar dut, beste batzuek telebistetako bihotzeko programak edo reality show-ak jarraitzen dituzten interes handiarekin ari naizela historia hau jarraitzen.

**> Lehen ideia**

**Luisito Bandresi ere iritsi zaio ordua. Ez da asko Donostian elkar ikusi genuela. Une gogorra baina hunkigarria. Iragan luzea eta etorkizun laburrekoa. Gaur iragan hutsa da guztia euskararen alde egin duen lana izan ezik.**

**> Bigarren ideia**

**Internet ere albiste izan da joan den astean. Intelektual eskubideak dira webguneak ixteko bidea ematen duen legedia bultzatzeko aitzakia. Sarea kontrolatzeko saio gehiago etorriko dira ondoren. Ikusiko.**

**EPAITEGIAK** > PROTESTAK

# Ikasle Abertzaleek azken atxiloketak salatu dituzte

Oñatin Txantxiku Ikastolako ikasleek egin zuten agerraldia eta Arrasaten manifestazioa izan zen




Prentsaurrekoa egin zuten Arrasaten manifestazioaren ostean. GOIATZ ARANA

**G. ARANA/I.AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE

Segiko kide izatea egotzita Espainiako Poliziak eta Guardia Zibilak 35 lagun atxilotu izanaren kontra, mobilizazioak egin zituzten eguenean Debagoienean, Ikasle Abertzaleek deituta.

Oñatiko Txantxiku Ikastolako 60 bat ikaslek kontzentrazioa egin zuten eguerdian; eta Arrasaten, manifestazioa egin zuten iluntzean. "Sistemaren inposaketa" pairatzen dutela salatu eta batera ekiteko beharra azpimarratu zuten. Mondragon Unibertsitateko Arrasateko kanpusetik abiatu eta herriko plazara arteko ibilbidea egin zuten, *Ikasleak, sistema eta errepresioaren aurrean ekin dezagun batera* lelopean.

**IKASLE GUZTIEI**

Babesa eman zieten atxilotutako eta kartzelatutako gazte independentistei, euren senitartekoei eta lagunei. "Espainiar eta frantziar estatuak sistema kapitalista eta patriarkalaren aurka lanean ari den gazte ororen aurka" ari dira, euren esanetan, eta eraso horren barruan kokatu zituzten azken atxiloketak. Gaineratu zuten ikasleak aspaldi dabiltzala "sistemaren inposaketak" pairatzen.

"Sistemari eta errepresioari aurre egiteko asmoz, Ikasle Abertzaleek gazte mugimenduak kaleratutako manifestuarekin" bat egiten dutela azaldu eta hainbat konpromiso hartu zituzten: "Manifestua ikasleria osoari zabaltzeko konpromisoa hartzen dugu eta Euskal Herriko zein nazioarteko ikasle antolakundeen atxikimendua bilatuko dugu", adierazi zuten.

**EKONOMIA** > KONTSUMOA

# Eroskik agindu du "180 milioi aurreztu" daitezkeela bere lau aurrezpen karroekin

Ohiko erosketen, Gabonetakoen, oparien eta jostailuen karrotxoak daude

Garai honetan gehien erosten diren 160 produktuak "prezio onenean" ematen ditu

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Eroskik Gabonetako eskaintza komertziala indartu du, aurrezpen karroa delako promozioarekin. Ohiko erosketetan, Gabonetakoetan, oparietan eta jostailuetan gehien erosten diren 160 produktuak "prezio onenean" eskaintzen ditu Eroskik eroskete karrotxo horietan. Eroski Taldearen esanetan, bere bezeroek 180 milioi euro inguru aurreztuko dute eskaintza horri esker.

Promozio horren bitartez, bezero batek "antzeko" produktu bat prezio txikiagoan topatzen badu, "produktua opari emango zaio eta prezioa txikitu egingo da", esaten du Eroskik.

**IAZ BAINO GASTU TXIKIAGOA**

Promozioa lau karrotxo motak osatzen dute. Ohiko erosketa karrotxoa errotazio eta eskaera handiko 56 produktuk osatzen dute, eta horiek "dagoeneko badute aurreztea ahalbidetzen duen prezioa, urte hasieratik daudelako aurrezpen karroan", dio Eroskik –kontuan hartu behar da lehendik ere baduela promozio hori, baina orain indartu egin duela, Gabonetako erosketei begira–.

Gabonetako aurrezpen karroak 34 produktu ditu, eta horiek Gabonetako ohiko menu bat egiteko aukera ematen dute "aurrezpena egiteko moduko prezio baten", Eroski Taldearen esanetan. Banatzaile handiak hauxe dio: "Horrela, karrotxo honetan aurreikusitako erosketekin, bezeroek milioi euroak hamarreka aurreztuko dituzte 2008ko abenduko datuekin alderatuta".

Hirugarren karrotxoa opariena da. Hori 40 produktuk osatzen dute, eta prezioaren arabera, hiru multzotan daude banatuta: 3-5 euro artekoak, 10-20 euro artekoak eta 20-30 euro artekoak.

Azkenik, laugarren karroa jostailuena da, eta 37 artikulu jasotzen ditu, honako prezioekin: 5 euro; 5-10 euro artean; eta 10-20 euro artean.

**KOIPE 'TXAR' BAKO PRODUKTUAK**

Bestalde, Eroskik salgai dauka neurri baten hidrogenatutako koiperik ez duten gozogintza produktu lerro berri bat, 24 produktuk osatuta. Eroskiren estrategia bat da, hain zuzen, Eroski markako produktu guztietatik koipe mota horiek kentzea.

HITZARMENA

### Euskal produktuak sustatzeko konpromisoa

Eroski Taldeak eta Eusko Jaurlaritzak urte beterako luzatu dute euskal elikadura produktuak sustatzeko zeukaten hitzarmena. Eroski Taldeko presidente Constan Dacostak eta Ingurumen sailburu Pilar Unzaluk sinatu zuten hitzarmena joan den eguaztenean. Horren bidez, banaketa taldeak Euskadiko jatekoak promozionatzeko eta bere dendetan modu egokian identifikatzeko konpromisoa berritu zuen. Sustapen hori egiteko, egutegi bat prestatzera konprometitu zen, eta 2010eko abenduaren 31ra arte iraungo du egutegi berri horrek. Eroskik bestelako konpromiso batzuk ere berritu zituen hitzarmenaren bidez: gai horren gaineko formazioa ematea, euskal enpresen produktu gehiago saltzea, eta beste batzuk.

**EKONOMIA** > ENPRESA

## Stadlerren zerrendako hamar langileren kaleratzea astelehenean hasi zen

Langileok borondatez onartu dute baja, baina ELAk esaten du baldintzak okertuko zieten beldur zirelako onartu zutela kaleratzea langileok

**L.K.** > OÑATI

Oñatiko Stadler enpresa hasi da langileak kaleratzen. Hala, ELA sindikatuak informatu du joan den astelehenean geratu zirela lanik gabe enpresako zuzendaritzak kaleratzeko asmoa zuen 19 langile haietako batzuk. Oraingoz, langile horietatik hamarrek galduko dute lanpostua. Langileok onartu egin zuten enpresa uztea, honako baldintzekin: 45 eguneko kalte-ordaina lan egindako urte bakoitzeko, 18 hilabeteko mugarekin. ELAko Iñigo Gomez ordezkariak esaten duenez, "borondatezko bajak dira, baina borondatezko izate hori komatxo artean doa". Gomezek azaltzen duenez, langile horiek beldur ziren kaleratze objektibo figura erabil zezakeela enpresak, eta hori egin izan balu, kalte-ordainak txikiagoak izango zitezkeen.

Bestalde, ELA zain dago Lan Sailburuordetzan aurkeztu zuen helegite baten erantzunarena. Helegitean salatu zuten Stadlerrek kaleratu gura dituen langile batzuei, asmo hori izan arren, zapatuetan lan egiteko joan zitezen eskatu izan diela. ELAk egunotan espero du helegite horren erantzuna.

**BESTE BEDERATZI, FORMAZIOAN**

Uztailean hasi zen Stadlerren lan gatazka, langile guztiak batzarrera deitu zituenean zuzendaritzak, eta 19 langileren izenak eman, horien kaleratzea bozkatzea proposatuta, kaleratze horiek onartu ezean enpresak itxi egin beharko lukeela ohartaraziz. ELA eta ESK sindikatuek "lotsagarritzat" jo zuten batzar hori, eta negoziazio mahaia eskatu zuten. Orduz geroztik, hainbat mobilizazio egin dituzte langileek.

Orain, zerrenda hartako 10 langile hasi dira enpresa uzten, eta lantalde osoa prestakuntza plan bat egiten dago. Horren aurrean, Gomezek esaten du "formazio planik ez" dagoela eta, hori bukatzen denean (abendura arte da), enpresak langileon etorkizunaren gainean erabakitzeko askatasuna izango duela, kaleratu edo ez. Sindikatuko ordezkariak gaineratzen duenez, "ez dago argi" hasierako zerrenda hartako beste bederatzi langileak botako dituzten. Lan Ordezkaritzak ez zion onartu Stadlerri bederatzi langile horiek kalera zitzan, argudiatuz ez zuela "irizpide objektiborik".

**GERTAKARIAK** > ATXILOKETA

## Bailarako enpresaburu ohi bati ustez estortsioa egin izanagatik, atxilotu bat

Bai enpresaburua, bai atxilotua, biak dira Debagoieneko herri berekoak, jakinarazi du Herrizaingo Sailak

**L.K.** > BERGARA

Debagoieneko 36 urteko gizonezko bat atxilotu zuten Gasteizen Bergarako ertzain etxeko kideek egubakoitzean, Debagoieneko enpresaburu ohi bati estortsioa egin izana leporatuta. Herrizaingo Sailak esan du bai enpresaburua, bai atxilotua, biak herri berekoak direla.

Ustez, atxilotuak 60.000 euro eskatu zizkion enpresaburu ohiari, horren biloba bat –4 urteko neskatila– eraso eta hil egingo zuela mehatxatuta. Ustezko delitu egilea diru hori zakarrontzi batetik hartzen zegoen unean atxilotu zuten ertzainek. Estortsionatutako gizonezkoa "enpresa handi bateko gerente ohia erretiratua" dela jakinarazi du Herrizaingo Sailak.

Atxilotua ertzain etxera eraman zuten eta epailearen esku uzteko prozedura hasi zen.

**AUTOETAN LAPURRETAK**

Bestalde, egubakoitz goizean 18 autoren kristalak apurtuta eta musika ekipoak ostuta agertu ziren, denak erdialdean.



Auto bat, lehiatila apurtuta eta barruan lapurreta eginda. L.K.

> EKONOMIA

### Barne Produktu Gordinaren %3,6, Mondragonek sortua

Eustatek 2008ko EAEko ekonomia osoorako emandako datuak erreferentziatzat hartuta, Mondragon Korporazioak Euskal Autonomia Erkidegoan sortutako Barne Produktu Gordin osoari emandako balio erantsia %3,6 izan zen, eta zifra hori %6,6ra igotzen da industri arloari begiratuz gero.

Datu horiek adierazten dute 2008an EAEn sortutako aberastasunaren 28 eurotik 1 euro Mondragonek garatutako jardueretatik etorri zela, eta proportzio hori 15etik 1ekoa da konparazioa industri sektorera mugatzen bada.

> HEZKUNTZA

### Basque Culinary Centerren lehenengo harria, eguaztenean

Etzi, eguaztena, ipiniko dute Basque Culinary Centerreko lehenengo harria, Donostian. Zientzia Gastronomikoen lehenengo fakultatea izango da Hego Euskal Herrian, eta Espainian ere ez dago halakorik. Mondragon Unibertsitateak bultzatutako proiektua da, eta 2011n martxan egotea aurreikusten da.

Ekitaldian hauek izango dira: Patxi Lopez, lehendakaria; Zientzia eta Berrikuntza ministroa, Cristina Garmendia; Hezkuntza sailburua, Isabel Celaa; Donostiako alkatea, Odon Elortza; eta MUko errektorea, Josu Zabala.

auzorik auzo

**URIBARRI, GUREIA ETA ZUBIETA** > Aramaioko hegoaldean geratzen dira hiru auzuneak; Kurtzetarako bidea hartuta, eskuinaldean. Auzo lasaiak dira, eta dituzten arazoen artean daude errepideak konpontzea.



Gureia auzotik hartutako irudia; atzealdean Uribarri auzoa ikusten da. A.E.

**Juan Jose Barrutia** > Auzo-alkatea

# "Elurra egiten duenean egunero pasatzen da makina bide bazterrak garbitzera"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARAMAIO

**Arrasatearra da Juan Jose Barrutia; baina erretiroa hartu zenetik Aramaioko Gureia auzoan bizi da. Nekazaritza eta abeltzaintza uztartzen ditu, auzoko beste baserrietan bezala. Hala ere, esan digu gaur egun ez dela inor baserritik bizi, gehienek lantegian egiten dute lan.**

**Dagoeneko egin du elurra mendi goienetan. Arazoak izaten dituzue negu partean?**

Ez. Elurra egiten duenean egunero pasatzen dute makina, eta alde horretatik ez dugu batere arazorik izaten.

**Zein da auzotarrek duzuen arazo nagusia?**

Arazo askorik ez dugu. Nagusienak, edo gehien kezkatzen gaituenak, bideekin zerikusia dutenak dira. Baita bide ertzetako urekin ere. Zelaira botatzen dituzten urak guk zaindu behar izaten ditugu eta horiek arazo izan daitezke.

Bestalde, bide nagusian badaude arekak, baina etxe bakarretara doazen bideetan ez dago arekarik. Hortaz, egokia izango litzateke arekak egitea ura bideratu ahal izateko.

**Lan horiek garai batean auzolanean egiten zenituzten?**

Orain ere egiten ditugu auzolanean; bide hau, esaterako, auzolanean egin zen. Gertatzen dena da orain gauza asko nork bere kabuz egiten dituela; eta laguntza apur bat ondo etorriko litzateke.

**Udala Plan Orokorra egiten dabil. Oraindik zehaztu barik dagoen arren, zuek gurako zenukete etxe gehiago egiteko aukera izatea?**

Bai, beti esaten dut baserri bakoitzak beste etxe bat egiteko aukera izan beharko lukeela.

**Noiz ospatzen dituzue auzoko jaiak?**

Gureian, adibidez, santiagoak ospatzen ditugu. Uribarrin sanestebanak eta sankristobalak ospatzen dituzte eta Zubietan San Lorentzo jaiak.

Aparteko ospakizunik ez dugu egiten; meza, luncha, musa eta umeendako jokoak egiten ditugu.

**Horrez gain, Santa Ageda eguna ere ospatzen duzue!**

Bai, tradizioa dago Santa Ageda egunez kantuan irteteko. Hiru auzootako lagunak etxez etxe ibiltzen dira eta gero afaria egiten dute.

**Garai batean bazegoen lanbide konkreturik auzoan?**

Sasoi batean nekazaritzatik bizi zen jendea, eta gero lantegira joaten hasi ziren. Arrasatera, zerrajerara, adibidez joaten zen jendea; oinez, gainera.

Gerra denboran, amerikarrak ibili ziren inguru honetan pirita ateratzen, meatzeetan.

**Gomendatzeko moduko mendi ibilaldirik badago inguru honetan?**

Bai; Santikurtz ingurura domekero etortzen dira mendizaleak. Bestalde, hor goian lehengo bide zaharra dago eta bide hori Kurtzeta gainera irteten da. Lehengo galtzada zaharra dago, orain, poliki-poliki galtzen dabilena.

**"Gerra denboran amerikarrak pirita ateratzen ibili ziren inguruko minetan"**

DATUA

**3**

**AUZO**

Barrutia hiru auzotako auzo-alkatea da: Uribarri, Gureia eta Zubieta. 29 baserri etxe daude hiru auzoetan, eta ia denetan bizi da norbait. Elizari dagokionez, Uribarri auzokoak dira denak.

ASTELEHENEKO
**Goienkaria**
astelehenean, **aste bukaera osoa**

## Harpidedunen txokoa

## Abenduko zozketa

**SARIAK IRABAZTEKO:**
**943 08 10 50**
***harpidetza@goiena.com***

***Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedunentzat soilik.**
Harpidetzeko erabili bide berdinak.
**Kuota<Ninguno>: 10 euro**

**EUSKARAZKO JOSTAILUAK**
Umeentzako euskarazko jostailuak
Ikastolen Elkartea



**ANTZERKIRAKO SARRERAK**
Txalo konpainiaren Ate joka antzezlana.
Elgetako Espaloia Kafe Antzokia



**UMEENTZAKO LIBURUAK**
Pamiela etxearen umeentzako liburuak.
PAMIELA



**SASKIBALOIRAKO SARRERAK**
Lagun Aro - Real Madrid partidurako sarrerak.
LAGUN ARO



**EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA**
Euskal Kirol Federazioen Batasunaren zira.
EKFB Euskal Selekzioa



## SARI NAGUSIA

**IRAILA-ABENDUA**

**PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA**

**ORDENAGAILU ERAMANGARRIA**



**AHTEC NETBOOK LUG N011**
**Sistema eragilea:** Ubuntu Linux.
**Prozesadorea:** 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).
**Memoria:** 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).
**Disko gogorra:** 120GB 5400RPM SATA.
**Pantaila:** 10" pantaila TFT WSVGA LED.
**Bermea:** Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik
LASKAR INFORMATIKA
- Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

**Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!**

Javier Orozco eta Belcy Gomez kolonbiarrek hitzaldia egingo dute eguenean Arrasaten, Kulturaten. Orozcoren arabera, benetan egoera larria bizi du Kolonbiak gaur: pertsonen kontrako minen erruz heriotza gehien dituen herrialdea da; sindikalistek mehatxuak jasotzen dituzte etengabe; eta barruko errefuxiatuen kopurua munduko altuenetakoa da.

**Javier Orozco** > Kolonbiar errefuxiatua

# "Ezkertiar politikaren jazarpenarekin amaitzea ezinbestekoa da Kolonbian"

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

**Eguenean ospatuko den Giza Eskubideen Nazioarteko Egunarekin bat eginez, Idi Ezkerra Fundazioak hitzaldia antolatu du Arrasaten. Javier Orozco eta Nelcy Gomez kolonbiarrak izango dira hizlariak Kulturaten, 19:00etan. Heriotza mehatxuak direla eta, Javier Orozco (Santander, Kolonbia, 1960) Astuariasen, Gijonen bizi da 2001. urtetik. Besteak beste, Central Unitaria de Trabajo (CUT) delakoaren zuzendaritzako kidea da Orozco. Eguenean *Por el derecho en Colombia* izenburuko hitzaldia egingo du Arrasaten.**



Javier Orozco kolonbiarra Asturiasen bizi da 2001. urtetik. Eguenean, Kolonbiako gaurko egoeraren gaineko hitzaldia egingo du Kulturaten. GOIENKARIA

**Giza eskubideei dagokionez, zein da Kolonbiako gaurko egoera?**

Oso kritikoa, hiru arrazoirengatik nagusiki: batetik, armadak zibilen aurka eramandako exekuzioengatik, nekazal guneetan bereziki; bestetik, barruko migrazioagatik (nekazariak, afrokolonbiarrak eta herri indigenak dira kaltetuenak); eta, azkenik, indar politikoaren, botearearen parte-hartzeagatik desagertuen kasuetan. Gobernuaren arabera, 12.000 lagun desagertu dira Kolonbian azken 20 urteotan. Baina gobernuz kanpoko hainbat erakunderen arabera, 49.000 lagun izan dira desagertutakoak. Hain zuzen, Txile, Argentina, Bolivia edo Paraguayko diktaduretan baino desagertu gehiago izan ditugu Kolonbian. Ustezko garapen proiektuen izenean paramilitarrek eta indar publikoek bat egin dute, benetan enpresa handien interesak defenditzeko.

**Eta zein da nazioarteko erantzuna egoera horren aurrean?**

Egoerak hobera egin beharrean, txarrera egingo duen susmoa dugu. AEBek Kolonbian zazpi base militar jartzeko oniritzia jaso berri dute eta, besteak beste, Espainiako gobernuak ere babes politikoa eta militarra eman dio Alvaro Uribe presidenteari, narkotrafikoaren aurka egingo duelakoan. Baina eredu ekonomiko neoliberalaren defentsa dago atzean eta, Espainiaren kasuan, zenbait enpresaren interesak babestu nahia: Fenosa, BBVA, Aguas Generales de Barcelona, Repsol eta Banco Central Hispano.

Bien bitartean, Kolonbiako egoera benetan kezkagarria da: pertsonen kontrako minen erruz heriotza gehien dituen herrialdea da; sindikalistek mehatxuak jasotzen dituzte etengabe; eta Kolonbia da barruko errefuxiatu gehien dituen herrialdea.

Horrez gain, mehatxuak, atxiloketak eta hilketak eguneroko gauza dira Kolonbian. Desagertuen kasuan, jendea beldur da salaketak egiteko eta kasu asko eta asko salatzeke geratzen dira. Egoera benetan dramatikoa da eta gobernua ez dago ikerketak bultzatzearen alde. Estatua dago desagertuen eta hildakoen %97aren atzean eta ez gerrilla.

**Zuen kasuan, Kolonbiatik irten beharra izan duzue.**

Ezker Batua (IU) eta Bloque por Asturies alderdien arteko koalizioari esker, 61 sindikalista hartzen ditu gaur Asturiaseko gobernuak. Horien artean zegoen Luciano Romero Molina Nestle multinazionaleko sindikalista, 2004ko urritik 2005eko apirilera bitartean Asturiasen bizi izan zena eta 2005eko irailaren 11n Valleduparren, Kolonbiako Cesar departamentuan hil zutena. Luciano Romeroren hilketaren akusaziopean lauzpabost lagun atxilotu dituzte, baina haien atzean zeudenak libre daude.

KOLONBIA

**"Hainbat erakunderen arabera, azken 20 urteotan 49.000 lagun desagertu dira"**

POLITIKA NEOLIBERALA

**"Paramilitarrek eta indar publikoek bat egin dute enpresa handien interesak defenditzeko"**

NEKAZARIEN EGOERA

**"Nekazariei kendu zaizkien bost milioi hektareak itzultzea ezinbestekoa da"**

**Zein irtenbide ikusten duzu?**

Kolobiako gerra aspalditik dator, 1948ko apirilaren 9an inperialismoaren aurka altxatu zen Jorge Eliecer Gaitan politikoa hil zutenetik, hain zuzen. Gerrilla ondorengoa da, 1964koa. Hiru oinarri dituen soluzioa ikusten dugu: lehenbizi, batetik armadak eta paramilitarrek eta bestetik erakunde matxinatuek su-etena adostea; bigarrenik, gobernuak gerra-presoen trukaketa erraztea (gerrilla gertu dago baldin eta gobernuak horretarako garantiak ematen baditu), eta, azkenik, laborantza-erreformak aurrera egitea. Nekazariei kendu zaizkien bost milioi hektareak itzultzea ezinbestekoa da, nekazariek, indigenek eta afroamerikarrek aurrera egiteko aukera izan dezaten.

**Hauteskundeak izango dira Kolonbian datorren urtean.**

Bai, eta benetako demokrazia iristeko ezkertiar politikaren jazarpenarekin amaitzea ezinbestekoa da. Alvaro Uribek Kolonbiako konstituzioa bortxatu zuen, Simon Bolivarren garaietatik (1783-1830) konstituzioaren aurkakoa zelako presidentea berraukeratzea. Eta datorren urteko hauteskundeetan hautagaien artean izango da Uribe hirugarren aldiz.




## Interesa, mahai gainean

Hotzari aurrea hartu eta zure aurrezkien interesak produktu bero eta dotore bihur itzazu, praktiko eta diseinuzko. **Kutxa**n produkturik onenak bilatzen ditugulako, unearen eta zure beharrizanen arabera. Aukera ezazu zeure interesa: zeure ohiko bulegoan, Telekutxaren 901 333 555 telefono-zenbakian, www.kutxa.net-en edo **kutxa**ren kutxazainetan

**Hautatu zer eraman nahi duzun**

Edredoi bat, emakume edo gizonezko erloju bat edo xukadera-sorta bat ere eraman ditzakezu. Baldintzak kontsultatu.



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

## kale inkesta

# Lapurretek kezkatzen zaituzte? Horien aurrean nolabaiteko neurririk hartu duzu?



**Joxe Txintxurreta**
Langilea
Oñati

Egia esan kontu horrek ez nau batere kezkatzen. Ezin ahaztu edozein tokitan ari direla sartzen; etxe, auto eta bestelakoak, baina ni ez nau arduratzen. Etxean ere ez dugu neurri berezirik hartu horiek saihesteko.



**Ana Mari Aranburu**
Langilea
Oñati

Arduratuta nabil lapurretekin. Lehen lasai ibiltzen nintzen eta orain errespetu handiagoa diot gauez kalean ibiltzeari. Beti ixten dut etxeko atea giltzaz eta orain behe barruko atea konpontzen ari gara.



**Rufino Arriaran**
Erretiratua
Oñati

Kokoteraino nauka gai horrek. Etxean ez dugu inoiz aterik itxi eta orain hori bakarrik ez, sarraila eta ate guztiak aldatu ditugu. Lehengo konfiantzarik ez daukat. Udaltzaingoa gauez ere ibiltzea ondo legoke.



**Kontxita Murgiondo**
Langilea
Oñati

Duela bi urte hasi ginen atea giltzaz ixten. Inoiz ez gara halakoetaz arduratu eta orain hasi gara lapurretekin kezkatzen. Zaintza handiagoa egon beharko litzateke; gauez udaltzaingoa ibiltzea ez legoke gaizki.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARRASATE

**> GI-627 saihesbideak argiztapen nahikoa ez duela-eta**

Arrasateko gidari batek deitu digu salatzeko, bere iritziz, "GI-627 saihesbidea iluna eta arriskutsua" dela. "Faltan igartzen dut fundamentuzko argiteria", esaten du, eta gaineratzen du "arriskua" sortzen dela askotan: "Batez ere, saihesbiderako sarrerak dira arriskutsuak; argi-erreferentzia bakarra dira autoen argiak, eta ez da nahikoa". Beste kritika bat dauka: "Autobideak ondo daude, baina betiko saihesbideak ere zaindu egin behar dira".

OÑATI

**> Autobus egokitua eskatzen du gutxitu talde batek**

Oñatiar bat erredakzio honekin harremanetan jarri da bere haserrea agertzeko. Irakurleak gutxitasun bat du eta Bergarara lanera joateko autobusa hartzen du egunero eta, berak bezala, beste gutxitu batzuek ere. Eurek osatutako talde bat "aspalditik" dabil autobus egokitua eskatzen, euren ordutegian joaten zaienak ez dituelako betetzen eurendako irisgarritasun baldintzak, baina ez dute lortu. Jaramon egin diezaieten eskatzen dute.

ARRASATE

**> GIBa antzemateko probengatik, "eskerrak" Udalari**

Arrasatear batek zoriondu gura ditu Udal Sexologia Zerbitzuko arduradunak, joan den astean GIBa antzemateko proba azkarrak antolatzearren: "Eskertzekoa da, izan ere, bailarako farmazietan ezin da proba hori egin", esaten du berak.

## usteak uste

**Edu Mendibil**

# Liburu, disko eta...'Egunkaria'

1990eko abenduaren 6an jaio-ta, 19 urte eta egun bat beteko lituzke *Euskaldunon Egunkaria*-k gaur, baldin eta orain sei urte itxi izan ez balute. Eta hori salatzeko eta auzipetuei babesa adierazteko elkarretaratzea egin zuten atzo eguerdian Durangon, *Azoka hustu, plaza bete* lelopean. Ekitaldi jendetsua izan zen, laburra eta isila, eta deialdiarekin bat egin zuten eragile ezberdinek eta herritarrek, Durangon protagonista diren musikari eta idazleak tartean, nola ez.

Joan Mari Torrealdaik epaiketaren aurrean sentsazio txarrak dituela zioen azken GOIENKARIAn: "Justiziarik balego lasai egongo ginateke...". Atzo, Durangon, *Egunkaria*-ren aldeko ekitaldian, Josep Bargallok oinarrizkoa ei den adierazpen askatasuna aldarrikatzen zuen. Hori balego lasaiago egongo ginateke denok.

## zorroztailea



**Markos Balentziaga**

# Askatasunean

"Aita Larramendi jesuitak euskeraren gaineko lehen gramatikatzat dutena idatzi zuen gela berean, Patxi Lopezek (...) defenditu zuen "euskararen eta gaztelaniaren elkarbizitza" ezin daitekeela "arazo" gisa ikusi, baizik eta "jendarte solidario eta aurrerakoia" lortzeko "aukera" gisa."

El Diario Vasco > 2009-12-04



Joan dan eguenian Euskeriaren eguna zala-eta, hor–hemenka egin ziran ekitaldixen kontua zekarten zabal samar egunkarixak. Gipuzkuan salduena (eta monarkikuena) danak Lehendakarixa, Loiolan, XVIII. mendeko idazle aparta dan Larramendiren *El Imposible vencido* delako laneko (lehen euskal gramatikatzat joten da obra hori) sarrerako pasarte baten irakurketan jasotzen dau, erretratu eta guzti.

Patxi Lopezek Larramendiren irakurketiaz gañera, ondoko berbaldixan bittan be aittatu zeban *euskera en libertad* kontzeptua.

Neri kontu politt-politta be begitantzen jat kontzeptu hori Euskadiko eta Naparruako administraziñuetako agintari–jendiaren ahotan.

*Euskera en libertad* ziñuanian Euskadi independiente batian euskeraz nonnahi eta noiznahi egittiaz ete ziharduan amets egiten Patxi Lopezek? Lopezek halako fantasiak ete dauzka? Hain solte ta idealistia da ametsetan? (Ares, Rubalcaba, Grande-Marlaska eta enparauak jakiñaren gañian egongo dira, ezta?)

> **"Lopezek aittatu zeban 'euskera en libertad' kontzeptua**
>
> **"Euskaldunok libre berarekin euskeraz egitteko aukeriaz ziharduan?"**

Neri, dana dala, halako ametsak egitteko Patxi Lopezen zer hori fuerte samarra pentsatzen jat.

Edota Lopezek euskaldun guztiok libre-libre noiznahi eta zuzen-zuzenian (edozein erdaldunen modu-moduan, hiru berbatan esanda) Lopez lehendakari berarekin, edota Arantza Quiroga, Gasteizko legebiltzarreko buru danarekin, berbarako, euskeraz egitteko aukeriaz ete ziharduan? Ametsa... ala gaberdiko ahuntzaren eztula da hori?

Ala, hirugarrenik, lehendakarixak euskeria eta libertadia konstituziñuaren kerizpetan irudikatzen dittu, gaztelania ikasi "biharrak" eta Españako ejerzituak ziurtautako askapenian?

Horretako, baña, Lopez jauna, ez dago ametsik egin biharrik, "askatasun" hori gau eta egun bizi dogu euskaldun izan nahi dogun euskaldunok.

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Iker Barandiaran Erredaktore buru ordea Leire Kortabarria Erredakzioa Arantzazu Ezkibel,Miren Arregi, Edu Mendibil Oinarrizko diseinua Goio Arana Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale • Difusioa: 4.383 ale

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati**> 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
**Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20




**> ARRASATE**
Musika librearen gaineko mahai-inguruan parte hartzeko aukera izango dute gazteek **> 14**



**> OÑATI**
Baqueirara bi eski irteera eta Cervinia-Zermattera beste bat antolatu ditu Aloña Mendik **> 18**



**> ARETXABALETA**
Kirol etxearen oinarriak egiteko 20 metro arte zulatu behar izan dute Galdiano enpresakoek **> 19**

**ESKORIATZA** > HIZKUNTZA

# Eskoriatzako kaleetan egiten diren 100 elkarrizketatik 28 euskaraz dira

**HAURRAK**
Euskararen erabileran haurren presentziak eragina du Eskoriatzan

**POSITIBOA**
Gazteen erabilerak bost puntu gora egin du azkeneko urteetan

**UNIBERTSITATEA**
Unibertsitate inguruan euskararen erabilerak behera egin du



Eskoriatzako kaleetan egin zuten neurketa maiatzean. JOSETXO ARANTZABAL

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ESKORIATZA

Dagoeneko esku artean ditu Eskoriatzako Udalak euskararen kale erabileraren herriko neurketako datuak. Neurketa horren arabera, Eskoriatzako euskararen kale erabilera %28,4 da; hau da, kalean neurtu diren 100 elkarrizketatik 28 euskaraz izan dira eta gainontzeko 72ak gaztelaniaz izan dira.

Eskoriatzako udalak bi urtetik behin egiten du euskararen kale erabileraren neurketa, Soziolinguistika Klusterraren laguntzarekin. Lehenengo neurketa 2003. urtean egin zuten eta azkena, aurten, 2009an. 1997an eta 2001ean ere egin zuten kale erabileraren neurketa, baina neurketa horiek Euskal Herriko datu orokorretarako erabili ziren eta ez ziren izan gainontzekoak bezain sakonak.

**EZ DA INKESTA**

"Neurketa ez da galdeketa, ezta inkesta ere. Neurketa behaketa bidez egiten da eta Eskoriatzako kaleetan dauden pertsonek darabilten hizkuntza da neurtzen dena", adierazi dute Eskoriatzako Udaleko arduradunek. Hain zuzen, 2009ko neurketa maiatzaren 6an, 8an eta 9an egin zuten. Herria neurtzeko hiru esparrutan banatu zuten: Goiko kale-Dorleta, Erdigunea eta San Pedro-Intxaurtxueta. Gainera, unibertsitate inguruan neurketa berezia egin zuten.

**EUSKARAREN BILAKAERA**

Euskararen erabilera zergatik neurtu duten galdetuta, Udaleko arduradunek esan dute datu objektiboak izatea dela helburua, eta baita urteetako bilakaera aztertzea ere. "Hori da garrantzitsuena; ez urte bakoitzeko emaitza aztertzea, urteetan gertatzen den bilakaera aztertzea baizik", diote.

Bestalde, esan gura dute neurketa hau ez dela Eskoriatzako biztanleen erabilera. "Zuzenagoa da esatea Eskoriatzako kaleetan jaso den erabilera dela; izan ere, ezin baita ziurtatu kalean neurtu diren hiztun guztiak herrikoak direnik", azaldu dute.

**DATUAK ADIN TALDEKA**

Neurketaren datuak adin taldeka banatuta jaso dituzte: haurrak, 2 urtetik 14 urte bitartekoak; gazteak, 15 urtetik 24 urte bitartekoak; helduak, 25 urtetik 64 urte bitartekoak; eta adinekoak, 65 urtetik gorakoak. Datu horien arabera, haurren artean euskararen erabilera da %39,8; gazteen artean %42,9; helduen artean %19,8; eta, adinekoen artean %22.

Datu zehatzei erreparatu beharrean arreta joera nagusietan ipintzea ikusten du egokitzat Eskoriatzako Udalak. Hala, azkeneko urteetako bilakaeran ikusten duten datu positiboena gazteen erabilerak 5 puntu gora egin izana da. Negatiboena, ostera, haurren erabilera geldi egotea.

Ondorengo emaitzetan ikus daiteke auzuneen arabera ezberdinak direla datuak.

Esan bezala, hiru esparrutan banatu zuten Eskoriatza neurketa egiterako orduan. San Pedron neurtutako euskararen erabilera %13,5 izan da; Goiko Kale-Dorletan neurtutako erabilera %40 eta Erdigunekoa %32. Esanguratsua da San Pedroko datua beste esparrutakoa baino nabarmen baxuagoa dela.

**UNIBERTSITATE INGURUA**

Unibertsitate inguruan neurtutako datuen arabera, euskararen erabilerak asko egin du behera. 2003-2005 biurtekoko datua 2007-2009koa baino 25 puntu altuagoa zen; %74tik %49ra jaitsi da, hain zuzen. "Esku artean dauzkagun datuen arabera, Unibertsitate inguruan, kalean, azken sei urteetan euskara gero eta gutxiago erabiltzen dela esateko moduan gaude", hori da Eskoriatzako Udalak atera duen ondorioa.

2009ko neurketaren beste ondorio garrantzitsu bat da gazteak direla euskara gehien erabiltzen duten adin-taldea, haurrenaren aurretik. Hala ere, bi datuak elkarrengandik gertu kokatzen dira –2,1 puntuko aldea–. Adinekoen datua helduena baino altuagoa da eta honi buruzko interpretazioa egiterakoan kontuan izan behar da, herriko biztanle gehien ordezkatzen duen taldea helduena –25-64 urte bitartekoak–.

Adin taldekako erabileraren bilakaerari dagokionez, haurretan izan ezik erabileraren joera hazkorra sumatzen da. Hala eta guztiz ere, joera hazkor hau eta haurren erabilerak agertzen duen joera egonkorrak aldaketa txikia adierazten dute: 6 urteko bilakaeran gehienez ere 5 puntuko gorabehera eman da talde bakoitzaren euskarazko elkarrizketa portzentajean.

**EUSKALDUNAK**

2006ko datuen arabera, Eskoriatzan euskaldunak %58,2 eta ia euskaldunak %17,3 ziren. Baina euskaldun horietako asko ezkutukoak dira, herritarrek ez dituzte euskaldun bezala ikusten; hortaz, ezinbestekoa da euskaldun horiek azaleratzea, identifikatzea. Behin identifikatuta, harremanetan hizkuntza ohiturak aldatzeko ahalegina egitea izango da hurrengo pausoa.

## Erabilera adin taldeka

| TALDEA | ERABILERA |
|---|---|
| Haurrak | %39,8 |
| Gazteak | %42,9 |
| Helduak | %19,8 |
| Adinekoak | %22,0 |

## Haurren presentzia euskararen erabileran

Esan daiteke Eskoriatzan haurren presentziak baduela eragina elkarrizketen hizkuntza hautatzerakoan. Datuetan ikus daiteke haurren arteko elkarrizketetan %39 egiten dela euskaraz; eta, haur eta nagusien artekoetan, ostera, %44,8. Era berean, nagusiek euren artean askoz gutxiago erabiltzen dute euskara haurrak aurrean daudenean -%22,5- ez daudenean baino -%23,5-. Haurrek harreman horizontalak (berdinen artekoak) eta bertikalak (goitik behera eta alderantziz) ulertzeko duten moduarekin egon liteke erlazionatua. Izan ere, datuen arabera ikus daiteke nagusiek euren artean askoz gutxiago erabiltzen dutela euskara haurrak aurrean egon edo ez. Datuen aurrean atera den hipotesia da haurrek euskara "haurren hizkuntza" bezala ikusten dutela; gurasoen hizkuntza jokaera ikusita, autoritate txikiagokoei zuzentzeko egokia, baina heldu itxura eman nahi izanez gero gaztelaniara jotzen dute.

**ARRASATE** > SAN NIKOLAS BOLO-BOLOA

# Zoramena piztu zen Herriko Plazan lehen litxarreria botatzeaz bat


Umeak ez ezik, nagusi bat edo beste ere batu zen domekako San Nikolas bolo-bolora. M.A.


Plazak gainezka egin zuen. M.A.

San Nikolas bolo-boloak ume, guraso eta adineko asko batu ditu aurten ere Arrasateko Herriko Plazan

**MIREN ARREGI** > ARRASATE

Eguerdiko hamabiak aurretik zegoen Herriko Plaza ume eta gurasoz beteta. Umeak urduri eta gurasoak haiei so, guztiak udaletxeko balkoira begira.

Hamabietan irten ziren Arkaitz Biain eta Oihana Aranburu zinegotziak eta Ino Galparsoro Arrasateko alkatea udaletxeko balkoira. Hirurak ere irribarretsu, behean zegoen jende multzoari gozokiak banatzeko gertu. Opariak eta litxarreriak banatu aurretik, baina, umeek, ozen, San Nikolasen abestia kantatu zuten.

Alkateak lehenengo litxarreria eskukada botatzeaz bat hasi zen zoramena. Hango oihuak, bultzakadak, barreak, negarrak... Horiek guztiak dira San Nikolas bolo-boloaren ezaugarri.



**ARAMAIO** > BERTSOLARITZA

# Final bikain eta jendetsuarekin bukatu zen Bertxoko Sariketa

**LIERNI ALTUNA** > ARAMAIO

Jone Uria algortarrak jantzi zuen Bertxoko Sariketako txapela, nahiz eta sei finalistak, guztiak –Uriaz gain, Mikel Artola alegiarra, Enaitz Alustiza bergararra, Jokin Labaien arrasatearra, Iñaki Viñaspre abetxukoarra eta Ander Solozabal gasteiztarra– izan ziren gaueko protagonistak. Oso saio ona egin zuten, Manex Agirre gai-jartzaile aramaioarraren esanetan. Egubakoitz gauean jokatu zen finala Aramaioko Iturrieta sagardotegian. Hala Bedi irratiak eta Arabako Bertsozale Elkarteak antolatu dute Bertxoko Sariketa azken hiru urteotan.

Afaltzeko zeuden 96 lekuak hartuta zeuden astelehenerako, Gasteiztik autobusean etorri ziren asko Aramaiora, eta bertsolari bakoitzak bere afizioa ere ekarri zuen. Afalostean ere herriko eta kanpoko jende dezente hurbildu zen saioa ikustera. Sagardotegia bete-bete eginda zegoen, ehun bertsozale inguruen berotasunean. Hala Bedi irratiak zuzenean emititu zuen, hiru hizlariren bitartez.

**GAZTA ETA EZTIA OPARI**

Bertsolariek lan bikaina egin zuten. Doinu ezagun batean egindako agur puntuagarri originalak entzun ostean, zortziko nagusian gai serioetan jarri zituen Manex Agirrek. Gero zortziko txikian umore ale batzuk entzun zituzten zaleek, eta bakarka, bi puntu erantzun eta bertso bat audio bati, ere fin ibili ziren. Amaitzeko, hamarreko txikia kartzelan kantatu behar izan zuten. Kasu honetan egoera baten jarri zituen Agirrek, atzean abade bat pankarta batean marraztuta, bertsolariak binaka parez pare, eta bakoitzari eraztun bana emanda. Eta amaitzeko, hirunaka, trikitiarekin lagunduta, hiruna kopla osatu behar izan zituzten.

Aramaioko Bertso Eskolak, bertsolariei egindako lana eskertzeko, bertako gazta eta eztia oparitu zien, eta txapeldunak txapela jantzi zuen arren, beste bertsolariek bisera bana ere jantzi zuten.

Abornikano, Zalduondo eta Gasteizko kanporaketen ostean, Aramaioko final horrekin amaitu zen Bertxoko.




Sei finalistak; erdian, txapelduna, Jone Uria algortarra. LIERNI ALTUNA



Telleria eta Martinez, emanaldiaren une baten. JOSETXO ARANTZABAL

**ARETXABALETA** > ANTZERKIA

# Euskal umore argia hainbat esketxetan

**GOIENKARIA** > ARETXABALETA

Patxo Telleriaren eta Mikel Martinezen hitz-jokoekin eta txantxekin nahikoa barre egin eta buruari pare bat buelta eman zioten egubakoitz ilunkaran Arkupe kultura etxean *Euskarazetamol* antzezlana ikustera joan zirenek. Euskararen Egunaren aitzakian eskatu zion Udalari antzezlan hori Aretxabaletara ekar zezala Leintz Udal Euskaltegiak. Antzezlana nahiko berria da, ekainaren 2an estreinatu zuten-eta Ez Dok Hiru taldea osatzen duten bi aktore haiek Bilbon. Ordu bete pasatxoko emanaldia motz egin zen, eta nabarmena zen ikusentzuleek zein gustura jarraitu zituzten bi pertsonaion pasarteak.

**IKUSLEA, ERNE**

Euskara ardatz duen trilogia baten hirugarren atala da *Euskarazetamol*; lehenengo atala *Euskara sencilloaren manifiestoa* pieza ezaguna da, eta bigarrena, *Larruaizetara*.

Oraingo honetan, hainbat esketx antzezten dituzte aktoreok; eta, bereziki batzuek, ikusentzulea argi ibiltzea eskatzen dute. Hala, baten, politikari bati elkarrizketa antzezten dute, eta erantzun guztiak euskal abizenetan oinarrituta daude; non bizi nahi duen galdetuta, adibidez, *Lekuona* erantzuten du politikariak; beste esketx baten Aretxabaletan etorkizunean zelan ligatuko den hausnartzen dute, eta horretan, auto modeloak dira hitz-jokoen oinarri.

**ARRASATE** > SARIA

# "Dirua benetan premia zuenari eman izatea espero dut"



Aritz Martin arrasatearra, bere kioskoan. JOSETXO ARANTZABAL

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

"Benetan premia zuenari eman izatea espero dut; lanik gabe geratu denari edo bestelako behar handia duenari". Horixe esan zuen ONCEko saltzaile arrasatear Aritz Martinek, 210.000 euroko saria eman berri zuela jakitean. Egubakoitzeko zozketan irten zen 34.632 zenbakia, berak Arrasate Pasealekuko 35. zenbakian duen saltokian saldutakoa. Sei kupoi saldu zituen, bakoitza 35.000 eurorekin saritua.

**GIPUZKOAKO GAZTEENA**

Aritz Martinek ematen duen lehenengo saria da. ONCEk gaur egun Gipuzkoan duen saltzaile gazteena da, 23 urterekin. Bi urte daroa loteria saltzen. Urduritasunez baina pozik hartu zuen berria Martinek.




MIREN SERRANO

**ARGAZKIGINTZA** > LEHIAKETA

## Miren Serrano ikasleak irabazi du MUren I. argazki lehiaketa

Miren Serrano HUHEZIko ikasleak irabazi du Mondragon Unibertsitatearen lehenengo argazki lehiaketa, Euskara eta unibertsitatea. Miren Irakasle ikasketak egiten ari da, Atzerriko Hizkuntza, eta hitz joko bat proposatzen du bere argazkian, uraren eta urrearen arteko hitz jokoa, *urrez urrezta dezagun gurea*. Argazki saritua, Urrezko hizkuntza. Irabazleak ordenagailu eramangarri bat jaso du, netbook erakoa. Publikoaren saria Iñaki Aranburuk irabazi du.

**UDALA** > GIZARTE ZERBITZUAK

# Udalak Aldundiaren esku utziko du errehabilitazio psiko-sozialerako lokala

Erguin kaleko 19. zenbakian kokatuta dagoen lokala erabiliko du Aldundiak

Aldundiaren esku dago lokala noiz irekitzea baina Udalak luze joko duela uste du

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Joan den eguenean egin zen abenduko osoko bilkuran aho batez onartu zenez, errehabilitazio psiko-sozialerako zentro bat zabalduko da Erguin kaleko 19. zenbakian. Aldundiko Gizarte Politikako departamenduak egin zion eskaera Udalari eta Udalak, eskaera aztertu ostean, zenbait lokal jarri zizkion aukeran Aldundiari. Aldundiak kokapen egokia eta batez ere lokalaren tamaina kontuan hartuta Erguin kaleko 19. zenbakian dagoen lokala aukeratu zuen leku egoki moduan. Orain arte taila elkartea egon da bertan, besteak beste.

**AMAITU DA UDALAREN LANA**

Osoko bilkuran onartu zenez, lokalaren lagapena 25 urterako izango da. Gainera, Udalak eta Aldundiak ondo ikusten badute, hamar urtez luzatzeko aukera izango da. Udalak doan utziko dio baldin eta etorkizuneko egoitza Aldundiak errehabilitazio psiko-soziala helburu duen ekimenetarako bakarrik erabiltzen badu.

Bada, Aldundiari lagapena egin ostean amaitzen da Udalaren lana. Iñigo Garitano gizarte zerbitzuetako teknikariak azaldu duenez, orain Aldundiak esleitu behar du obra eta jarri behar du martxan ekimena. Garitanok dioenez, "Aldundiaren asmoen araberakoa" izango da irekiera -data. Hala ere, Garitanok luzerako joko duela uste du; "bi urte inguru", jakinarazi du.

Aldundia Gipuzkoako hainbat udalerritan ari da arazo mentalak dituzten pertsonendako zentroak egokitzen. Hala, Arrasaten zabalduko denak arrasatearrei zein bailarako herritarrei eskainiko die zerbitzua.



Erguin kaleko 19. zenbakian jarriko dute osasun mentalak tratatzeko zentroa. J.B.

DATUA

**400**

**METRO KOADRO**

Errehabilitazio psiko-sozialerako zentroak 400 metro koadro izango ditu. **Udalak emandako aukeren artean lokal hori aukeratu du Aldundiak batez ere handia delako.**

**UDALA** > ABENDUKO OSOKO BILKURA

## Atxiloketak konponbiderako 'oztopo' direla uste du Udalak

Gazte independentisten aurkako polizia operazioa salatzeko mozioa onartu zuen udalbatzak

**J.B.** > ARRASATE

Oihana Aranburuk aurkeztu zuen gazte independentisten sarekadaren aurkako mozioan PSE-EE eta PP izan ziren aurka bozkatu zuten alderdi bakarrak. Beraz, aldeko 15 boto –ezker abertzalea, EAJ, Alternatiba-Zutik, EA eta Aralar– eta aurkako lau –PSE-EE eta PP– izan ziren.

Hala, aldeko botoa eman zutenek "konponbidearen aurkako estrategiaren emaitza" moduan definitu zuten joan den asteko polizia operazioa. Hainbat udal taldek, EAk kasu, "ETAk mina besterik ez" duela egiten adierazi zuten, baina era berean, "Espainiak ezarritako blokeoa" gainditu beharra dagoela gaineratu zuten.

**INAZIO URIA GOGOAN**

PSE-EEko Aritz Arrietak, bestalde, adierazi zuen "lotsagarria" dela halako mozio bat Inazio Uria enpresariaren erailketaren lehen urteurrenean aurkeztea. Gainera, esan zuen, atxilotuak ez dira "katekesira doazen gazteak, ETAren etxerako lanak gauzatzen dituztenak dira".

Azkenik, herritar batek hartu zuen hitza, Arrasateko gazte mugimenduaren izenean. Honakoa adierazi zuen: "Guk ez genuen ETAren aurkako operazioa ikusi, herri honen alde hamaika proiektutan lanean dabiltzan gazteen aurkako estrategia baizik". Gazte horien lana goraipatzeaz gain, exijitu zuten euren proiektuak gauzatzeko eskubidea.



Egueneko osoko bilkura. J.B.





*Copyright* eta *copyleft*-en arteko ezberdintasunak azalduko dira. GAZTE BULEGOA

**MUSIKA** > MAHAI-INGURUA

## Musika librea berbagai eta eztabaidatzea helburu

Gazte bulegoak mahai-ingurua antolatu du eguenerako, gaztetxean, 18:00etan hasita

**J.B.** > ARRASATE

Musika eta lizentziak. Internet eta deskargak. Eskubideak eta sorkuntza. *Copyright* ala *copyleft*? SGAE ala *ezgae*? Horiek izango dira eguenean gaztetxean hizpide izango diren kontzeptuetako batzuk.

Izan ere, Gazte bulegoak musika librearen gaineko mahai ingurua antolatu du. Eguenean izango da, hilak 10, 18:00etan hasita. Gonbita herriko musikariei egin zaie eta besteak beste, Musikherria herri diskoetxeko kideak izango dira gaztetxean. Hala ere, deialdia irekia da edonorendako. Ekimenaren helburua da, Patxi Gaztelumendi Gazte bulegoko koordinatzaileak adierazi duenez, "musikak eskaintzen dituen aukerak erakutsi eta musikaren arlo ezberdinetaz eztabaida sustatzea".

**ENTZUN, IKUSI ETA BERBA EGIN**

Gazte bulegoaren filosofiari jarraiki, izaera parte-hartzailea izango du ekimenak. Gainera, musika entzuteko eta bideo batzuk ikusteko aukera egongo da.

Orain arte teknologia berrien eta software librearen inguruko ekimenak landu dituzte, baina musika ere gertu ei dago arlo horietatik. Eztabaida bizia dago gaiaren inguruan, eta ziur ekarpen aberasgarriak egingo direla.

> IKASTAROA

### Dementziak dituztenen zaintzaren gaineko jardunaldia

Dementziaren gaineko ikastaroa antolatu dute Ekin Emakumeak eta Bizikasi elkarteek datorren abenduaren 14tik 18rako (15:30-18:30). Guztira 15 ordu iraungo ditu eta espainolez izango da. Ekin Emakumeak elkartearen egoitzan emango da ikastaroa.

Tailerrak Sonia Ulazia Adindu enpresako kideak zuzenduko ditu eta aurreratu duenez, "Dementzia gaixoekin nola jokatu erakustea izango da helburua". Izan ere, dioenez, "gaixoak, batez ere gaitzaren lehen fasean, asko sufritzen du".

> ERAKUSKETA

### 'Naturaren argazkilariak', hilaren 20ra arte

*Naturaren argazkilariak* argazkilaritza lehiaketan jasotako lan onenak azaroaren 13tik daude ikusgai Kulturaten. Bada, erakusketa oraindik bisitatu ez duenak abenduaren 20ra arte izango du horretarako aukera.

1964. urtetik *Naturaren argazkilariak* naturako argazkilaritza lehiaketa entzutetsuenekoa da; iaz, esaterako, 32.350 erretratu jaso zituzten, 82 herrialde ezberdinetatik. Arrasaten, 83 argazki jarri dituzte ikusgai. Naturaren edertasuna jaso eta erakustea da lehiaketaren helburua eta irudi benetan ikusgarrietaz gozatu daiteke.

**EMAKUME TXOKOA** > ERAKUSKETA

# Kubako emakumeen iraultza propioa ezagutzeko aukera, hilaren 15era arte

Euskadi-Kuba taldearen 'Emakume kubatarrak, iraultza bat beste baten barruan' erakusketa jarri du Emakume Txokoak, 'herriarendako interesgarria' delako

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Joan den eguenean zabaldu zuen Emakume Txokoak Euskadi-Kuba elkarteak antolatutako *Emakume kubatarrak, iraultza bat beste baten barruan* erakusketa. Erakusketa abenduaren 15era arte egongo da ikusgai, Emakume Txokoaren egoitzan.

**'HERRIARENDAKO INTERESGARRIA'**

Emakume Txokoak uste duenez, "herriarendako interesgarria" delako jarri dute erakusketa. Izan ere, Kubako iraultzaren barruan emakumeek jokatu zuten eta egun jokatzen duten papera azaltzen du. Erakusketak aditzera ematen duenez, Kubako Iraultzaren lorpen handienetakoa izan da emakumeek herrialdeko bizitza ekonomikoan, politikoan, sozialean eta kulturalean parte hartzea.

Bestalde, bisita gidatuak egiteko aukera izango da, baina Emakume Txokotik adierazi dutenez, "data oso zailak" dira eta oraindik ezin izan dituzte orduak zehaztu. Azken orduko aldaketarik ezean, abenduaren 10ean izango dira aipatu bisita gidatuak.




Erakusketan panel informatiboak jarri dituzte eta Euskadi-Kuba elkarteko kideekin bisita gidatuak egiteko aukera egongo da. J.B.

**MUSIKA** > HERRIKO TALDEAK

# Otsailerako kalean izateko asmoz, Never Surrender jo eta ke ari da diskoa grabatzen

Oraindik ez dute erabaki euren bigarren lan luzea zein zigilurekin kaleratu

Otsail hasieran atera eta martxoan aurkeztea gura dute; 11 kantu izango ditu, euskaraz



Asier Sala Lazkanoko soinu teknikaria eta Never Surrender-eko *Pottoko* eta *Dura*, Aretxabaletako Lazkano estudioan. J.B.

**J.B.** > ARRASATE

Irailaren 5ean eman zuen azken kontzertua Never Surrender taldeak. Kontzertu berezia izan zen, 108. emanaldia –zenbaki sakratua taldearendako, 108. garajean hasi baitzen guztia–, taldearendako inflexio-puntua izan zena. Izan ere, Asier Uribetxeberria –*Atxi*– bateria jolea Pragara joan zen orduan eta aldi baterako zuzenekorik ez ematea erabaki zuten.

Zuzenekorik ez emateak, baina, ez du geldialdia esan nahi. Eta talde arrasatearra buru belarri dabil lanean euren bigarren diskoa grabatzen. Otsaileko lehen edo bigarren astean diskoa kalean izatea espero dute, eta martxoko lehen astean jendaurrean aurkeztea.

**ONDO ZAINDUTAKO LANA**

Talde arrasatearrak ez daki zein zigiluk kaleratuko duen diskoa, eta izena ere ez dute erabaki oraindik. Banaketa atzerrian ere egiteko asmoa dute eta Espainiako zein Europako hainbat zigilutara bidali dituzte abestiak. Oraindik, baina, ezin izan dute ezer lotu.

Bigarren lan luzea asko ari dira zaintzen. *Aurrerapenaren izenean* aurreko diskoari jarraiki, hitzetan topikoetatik haratago joateko saiakera egin dute eta alde musikalari dagokionez bide berriei ere ekingo diete. Baina ez dute gehiago aurreratu gura izan. Hori bai, jakinarazi dutenez, "ez da sorpresarik faltako".

Emaitza ahalik eta onena izan dadin bi estudiotan grabatuko dute diskoa. Musika grabatuta dago, Arrasateko Shot! estudioan, baina ahotsak, diotenez, "lasai eta patxadaz" grabatzeko, Aretxabaletako Lazkano estudioan daude, lagun duten Asier Sala soinu teknikariarekin. Behin ahots guztiak sartuta, Shot!-era bueltatuko dira, nahasketak egiteko.

DATUA

**11**

**KANTU, ETA GUZTIAK EUSKARAZ**

Esateko dutena euskaraz esateko konpromisoari eutsiz, diskoak izango dituen 11 abestiak euskaraz izango dira. Horietatik bi zaharrak izango dira, 2002 ingurukoak. Gainontzekoak kantu berriak dira.

> GAZTE BULEGOA

### Abenduaren 11ra arte itxita, eta zerbitzua BAZera pasako dute

Arrasateko Gazte bulegoak jakinarazi zuenez, itxuraldaketa lanak direla-eta, egoitza itxi egin dute abenduaren 4tik 11ra arte. Hala ere, herritarrak ez dira Gazte bulegoaren zerbitzu barik geratuko, zerbitzua Biztanleen Arreta Zerbitzura pasako baitute.

Gaur eta bihar ez da zerbitzurik egongo eta eguaztenean BAZen egongo dira, goiz eta arratsaldez –11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara–. Eguenean ez da Gazte bulegoaren zerbitzurik egongo eta hilaren 11n, goizez bakarrik izango dira, BAZen.

> ZAHAR BERRI

### Jurgen Wolf-ek hitzaldia egingo du eguaztenean, hilak 9

Zahar Berri elkarteak hitzaldia antolatu du abenduaren 9rako (18:30). Joan den eguaztenean –abenduak 2– ere egin zuten hitzaldia eta orduko hizlari bera gonbidatu dute azken hitzaldi honetarako. Hots, Jurgen Wolf Tandem fundazioko kidea.

Oraingoan ere Wolf-ek Kulturaten emango du hitzaldia. Saio honen izenburua da *euskara zein beste hizkuntza bat mintzatzeko orduan, beldurra galtzeko teknika batzuk*. Hala, batez ere gurasoei begira antolatutako hitzaldia bada ere, Zahar Berrik edonori luzatzen dio bertara joateko gonbita.

**EUSKARA** > JARDUN ELKARTEA

# Aniztasunaz jarduteko hurrengo elkargunea hilaren 10ean izango da

## Euskaraz, norbere ama hizkuntza, hezkuntzaz eta kulturaz berba egingo dute

## Kultura etxean egingo dute elkargunea, 19:00etan; herritar guztiak daude gonbidatuta

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Bergarako Udalak Anitzak ekimenarekin elkarlanean abiatutako aniztasunaren eta bizikidetzaren gaineko prozesuaren baitako hurrengo elkargunea hilaren 10ean, eguena, izango da, 19:00etan, kultura etxean. Elkargune horretan landuko dituzten gaiak dira: euskara, norbere ama hizkuntza, hezkuntza eta kultura.

Aurreko elkarguneetan bezala, hilaren 10ekoan ere herritarrek parte hartzea nahi dute udal arduradunek, arlo horietan diharduten pertsonez gain, beste arlo batzuetan diharduten eragileena, zein herritarrena, oro har. Hori horrela, herritar guztiak gonbidatzen dituzte, Anitzak ekimeneko ordezkarien esanetan "parte-hartzea zenbat eta zabalagoa izan, eztabaida gero eta aberasgarriagoa izango delako".

**SOZIO-EKONOMIA MINTZAGAI**

Azkeneko elkargunea azaroaren 26an egin zuten. Elkargune hartan sozio-ekonomiaz jardun zuten eta batu ziren hainbat sindikatutako ordezkariak, bazterkeria sozialaren kontra diharduten elkarteak, hainbat jatorritako herritarrak zein beste arlo batzuetan aritzen diren herriko zenbait eragile.

Sozio-ekonomia arloan dauden gabeziez eta erronkez hausnartu zuten eta askotariko iritziak egon arren, guztiak bat etorri ziren honekin: berba egiteko halako aukera bat izatea oso positiboa eta beharrezkoa dela.

Neurri handi baten krisi ekonomikoak baldintzatu zuen eztabaida, eta parte-hartzaile guztiek egoera horren aurrean zer egin daitekeen eta nola eragiten dien azaltzeko aukera izan zuten. Azkenean, ondorio honetara iritsi ziren: inoiz baino gehiago, langileen eskubideak defendatzea eta lan baldintza duinengatik borrokatzea beharrekoa dela. Eta azpimarratu zuten hori horrela izateko mesfidantzak gainditu egin behar direla eta langile guztien arteko batasuna dela bidea, euren jatorria dena delakoa izanda ere.

Anitzak ekimeneko ordezkarien esanetan, urtarrilean egingo dituzten jardunaldietan emango dituzte jakitera elkarguneotan jasotako ondorio eta proposamenak.


Azaroaren 26an egindako batzarra. GOIENKARIA

**AUZOAK** > LANAK

# Angiozar eta Basalgoko bideak konponduko ditu Udalak

## Bi auzo horietako hainbat baserritarako errepideak konpontzeko 140.000 euro inguruko inbertsioa egingo dute

**M.B.** > BERGARA
Angiozar eta Basalgo auzoetan dauden hainbat baserritara iristeko errepideak konpondu egingo ditu Udalak.

Batetik, Angiozar auzoko Zabaleta eta Galarraga baserrietara doan errepidea eta Orbe-Aundia eta Koroba baserriak lotzen dituena konpondu nahi ditu Udalak. Bestetik, Basalgo auzoko Eguren baserrira –beste baserri batzuetara ere iristen da– doan bide publikoa ere konpondu gura du.

Konponketa horiek egiteko proposamen teknikoa eta baldintzak aurreko astelehenean egindako ohiko osoko bilkuran onartu zituzten. Gainera, alderdi guztien –Udal gobernu taldea, Eusko Alderdi Jeltzalea, Eusko Alkartasuna eta PSE-EE alderdiak– oniritziarekin egin zuen aurrera proposamenak.

**INBERTSIOA**

Bi auzoetako errepideetan egin behar diren konponketa lanak kontuan hartuz gero, guztira, 140.685 euroko inbertsioa egingo du Udalak.

Angiozarko Orbe-Aundia eta Koroba baserrietako errepideak konpontzeko lanak 85.240 eurotan aterako ditu Udalak enkantera. Zabaleta eta Galarraga baserrietako bideena, berriz, 25.953 eurotan.

Basalgo auzoko Eguren baserrira doan errepidean egondako luiziak eragindako kalteak konpontzeko lanak 29.491 eurotan aterako dituzte enkantera.

> ZINEMA

### Zabalotegiko zineklubean 'Irina Palm' emango dute

Eguenean, abenduaren 10ean, *Irina palm* filma emango dute Zabalotegi aretoko zineklubean. 20:00etan izango da emanaldia eta 2 euro balio du sarrerak. Leihatila emanaldia baino ordubete lehenago irekiko dute.

Aste bukaerako film emanaldiei dagokienez, datorren zapatuan, hilaren 12an, eta domekan, hilaren 13an, bi film ikusi ahal izango dira: 17:00etan, umeendako saioa egongo da eta emango dute *Los mundos de Coraline*; 19:30 eta 22:30ean, berriz, *El curioso caso de Benjamin Button* helduendako filma emango dute. Umeendako sarrerak balio du 2 euro eta nagusiendakoak, berriz, 3. Leihatila irekiko dute emanaldia baino ordutebe lehenago.

> LEHIAKETAK

### Gabonetako jaiotza lehiaketa eta postalena abian daude

Jaiotza eramangarrien VIII. lehiaketa eta Gabonetako postalen V. lehiaketa –biak ala biak Serafin Esnaolaren omenezkoak– deitu ditu San Antonioko Gure Ametsa elkarteak. Jaiotza eramangarrien lehiaketan nahi duten guztiek har dezakete parte. Jaiotzek Gabonetako misterioa duintasunez irudikatu beharko dute eta 30x80 cm-ko oinarri sendoan aurkeztu beharko dira. Postal lehiaketa da 3 eta 12 urte bitarteko haurrendako eta adinaren araberako hiru maila egongo dira: 3 eta 6 urte artekoak, 7 eta 9 artekoak eta 10etik 12ra artekoak. Marrazkia Gabonen gainekoa izango da. Bietan ala bietan lanak aurkezteko eguna da hilaren 18a, 19:00-21:00 ordutegian, Gure Ametsan.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53
Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37
Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13



Hamar panelek osatzen dute erakusketa. GOIENKARIA

**JENDARTEA** > ERAKUSKETA

# Elhuyar anaiei eta wolframioari buruzko erakusketa udaletxean

Osoko bilkuren aretoan dago ikusgai, hilaren 20ra arte; 10 panelek osatzen dute erakusketa

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

*Zientzia, teknologia eta gizartea Euskal Herrian: elkartea, Elhuyar anaiak eta Wolframioaren isolatzea* izeneko erakusketa dago ikusgai egunotan osoko bilkuren aretoan. Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak eta Euskal Herriko Unibertsitateak antolatu dute, Bergarako Udalaren babesarekin, eta hamar panelek osatzen dute.

**AURKIKUNTZA, BERGARAN**

Zientziak eta teknologiak berebiziko garrantzia izan zuten XVIII. mendeko gizartean. Wolframioa mende hartan isolatu zuten Elhuyar anaiek; 1783. urtean, hain justu, Bergaran, eta garaiko aurkikuntza zientifiko eta teknologiko garrantzitsuenetako bat izan zen. Real Seminario Patriotico Bascongadok Bergaran zuen *Laboratorium Chemicum*-ean isolatu zuten wolframioa Juan Jose eta Fausto Elhuyar anaiek; gaur egun Edel oihal-denda dagoen lekuan zegoen laborategia.

Aurkikuntza haren atzean, espioitza operazio bat ere egon zen eta Itsas Armadako Ministerioak eta Euskalerriko Adiskideen Elkarteak hartu zuten parte.

**AURKIKUNTZA GARRANTZITSUA**

Wolframioa garrantzi handikoa izan zen metalurgiaren garapenean, hainbat erabilera eremu dituelako: etxekoak, publikoak, estrategikoak eta militarrak.

Aurkikuntza hark berehala izan zuen oihartzun handia mundu osoan. Frantziako, Britainia Handiko, Alemaniako eta Suediako aldizkari zientifiko nagusietan argitaratu zuten, eta *Encyclopédie*-n ere agertu zen.

Horiek guztiak eta beste hainbat zehaztasun eta bitxikeria ezagutzeko aukera egongo da osoko bilkuren aretoan jarri duten erakusketan, hilaren 20ra arte. Hain zuzen, lanegunetan 18:00-20:00 ordutegian eta jaiegunetan 12:00-14:00 ordutegian egongo da ikusgai.

**HITZALDIA ERE BAI**

Erakusketarekin batera hitzaldia ere egongo da. Pascual Roman Polo Euskal Herriko Unibertsitateko Kimika Organikoko katedradunak eta Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko kideak egingo du hitzaldia eta landuko duen gaia da *Wolframioaren aurkikuntzaren historia eta oihartzunak*.

Hitzaldia izango da hilaren 17an, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan.

DATUA

**1783.**
**URTEA**

Urte hartan isolatu zuten Juan Jose eta Fausto Elhuyar anaiek wolframioa. XVIII. mendeko aurkikuntzarik garrantzitsuenetakoa izan zen eta metalurgiaren garapenean ezinbestekoa.

**KULTURA** > ANTZERKIA

# Mendiaren gaineko gogoeta 'clown' ikuspuntutik gaur, astelehena, Zabalotegin

'Klowntuz! Mendia' izeneko helduendako antzezlana egingo du Kili Kolo antzerki taldeak 22:30ean

**M.B.** > BERGARA

Kili Kolo antzerki taldeak *Klowntuz! Mendia* delako antzezlana egingo du gaur, astelehena, 22:30ean, Zabalotegin.

Helduendako antzezlana da eta Mari Gorritxuren ibilaldiak kontatuko ditu. Mari Gorritxu hiriko pailazoa da eta oporretan dago. Psikoanalistak estres guztia kentzeko mendira joatea gomendatuko dio eta horixe egingo du Mari Gorritxok trena hartuta; izan ere, beti dago Jose Artista psikoanalistaren esanetara. Baina mendira iritsi bezain laster, lekuz kanpo sentituko da Mari Gorritxo. Ez du mendia ezagutzen, ez du natura –isiltasuna, zuhaitzak, animaliak...– ulertzen. Horren ondorioz, pasarte barregarri eta korapilotsuak gertatuko zaizkio, eta estresa kendu ordez, areagotu egingo zaio. Azkenean, Mari Gorritxuk irtenbide bakarra ikusiko du: hirira bueltatzea.



Antzezlanaren kartela.

## oharrak

LUNTXA

**> Erretiratuendako luncha emango du Lasai Tokik**

Bihar, martitzena, izango da, 12:00-14:00 ordutegian. Urtero egiten dute eta, ohi bezala, herriko erretiratu guztiak daude gonbidatuta.

ERRETIRATUAK

**> Hilaren 9an irekiko dute San Joxepe egoitza**

San Joxepe elkartetik jakinarazi nahi diete herritarrei eguaztenean, hilak 9, irekiko dutela elkartearen egoitza, eraberritze lanak bukatu eta gero.

UDALA

**> Autolaguntza taldea osatu nahi dute ezinduen zaintzaileendako**

Mendekoak zein ezinduak euren kargu dituzten pertsonendako autolaguntza taldea sortu nahi du Udalak. Halako gaixoak dituztenendako elkargune izatea da asmoa. Autolaguntza taldean parte hartzeko interesa dutenek Ongizate Zerbitzura jo dezakete edo 943 77 91 65 telefono zenbakira deitu.

KINTADA

**>1983an jaiotakoek bazkaria egingo dute Tartufo jatetxean**

Abenduaren 19an egingo dute bazkaria. Izena emateko azken eguna da abenduaren 14a, astelehena, eta horretarako sartu behar dira 40 euro Euskadiko Kutxako zenbaki honetan: 3035 0001 52 0010117196. Bazkari egunean 13:00etarako egin dute hitzordua San Martin plazan. Autobusa egongo da joan-etorrirako, eta baita musika ere, bazkalostean dantza egiteko.





Iaz Cervinia-Zermatt eski estazioetara Pazko Astean egindako irteerako parte-hartzaileetako batzuk. LEIRE GÜENETXEA

**KIROLA** > DENBORALDI BERRIA

# Eski irteeretako izenematea, hilaren 14tik

## Arduradunak Aloña Mendi tabernan egongo dira astelehenetan, 18:30etik 20:30era

## Hiru irteera egingo dituzte: aste bukaerako bi Baqueirara eta aste osokoa Cervinia-Zermattera

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI
Aloña Mendiko eski sailak gertu ditu hurrengo urterako irteerak. Guztira, hiru egingo dituzte (iaz baino bat gutxiago) : bi aste bukaerakoak izango dira –egubakoitzetik domekara arte– eta azkena, astebetekoa.

Horren harira, eski irteerotan parte hartzeko izenematea hilaren 14an zabalduko dute. Eski saileko arduradunak Aloña Mendi tabernan egongo dira astelehenero, 18:30etik 20:30era arte.

**IRTEERA BAT GUTXIAGO**
Eski sailak prestatu duen irteeren egutegiko berrikuntza nagusia irteera bat gutxiago egingo dutela da. Orain arte, urtarrilean bat, otsailean beste bat eta martxoan beste bat egin dituzte, baina datorren urterako martxokoa kendu egin dute. "San Jose eguneko zubia aprobetxatu gura genuen, baina Aste Santutik oso gertu dagoenez...", esan digute.

**ASTE BUKAERAKOAK, BAQUEIRARA**
Aste bukaerako bi irteerak urtarrilaren 29tik 31ra eta otsailaren 26tik 28ra egingo dituzte, Baqueira-Beretera. Autobusak egubakoitz arratsaldean irtengo dira Oñatitik eta domekan itzuliko dira, eskiatu ondoren. Aste bukaerako egonaldia Hipic hotelean egingo dute.

Pazko Asteko irteera –apirilaren 2tik 10era – Cervinia-Zermatt eski estazioetara egingo dute. Bi estazioak erremonte bidez daude lotuta. Guztira, pistetan 400 kilometro dituzte eskiatzeko eta pistatik kanpo, beste 38 kilometro.

**FORFAITAK, MERKEAGO**
Bestalde, eski sailekoek Pirinioetako estazioekin zuten hitzarmena berretsi egin dute. Hala, Aloñarekin edo euren kontura Astunera, Candanchura edo Formigalera eskiatzera doazenek forfaitak merkeago eskuratu ahal dituzte Mendizabal kirol-dendan.

**HIRIGINTZA** > ALDAKETA

# Auzoetako izenen zerrenda berria onartu du Osokoak

## Aldaketa bakarra egin dute: Santxolopetegi aurrerantzean Santxolopeztegi izango da

**M.B.** > OÑATI
Oñatiko auzoen izendegi ofiziala onartu zuten azaroko osoko bilkuran (ikus ondoko taula). Hala, Udalak duen auzoen izenen zerrenda bat dator Euskaltzaindiko Euskal Onosmatika Datutegiak duenarekin.

**ARTXIBOANBEGIRATUA**
Santxolopeztegi izenarekin zuten nahasketaren ondorioz hartu zuten auzoen izenak errepasatzeko erabakia. Udalak duen zerrendan Santxolopetegi izena zuten, eta Euskaltzaindiaren zerrendan Santxolopeztegi. Gauzak argitzeko artxiboetako agirietan begiratu dute, eta garbi ikusi dute Santxolopeztegi izena erabili behar dutela.

Hori horrela, auzoen izendegi berria egin dute. Orain, Euskal Herriko eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialetan argitaratuko dute zerrenda. Ondoren, Errege Dekretu bidez horren berri emango diote Tokiko Erakundeen Erregistroari. Azken horrek emango dio aldaketaren berri Kartografiako Erregistro Zentralari.

### Oñatiko auzoen izenak

- > Arantzazu
- > Araotz
- > Berezao
- > Garagaltza
- > Garibai
- > Goribar
- > Larraña
- > Lezesarri
- > Murgia
- > Olabarrieta
- > Oñati
- > Santxolopeztegi
- > Torreauzo
- > Uribarri
- > Urrexola
- > Zañartu
- > Zubillaga

ITURRIA: OÑATIKO UDALA

### oharrak

DEIALDIA
**> Makalenakoen antzerkirako sarrerak, kultura etxean**
Abenduaren 26an Olaitturri Elkartekoek egingo duten emanaldi bikoitzerako (19:00etan eta 22:30ean) sarrerak kultura etxean har daitezke. Saio bakoitzerako sarrerak kolore ezberdinekoak dira.

DEIALDIA
**> Elikagaien funtzioen gaineko hitzaldi-tailerra ikastolan**
Amaia Diaz de Monasterioguren dietistak gidatuta elikagaien funtzioen gaineko hitzaldi-tailerra egingo dute eguenean, 18:30ean, Txantxiku ikastolan. Hain zuzen ere, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoendako. Era berean, *Handitzen, handitzen* liburuaren aurkezpena egingo du.

DEIALDIA
**> Urteko azken odol-ateratzea egubakoitzean**
Oñatiko Odol Emaileen Elkarteak antolatuta azken ateratzea egingo dute egubakoitzean ikastolako aretoan, 18:00etatik 20:00etara.

ZINEMA
**> Pelikulak zineklubean eta topalekuan**
Zineklub taldekoek *Déjame entrar* pelikula emango dute eguenean, 20:00etan. Tomas Alfredsonek zuzendutako azken pelikulako protagonistak dira Kare Hedebrant, Lina Leandersson eta Per Rajnar.

Bestalde, domekan, *Juno* pelikula eskainiko dute gaztelekuko topalekuan, 17:00etan. Haurdun geratu den 16 urteko Juno Macguff-en istorioa kontatzen du.



Kirol etxea oinarrituko den zimendu lanak egiten Galdiano enpresako langileak. M.A.

**ARETXABALETA** > LANAK

# Kirol etxearen oinarriak ezartzeko haitz onik ezin topatu ibili dira

Lur eskasa dago Markole inguruan eta 20 bat metro arte zulatu behar izan dute haitza topatzeko

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Arazoak sortu dira kirol etxeko lanetan. Hala jakinarazi zuen Inaxio Garro alkateak Goiena Telebistako *Alkateak zuzenean* saioan. Orain dela bi hilabete eta erdi hasi zituzten eraikitze lanok Galdiano enpresako langileek eta zimendatze lanak egiterakoan agertu dira arazoak. Alkateak azaldu zuen inguru horretako lurrak eskasak direla eta kosta egin zaiela zimenduak egiteko haitz ona topatzea. Horretarako 19 edo 20 metro arte zulatu behar izan dute. Kontuak hala, zaildu egingo direla hasieratik kirol etxearen lanak onartu zuen Garrok eta behar bada garestitu ere bai, 12 milioi euroko aurrekontua zehaztuta izan arren. Hala ere, lanen bukaera epea betetzea gurako luke eta 2011ko ekainerako ezin bada zabaldu ere, behintzat irailerako gertu izatea, "ikasturtea hasten denerako".

Kirol etxea egiteko onartutako inbertsioak beste proiektu eta inbertsio batzuk baldintzatuko dituela jakinarazi zuen alkateak, eta guztien artean erabaki beharko dutela zeintzuk egin. Gainera, egoera ekonomikoak eragina izango duela 2010eko aurrekontuan esan zuen eta hainbat arlo eta zerbitzuen kontuak murriztuko dituztela; ez ordea, Gizarte Zerbitzuetako larrialdi egoerekin lotutako partidak, horiek igo egingo dituzte.

**URKULU GARBITU ETA EGOKITZEN**

Urkulu inguruan garatzen dabiltzan planaren berri ere eman zuen. Batetik, sasi-garbitze lan handia egiten dabiltza eta bestetik, Larrinoko bidegurutzetik Aozaratza arteko bidea bukatzen. Hain zuzen, Aozaratzan dauden Iraeban eta Irurikoa baserrietarako proiektuak ez zituen aurreratu gura izan "oraindik ez dagoelako ezer erabakita". Udalarena den Irurikoa baserriari nekazal turismoarekin lotutako erabilera eman gura diote, baina mendi federakuntza Urkulu ingurura joango den ez zuen argitu "beste proiektu batzuk" ere badaudelako.

**ESKORIATZA** > EUSKARA

## Hizkuntza kexak bideratzeko inprimakia atera du Udalak

Udaletxean harrera zerbitzuan eta Udaleko webgunean daude herritarren eskura

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Euskararen Egunaren harira hainbat ekimen izan dira azken egunotan Eskoriatzan; tartean, Udalak hizkuntza kexak bideratzeko inprimakia atera berri du.

Udaletik nabarmendu dute azken urteotan aurrera pausoak eman badituzte ere, euskararen normalizazioan asko dutela egiteke eta horregatik, inprimaki berezia egin duela herritarrek Udalarekiko dituzten hizkuntzari buruzko kexak bidera ditzaten. Horretan intzidentzia mota (kexa, iradokizuna edo eskaera) eta inprimakia aurkeztu behar duenaren datu pertsonalak eskatzen dira.

Gainera, urratutako hizkuntza eskubidearen gaineko informazioa eman behar da inprimakian. Hiru multzotan dago banatuta atal hori: hizkuntza paisaia (kartelak, seinaleak, bandoak edo oharrak, besteak beste), ahozko zerbitzua eta idatzizko zerbitzua.

Esandako inprimakia udaletxeko harrera zerbitzuan edo *www.eskoriatza.net* webgunean eskura daiteke.

**ESKORIATZA** > OLAZAR ERRETIRATUEN ELKARTEA

## Abenduaren 22ko zozketan 81158 zenbakira jokatuko du

Urtero moduan, Santo Tomas txistorra jana egingo dute; abenduaren 18an izango da hori

**M.B.** > ESKORIATZA

Eskoriatzako Olazar erretiratuen elkarteak jakinarazi du abenduaren 22ko zozketan parte hartuko duela. Elkartearen kuota eguneratuta dauden bazkide guztiek 81158 zenbakian euro bat jokatuko dute.

Horrekin batera, Olazarretik azaldu dute botatakoak irtengo balu lortutako diru kopurua elkartearendako izango litzatekeela; eta zenbaki hori saritua izan ezkero, berriz, bazkideen artean proportzionalki banatuko litzatekeela. Kasu horretan, dirua jasotzeko bazkide txartelarekin elkartearen bulegora joan beharko direla gaineratu dute.

**ERRETIRATUEN ETXEAN,**

Abenduaren 22ko zozketaz gain, urtero, abenduan egiten den beste ekimen baten berri eman dute: Santo Tomas txistorra janarena, hain zuzen. Abenduaren 18an, egubakoitza, izango da, 17:30ean, erretiratuen etxean. Gogorarazi du bazkide guztiak gonbidatuta daudela eta opariak egongo direla.

**UMEAK**

## Gasteizko izotz pistara joango dira domekan

Ludotekak datorren asteotarako egitarau zabala gertatu du

**MIRIAN BITERI** >ARETXABALETA

Aretxabaletako ludotekak ekimenez betetako egitaraua gertatu du datozen asteotarako. Aurreko urteotan bezala, Gasteizko izotz pistara irteera egingo dute neska-mutikoek. Domekan, abenduak 13, jarri dute irteera horretarako hitzordua. Aretxabaletako Gazteria saileko Maider Etxanizek gogorarazi du, horren harira, aurretik izena eman beharra dutela umeek ludotekan bertan.

Abenduaren 18an, Gabonei ongi etorria egiteko jaialdia egingo dute, 17:00etatik 20:00etara; eta hilaren 20an, berriz, futbolin txapelketa jokatuko dute. Horren ondotik, merienda ere hartzeko aukera izango dute han.

**BILBOKO PINA**

Abenduaren 21ean, Gabonetan, Barakaldoko BEC-en jartzen duten Pina bisitatuko dute aretxabaletarrek; eta hilaren 27an, Mihiluze txapelketa egiteko asmoa dute.

Hori abenduari dagokionez. Baina, dagoeneko gertu dute urtarrilean gertatu dituzten ekimenak eta Etxanizek horren berri eman dizkigu. Urtarrilaren 10ean, gustuko dituzten kantuak abestu ahal izango dituzte; karaokea egingo dute-eta egun horretan. Urtarrilaren 17an, azkenik, mahai jolas txapelketa jokatuko dute.

Ordua eta tokia azaltzen ez diren ekintzak 17:00etan izango dira ludotekan. Horrekin batera, Etxanizek esan du ekintza horiek 5 eta 12 urte bitarteko neska-mutiko guztiei zuzenduta daudela, ludotekako bazkide izan edo ez.

IRIARTE
Umeen denda
•
Helduen lentzeria
Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA


Gabonetaz hitz egiteaz gain, ludotekako funtzionamenduaz ere jardungo dute. GOIENKARIA

**LEINTZ GATZAGA** > GURASOAK

# Gurelek batzarra du etzi, ludoteka arautzeko

Gabonetako ekimenak ere zehaztuko dituzte bilera horretan, eta seguruenik aurreko urteetako antzeko ekintzak antolatuko dituzte

M.BITERI > LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako Gurel guraso elkarteko batzordekideek batzarra egingo dute etzi, eguaztena, 18:00etan. Elkarteko idazkari Aitziber Gorosabelek azaldu duenez, bi gai nagusi tratatuko dituzte bilkura honetan. Alde batetik, ludotekako funtzionamenduaz jardungo dute.

Gorosabelen esanetan, "orain arte ate irekiak izan ditugu han; baina, ikasturtea aurrera doa eta hori arautu beharra dago. Kultura etxean beste hainbat ekimen daude eta arazo barik denok sar gaitezen ludotekako funtzionamendua arautu beharra dago".

Bestetik, Gabonetan herrian egingo diren ekitaldietaz hitz egingo dute. Gorosabelek aurreratu digu aurtengo egitarauan aldaketa gutxi egingo direla eta urtero moduan, Gabon aurreko zapatuan Gabonetako postala jarriko dutela.

**TXISTORRA JANA UMEENDAKO**

Eguazteneko batzarrean postal horren gaia erabakitzeaz gain, hori jarriko den eguna eta tokia ere zehaztuko dute. Ekimen horren harira, Gureleko idazkariak gogorarazi digu parte hartzen duten umeek txistorra jana izango dutela. Gabon egunean, ostera, kantuan ibiliko dira, urtero lez. Autobusarekin, baserriz baserri joango dira kantuan Gatzagako neska-mutikoak. Batzuk kantuan dabiltzan bitartean, hainbat gatzagarrek bazkaria gertatuko dute elkartean.

Gorosabelek azaldu du aurten ziurrenik ez dela entsegurik izango eta egun horretan abestu behar diren kantuak banatuko dizkietela umeei, gura izan ezkero etxean entseatu dezaten.

Bestalde, Gabonetan ludoteka itxita egongo denez, herrian hainbat ekitaldi antolatzeaz jardungo dute eguaztenean. Proposatuko diren gaien artean, Gasteizko izotz pistara irteera berreskuratzearena dago.

**ANTZUOLA** > AZPIEGITURAK

# Urgentziaz onartu du udalbatzarrak kirolgune estalia egiteko proiektua

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Abenduaren 2ko udalbatzarrean urgentziaz onartu zuten estalitako kirolgunearen egikaritza (exekuzio) proiektua. Udalak uste du horrelako gune baten beharra dagoela, orain estalitako pista bakarra frontoia delako. Zupide inguruan, estalitako pista eta kanpoko pista izango lituzkeen kirolgunea egitea dago aurreikusita, baina horretarako lursailen erosketa eta desjabetzea egin behar da aurrez. Proiektuaren aurrekontua 198.709,56 euro da.

Hortaz, arazoaren konponbidea eskolako patioa estaltzea izanik, kirolguneetan esperientzia teknikoa duen Alvaro Perez de Amezaga arkitektoari eskatu diote proiektua egitea; hura arduratu zen Eztalako zelai berriaz ere.

Proiektuaren arabera, lursaila bost metro eta erdi handituko litzateke eskolako itxitura ondoko berdegunea eta espaloia aprobetxatuz. Hortaz, azalera erabilgarria 1.323,90 metro koadro izango da eta estalkiarena 1.537,68 metro koadro.

**EZAUGARRIAK**

Egiturak hormigoizko eta metalezko arkupea izango du oinarrian eta kolatutako egur laminatua estalkian. Estalkia metalezko zazpi zutabe bikoitzek eta hormigoizko beste zazpik eutsiko dute eta aluminio kapa, isolamendu kapa eta izei tarima izango ditu. Jolastokiaren parametro bertikalak itxita egongo dira pistaren perimetroan kantxaren mailatik hiru metroko altuera libre utziz. Gainera, hormigoizko lau harmaila ipiniko dituzte 185 lagunendako.

**ELGETA** > MERKATARITZA

# Barikuan zabaldu zuen Dayami Barok Erdiko denda

Egunero, zapatu eta domekak, barne, 08:00etan zabalduko du denda, eta Dayana Flores ilobaren laguntza izango du

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Barazkiak, txarkuteria, ogia, izoztutako jakiak, opiltxoak, kontserbak, garbitasunerako produktuak... Askotariko produktuekin zabaldu du negozioa Gudarien bidean Dayami Barok. Egunero zabalduko du denda, asteko egunetan 08:00etatik 13:30era eta arratsaldez 16:30etik 20:00etara. Zapatu eta jai egunetan, berriz, goizeko ordutegian bakarrik.

Kafeak ere ateratzen ditu dendan, eta enkarguz gozoak eta pastelak ere ekarriko ditu. Ez da salmahaiaren atzean bakarrik egongo. Dayana Flores ilobarekin batera artatuko ditu Elgetako bezeroak.


Dayami Baro eta Dayana Flores, zabaldu berri duten Erdiko dendan. L.Z.

**ARAMAIO** > SAN MARTIN ESKOLA

# Euskalkiekin jolasean ibili ziren eguenean gaztetxoak

Euskararen Eguna ospatzeko ekitaldi berezia egin zuten kultura etxean

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Euskalkiak izan dituzte hizpide aurten Aramaioko eskolako umeek Euskararen Egunean. Urtero moduan jaialdia egin zuten kultura etxean. Bisita berezia izan zuten: euskalki ezberdinak hitz egiten dituzten sei lagun, hain justu ere. Lierni Altunak gidatuta mahaingurua egin zuten.

Musikak ere izan zuen tokia jaialdian: *Iturengo arotza*, *Galdurikan nago* edo *Musturrek sartunde* abestiak kantatu zituzten, besteak beste. Ipuin kontalariak ere izan zituzten; baita tailerrak ere.


Mahai-ingurua egin zuten euskalkiak ezagutzeko. NEREA SANCHEZ



**> SASKIBALOIA**
Gaur eta bihar Euskadiko Txapelketako lehiak Eskoriatzan > 23



**> FUTBOLA**
Mondrak 2-4 galdu zuen Mojategin Aurrera liderraren kontra > 24




**> ELKARRIZKETA**
Iker Larrea korrikalariarekin izan gara berbetan > 27

**BERGARA** > PILOTA

# Abenduaren 26an hasiko da elite mailako lau t'erdiko pilota txapelketa

**LEHENENGOA**
Elite mailako lau t'erdiko pilota txapelketa jokatuko da lehenengoz Bergaran

**24 URTEZ GORAKOAK**
Adin hori gainditzen dutenek ere hartuko dute parte abenduan hasiko den txapelketan



Bergara Hiria pilota txapelketa. GOIENKARIA

**MIREN ARREGI** > OÑATI

Abenduaren 26an hasiko da Soraluce Sociedad Cooperativa lau t'erdiko elite mailako pilota txapelketa Bergaran. Abenduaren 26an hasita, martxoaren 23ra arte luzatuko da. Bergaran egingo den lehen lau t'erdiko eliteko pilota txapelketa izango da honako hau.

86 parte-hartzaile ariko dira nor baino nor txapelketan; gehienak Euskal Herrikoak, baina baita Errioxakoak ere. Partiduak Bergarako frontoian jokatuko dira eta sarrera doan izango da. Modu horretan antolatzaileek uste dute asteburuetan zein astean zehar jokatuko diren partiduetan herritarren parte-hartzea ziurtatuko dutela.

Kanporaketa faseko lehen partidua abenduaren 26an jokatuko da. Hortik aurrera, zapaturo, harik eta hamaseirenetara iritsi arte jokatuko dira pilota partiduak Bergarako udal pilotalekuan. Hamaseirenak eta final zortzirenak, berriz, martitzenetan jokatuko dira.

**ELITEKO JOKALARIAK ERE BAI**

Lehen kanporaketa fasean irabazten dutenek final hamaseirenetarako txartela eskuratuko dute. Hor, baina, ez dute lan makala izango, zuzenean hamaseirenetara sartuko diren pilotarien aurka egin beharko dute-eta: horiek dira Gorka, Garralde, Iturriotz, Lemouneau, Armendariz, Jauregi, Ander Muguruza eta Galarraga. Hamaseirenetan irabazle ateratzen direnek zortzirenetara egiteko aukera izango dute, beraz. Hor ere, maila handiko pilota jokalariak izango dituzte aurrez aurre. Zuzenean final zortzirenetara sartuko diren jokalariak dira Mendizabal, Rico, Renobales, Onsalo, Yoldi, Idoate, Larrañaga eta Ollo. Hain zuzen, horiek dira, Bergara Hiria pilota txapelketan txapela eskuratu zuten jokalariak.

**BERGARAKO ORDEZKARITZA**

Ezin ahaztu Bergara pilotari dagokionean egiten ari den lan itzela eta kirolak herrian hartu duen indarra. Denboraldi oparoa izan da aurtengoa, eta hala izango dira datozenak ere, jokalarien mailari eta motibazioari begiratuta behinik behin; harrobia ere ez da makala. Kontuak kontu, Bergaran jokatuko den elite mailako lau t'erdiko pilota txapelketa batek ezinbestean behar ditu bergararrak jokoan. Final hamaseirenetara zuzenean sartuko den Ander Muguruzaz gain, beste zazpi bergararrek hartuko dute parte hilabete honetan bertan hasiko den Soraluce Sociedad Cooperatiba lau t'erdiko eliteko pilota txapelketan: hala nola, Beñat eta Haritz Rezustak, Gorka Irizarrek, Jon Perezek, Ander Larreategik, Eneko Mugurutzak eta Beñat Iñarrak.

**HERRIARI ESKAINTZA**

Bergara Hiria pilota txapelketak izan duen arrakasta eta harrera ona ikusita, pilota sailak pentsatu zuen polita izan zitekeela herrian nagusien lau t'erdiko eliteko pilota txapelketa bat antolatzea. Izan ere, Elgetan urtero egiten da lau t'erdiko txapelketa, baina 24 urtetik gora dutenek ez dute parte hartzeko aukerarik izaten. Bergarakoan, 24 urtetik gorakoek ere izango dute tokia eta hori bakarrik ez, herriari pilotaren gaineko eskaintza egingo diote, bide batez.

**Reyes Azkoitia** > Pilota Txapelketako Antolatzailea

## "Herriari pilota jaialdi on bat eskaintzea da asmoa"

**M.A.** > BERGARA

**Bergarako Pilota saileko entrenatzailea bakarrik ez, esku pilotaren defendatzaile sutsua da Reyes Azkoitia. Harekin jardun dugu eliteko lau t'erdiko pilota txapelketaz.**

**Nolatan Bergaran eta lehenengoz lau t'erdiko pilota txapelketa?**

Pilota saileko presidenteak proposatu zuen ideia eta aurrera atera da. Elgetan jokatzen da lau t'erdiko pilota txapelketa baina 24 urtekoa da parte hartzeko adin muga. 24 urtetik gora dutenei ere parte hartzeko aukera eman nahi izan diegu.

**Bergaran pilotarekiko dagoen zaletasuna kontutan hartuta arrakasta izango duela zalantzarik ez.**

Egia da pilota oso osasun onean dagoela Bergaran; jokalari handiak eta onak ditugu sailean. Bergara Hiria txapelketak herrian izan duen harrera ikusita, ziur lau t'erdikoak ere arrakasta izango duela. Jaialdi on bat egitea da asmoa, pilota bultzatuz herriari eskaintza berezi eta zabal bat egitea.



GOIENKARIA




# Liburua opari.
# Nahi?

ASTELEHENEKO GOIENKARIAren harpidedun bazara,
deitu 943 08 10 50 zenbakira eta
**LORTU LIBURUA DOAN***

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

* Lehenengo hamar deiek bakarrik jasoko dute liburua.

**EUSKADIKO TXAPELKETA** > LEHENENGO JARDUNALDIA

# Gipuzkoak aurrerapauso handia eman du Euskadiko txapelketa irabazteko

Neskek hasieratik hartu zuten aurre markagailuan Bizkaiaren aurka

Mutiletan lehia berdindua izan zen lehenengo zatian; hirugarren laurdenean, Gipuzkoak aurre hartu zuen markagailuan

BIZKAIA
**49-64**
GIPUZKOA

BIZKAIA
**75-91**
GIPUZKOA


Gipuzkoako selekzioa erasoan. A.E.

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ESKORIATZA

Gipuzkoako neskek zein mutilek gazte mailako Euskadiko txapelketa irabazteko aurrerapauso handia eman dute. Atzo Bizkaiaren aurka jokatutako lehenengo jardunaldian, biak ala biak nagusitu ziren.

**NESKETAN, GIPUZKOA HOBETO**

Neskek 10:00etan hasi zuten lehia. Bizkaia eta Gipuzkoak hasi zuten txapelketa, Bizkaiak etxeko talde bezala, eta Gipuzkoak kanpokoa bezala. Aitor Gonzalezek zuzentzen du Gipuzkoako selekzioa. Ondorengoak izan ziren atzoko lehia jokatu zuten neskak: Arregi, Amubieta, Mitxelena, Larrañaga, Toral, Zatarain, Del Valle, Murillo, Del Val, Lertxundi, Segues eta Olazabal.

Hasieratik jarri ziren gipuzkoarrak markagailuan aurretik, eta lehia guztian, alde horri eutsi besterik ez zioten egin. Kristina Krugek zuzentzen duen taldea ahalegindu zen Gipuzkoari aurre egiten, baina ezer gutxi egin ahal izan zuten. Azken emaitza 49-64 izan zen gipuzkoarren alde.

## Gaurko eta biharko lehiak

**7, astelehena**
**10:00** Araba-Bizkaia
Gazte mailako neskak.

**12:00** Araba-Bizkaia
Gazte mailako mutilak.

**8, martitzena**
**10:00** Gipuzkoa-Araba
Gazte mailako neskak.

**12:00** Gipuzkoa-Araba
Gazte mailako mutilak.

**MUTILAK, EROSO**

Mutilek uste baino erosoago irabazi zuten Bizkaiaren aurkako lehia. Lehenengo bi laurdenak oso parekatuak izan ziren: lehenengo laurdena 19-18, eta bigarrena, 23-27. Aldagelatik bueltan, baina, gipuzkoarrak indarberrituta atera ziren eta bost minututan 10 puntuko tartea atera zuten. Hala, hirugarren laurdena 57-69 amaitu zen gipuzkoarren alde. Laugarren laurdena jokatuta, azken emaitza 75-91 izan zen.

**BI DEBAGOIENDAR**

Mutilen gazte mailako Gipuzkoako selekzioan bi debagoiendarrek jokatzen dute: Xabier Igoa aramaioarrak eta Unai Barrena arrasatearrak. Igoak 10 minutu jokatu zituen atzokoan, eta 6 puntu egin zituen. Barrenak, ostera, 11 minutu jokatu zituen eta ez zuen tantorik egin.

Lehenengo aldia da Eskoriatzan gazte mailako Euskadiko txapelketa jokatzen dena. Manolo Muñoz Eskoriatzako presidentea pozik zegoen zale asko joan zelako Intxaurtxuetara partiduak ikustera. Gaur eta bihar jarraituko du txapelketak.

**Unai Barrena eta Xabier Igoa** > Jokalariak

## "Erdi lo atera gara, baina gero, eurak lokartu dira"

**A.E.** > ESKORIATZA

**Arrasateko Ointxe saskibaloi elkartean jokatzen dute Barrenak eta Igoak. Eurendako poz handia izan dela selekzioarekin jokatzea esan digute. Gainera, etxekoen gertutasuna igarri zuten atzokoan Eskoriatzan. Hala, biharko lehia irabazi eta txapelketa eskuratzea dela asmoa esan digute.**

**Nola ikusi duzue taldea?**

Unai Barrena: Hasieran pixka bat motel atera gara, baina hirugarren laurdenean gogor lan egin dugu eta alde hori aprobetxatu dugu partidua irabazteko.

Xabier Igoa: Bai, bost minututan hamar puntuko aldea atera dugu. Lehenengo zatia parekatua izan da, baina hirugarren laurdenean eurak lokartu egin dira.

**Eta nola baloratzen duzue zuek egindako lana?**

U.B.: Agian oso ondo ez, baina behintzat beharra egin dugu eta gustura nago egindakoarekin.

X.I.: Ondo... Beti egin daiteke hobeto baina pozik nago egindakoarekin. Gainera, irabazi egin dugu, eta ahal dugun guztia emanda. Taldea da garrantzitsuena.

**Lehenengo aldia da Gipuzkoako selekzioarekin jokatzen duzuena?**

X.I.: Bai, lehenengo aldia da Gipuzkoako selekzioarekin jokatzen dudana.

U.B.: Nik aurretik jokatu izan dut, kadete mailan.

**Aurreikuspenen arabera, Gipuzkoa eta Bizkaia dira talde indartsuenak. Bizkaiari irabazita, txapela gero eta hurbilago ikusten duzue?**

X.I.: Ez dakigu, hori oraindik ikusteko dago. Ikusiko dugu bihar zela jokatzen duen Arabak, eta gero guk jokatu beharko dugu.

U.B.: Hori teoria da, gero jokatu egin behar da.


A.E.

**Taldekideak ezagutzen zenituzten aurretik, eta entrenatu zarete elkarrekin?**

U.B: Lau astez, aste bukaeratan Donostiara joan gara entrenatzera.

X.I: Gainera, elkarren aurka jokatzen dugunez, ezagunak garela esan daiteke. Baina igartzen da ez garela elkarrekin entrenatzen.

**Aurrera begira, zer asmo duzue?**

U.B.: Gabonetan Arrasaten txapelketa garrantzitsua jokatuko dugu. Oraingoz, hori.

**OHOREZKO ERREGIONALA** > 13. JARDUNALDIA

# Gol olinpiarra eta 'gol fantasmak' zapatuko Mojategiko lehian

Etxeko taldeak Ondarroak baino meritu gehiago egin zituen partidua irabazteko



Etxekoen lehenengo gola; *Keixi*-k kornerretik zuzenean sartu zuen. JOSETXO ARANTZABAL

MONDRA
**2-4**
AURRERA ONDARROA

**Mondra** > Ander Ruiz, Azpeiti, Zabaleta, Mutilba (Laspiur, 65. min.), Mercader, Tena, Pavo (Nuñez, 60. min.), Garai, Murua, Bereziartua eta Lopez (Andres, 80. min.).

**Aurrera Ondarroa** > Gartzia, Ganboa, Graña, Goiri, Akarregi, Akotxa, Duarte, Uribesalgo, Badiola, Aramaio eta Lopez.

**Golak** > **1-0**, 40. min, Bereziartua; **1-1**, 42. min. Badiola; **1-2**, 55. min. Aramaio; **1-3**, 57. min. Lopez; **2-3**, 80. min. Murua; **2-4**, 90. min. Badiola.

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Etxekoak ohi baino atzerago kokatuta irten ziren zapatuan. Arrasatearrek bazekiten Aurrerak atzealdean zuloak uzten dituela; eta, hain zuzen, zulo horiek aprobetxatu gura zituen Azkargortaren taldeak kontraerasoan irten eta gola egiteko. Atzealdean sendo jokatu zuen Mondrak; aurrealdean, ostera, ez ziren eraginkorrak izan.

**GOL OLINPIARRA...**

Lehenengo zatiko gol aukera garbienak etxekoek egin zituzten, Muruaren bitartez. Hala ere, baloia ez zen sareetan sartu 40. minutura arte. *Keixi*-k sartu zuen gola, kornerretik zuzenean: gol olinpiarra, polita. Baina pozak gutxi iraun zuen Mojategin; hurrengo minutuan, *gol fantasma* deiturikoa sartu zuen Aurrerak. Baloiak zutoina jo eta beherakoan marra gainditu zuelakoan ontzat eman zuen gola epaileak. Etxeko jokalariek onartu zuten baloia sareetan sartu zela.

**... ETA GOL FANTASMA**

Aurreraren bigarren gola ere *fantasma* deiturikoa izan zen. Baloiak jokalari baten gorputzean jo zuen; epailearen ustez jokalaria ate barruan zegoen. Etxeko jokalari eta zaleek gogor kritikatu zuten erabakia. Hirugarrena bi minutu geroago sartu zuten buruz ondarrutarrek.

Muruak egin zuen etxekoen bigarren gola, eta hirugarrena egiteko aukera garbia ere izan zuten Aurrerako atezainaren huts baten ondoren. Azkenean baina, Aurrerak sartu zuen gola kontraerasoan. Esan behar da Aurrera liderra eraginkorragoa izan zela zapatuan Mojategin.

**OHOREZKO ERREGIONALA** > 13. JARDUNALDIA

## Bergarak puntu bat baino gehiago merezi izan zuen

Manu Diaz Bergarako entrenatzailea pozik zegoen taldeak egindako lanarekin

HONDARRIBIA
**1-1**
BERGARA

**A.E.** > BERGARA

Puntu bakarra ekarri zuen Bergarak zapatuan Hondarribitik; egin zuten lanarendako "gutxiegi", Diaz entrenatzailearen esanetan.

Bergarak ezin hobeto hasi zuen norgehiagoka Ondartza zelaian. Hala, lehenengo minutuan aurre hartu zuten mahoneroek Imanol Cabanillasek egindako golari esker.

**BIDEGABEKO PENALTIA**

Bergarak lehia kontrolpean zuen, baina epailearen erabaki bidegabe baten ondorioz, hankaz gora jarri zen lehia. 25. minutuan epaileak penaltia adierazi zuen. "Falta area kanpoan izan da, argi eta garbi", adierazi zuen Diazek.

Modu horretan lortu zuen Hondarribiak lehia berdintzea. Handik aurrera, Bergarak gogor lan egin zuen partiduko hiru puntuak lortzeko. Baloiaren jabe izan ziren une oro, eta arrisku aukera onenak ere eurenak izan ziren. Baina baloia ez zen atean sartu eta ondorioz puntu bakarrarekin etorri ziren mahoneroak Hondarribiako lehiatik.

**OHOREZKO ERREGIONALA** > 13. JARDUNALDIA

## Emaitza puztuegia Aloñak egindako lanarendako

Oñatiarrek lehenengo zatian eutsi zuten, baina bigarrenean, ez

PASAIA
**4-0**
ALOÑA MENDI

**A.E.** > BERGARA

Lau gol jaso eta bat ere ez zuen egin Aloñak zapatuan Pasaiaren zelaian. Oñatiarrek egindako lanarendako, emaitza "puztuegia" izan zen; izan ere, Pasaia Aloña baino gehiago izan zen arren, oñatiarrek ez zuten horrelako *jipoirik* merezi izan.

Aloñak azkeneko asteetako talde berarekin jokatu zuen. Sailkapeneko bigarrenaren aurka jokatzen zutela kontuan hartuta, presioa egitera atera ziren, taldeko arduradunen esanetan.

**HASIERA PAREKATUA**

Lehenengo zatia oso parekatua izan zen Don Bosco futbol zelaian. Bi taldeek aukera gutxi izan zituzten aurkariaren atea zulatzeko.

Pasaiaren lehenengo gola korner baten ondoren iritsi zen, 40. minutuan. Bigarren zatian, oñatiarrak Pasaiaren menpe egon ziren; horren ondorioz, 10 minututan hiru gol jaso zituzten eta partidua erabakita geratu zen.

### Futbola

**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA**

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Ondarroako Aurrera** | **33** | 13 |
| 2. **Pasajes** | **31** | 13 |
| 3. **Zarautz** | **25** | 13 |
| 4. **Oiartzun** | **22** | 13 |
| 5. **Berio** | **21** | 13 |
| 6. **Ordizia** | **21** | 13 |
| 7. **Tolosa** | **21** | 13 |
| 8. **Idiazabal** | **19** | 13 |
| 9. **Bergara** | **18** | 13 |
| 10. **Trintxerpe** | **18** | 13 |
| 11. **Hondarribia** | **16** | 13 |
| 12. **Hernani** | **15** | 13 |
| 13. **Aloña Mendi** | **14** | 13 |
| 14. **Euskalduna** | **13** | 13 |
| 15. **Mondra** | **12** | 13 |
| 16. **EHU Vasconia** | **11** | 13 |
| 17. **Real Union** | **9** | 13 |
| 18. **Beti Gazte** | **8** | 13 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Beti Gazte-Tolosa | 1-2 |
| Hondarribia-**Bergara** | 1-1 |
| Pasaia-**Aloña Mendi** | 4-0 |
| Real Union-Berio | 1-3 |
| **Mondra**-Aurrera | 2-4 |
| Oiartzun-Euskalduna | 2-0 |
| Hernani-Trintxerpe | 1-0 |
| Ordizia-E.H.U. Vasconia | 2-2 |
| Zarautz - Idiazabal | 3-1 |

**Hurrengoak**

**Bergara**-Pasaia
**Aloña Mendi**-Real Union
Berio-**Mondra**

**BESTE KATEGORIAK**

**GAZTEEN LIGA NAZIONALA**

| | |
|---|---|
| Aretxabaleta-Santurtzi | 4-1 |

**GAZTEEN EUSKAL LIGA**

| | |
|---|---|
| Bergara-Gernika | 2-4 |

**LEHENENGO ERREGIONALA**

| | |
|---|---|
| UDA Arizmendi-Gazteak | 0-1 |
| Eibartarrak-Mondra | 0-2 |
| Urki-Bergara | 1-6 |

**GAZTEEN OHOREZKO MAILA, KOPA**

| | |
|---|---|
| Aloña Mendi-Beti Gazte | 6-0 |
| Mondra-Billabona | 1-1 |

**GAZTEEN LEHEN MAILA**

| | |
|---|---|
| Bergara-Urki | 2-2 |
| Arizmendi-UDA B Arizmendi | 1-5 |
| Soraluze-Urola | 1-2 |

**OHOREZKO KADETEAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Bergara-Kostkas | 3-2 |
| Aretxabaleta-Real Sociedad | 0-0 |

**OHOREZKO KADETEAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Eibar B-Aloña Mendi | 0-3 |

**KADETEEN LEHENENGO MAILA**

| | |
|---|---|
| Elgoibar-Arizmendi | 3-0 |
| Aloña Mendi-Urki | 2-0 |
| Eibartarrak-Bergara | 4-3 |
| Arrasate-Aretxabaleta B | 2-2 |

**EMAKUMEZKOEN LIGA**

| | |
|---|---|
| Arizmendi | atsedena |
| Eibar B-Aloña Mendi | 5-1 |
| Bergara-Mondra | 1-6 |


TOKIKOM
ZERBAIT BERRIA
PRESTATZEN ARI GARA
TOKIKOM

**ESKUBALOIA** > EUSKAL LIGA

# Hondarribiari irabazita, sailkapeneko goialdean jarraitzen du Ford Mugarrik

Etxekoek hiruzpalau goleko abantailari eutsi zioten ia hasieratik eta lasaitasun osoz jokatu zuten handik aurrera

FORD MUGARRI
**39-30**
HONDARRIBIA



Xabi Altzelai eskumako hegaleko jokalari arrasaterra, Hondarribiko ateizanaren aurrean, egubakoitzean. JOSETXO ARANTZABAL

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Ford Mugarri taldeak sendo jarraitzen du Euskal Ligan; Edu Orgazen taldeak erraz irabazi zion Hondarribiari egubakoitzean Iturripen, 39-30. Partidu hasieratik argi geratu zen bi puntuak etxean geratuko zirela: Aitor Eskibel pibotaren lana erabakigarria izan zen lehen minutuetan, berak egin zituelako etxekoen lehenbiziko hiru golak. Bisitariei dagokienez, nahiko irudi eskasa eman zuten kostaldekoek; talde hobeak izan ditu Hondarribiak aurreko denboralditan. Etxekoak bolada onean direla erakutsi zuten eta oraingoan ere ez zuten hutsik egin. Zaleen aurrean lortzen duten bosgarren garaipena izan zen egubakoitzekoa.

Arrasatearrek hiruzpalau goleko abantailari eutsi zioten ia hasieratik eta lasaitasun osoz jokatu zuten handik aurrera. Bigarren zatiko azken zatian ihes egin zuten etxekoek, eta amaieran bederatzi goleko abantaila adierazten zuen markagailuak.

Etxekoen aldetik Xabi Altzelai izan zen golegile nagusia, zazpi gol lortuta. Aitor Aldanondok eta Iker Zubiaurrek seina gol egin zituzten eta Asier Valle ordezko atezaina izan ezik, jokatu zuten guztiek sartu zuten golen bat. Igor Eraña etxeko atezainak bere atetik jaurtita gol bikaina egin zuen, Hondarribiko atezaina aurreratuta zegoela ikusita.

**LAUGARREN TOKIAN**

Ford Mugarri sailkapeneko laugarren tokian dago, 12 partidutan 18 puntu eskuratuta. Datorren astean Urolari egingo dio bisita eta urteko azken partidua eta bigarren itzuliko lehena Urdulizen aurka izango du, etxean. Teorian behintzat, sailkapenean gora egin ahal izateko moduko partiduak dira biak.


Debagoieneko 2007ko selekzioa, Emakumezko Futbol txapelketan. GOIENKARIA

DATUA

**14**

EMAKUMEZKOEN TALDE

Arizmendi A eta B, Beasain, Urki, Bergara, Aloña Mendi, Mondra, Lazkao, Casco Viejo, Eibar, Reala, Lagunak eta Debagoieneko selekzioa dira parte-hartzaileak.

ESANAK

**"Helburuak betikoa izaten jarraitzen du; nesken kirola eta nesken futbola bultzatzea, merezi dute-eta"**

**Urtzi Amiano** > Antolatzailea

**FUTBOLA** > TXAPELKETA

# Real eta Lagunak taldeak faboritoak

Abenduaren 26an eta 27an jokatuko da, Arizmendi Ikastolak antolatuta, Gabonetako Emakumezkoen IV. Futbol txapelketa

**MIREN ARREGI** > ARETXABALETA

Dagoeneko laugarren edizioa du Arizmendi Ikastolak antolatzen duen gabonetako Emakumezkoen Futbol txapelketak. Abenduaren 26an eta 27an jokatuko dira aurten partiduak, Almen Ikastolako futbol zelaian, eta Aretxabaletako Ibarran.

Hilaren 26an infantil eta kadete mailako nesken txanda izango da. Goizeko bederatzietan hasita honako taldeek jokatuko dituzte infantil mailako norgehiagokak: Arizmendi A eta B taldeek, Beasainek, Urkik, Bergarak, Aloña Mendik eta Lazkaok. Kadete mailan, berriz, Arizmendi A eta B, Beasain, Eibar, Bergara, Aloña Mendi, Casco Viejo eta Lazkaoko taldeak arituko dira.

**LAU TALDEREN ARTEKOA INDARTSU**

Horiek abenduaren 26ari dagozkionak. Hilaren 27an, berriz, lau talderen arteko txapelketa jokatuko da: kuadrangularra, alegia. Lehia horretan izango dira txapelketako talde indartsuenak: hala nola, Reala, Eibar, Lagunak eta, nola ez, Debagoieneko selekzioa. 09:30etik 14:00ra bitartean jokatuko da txapelketa, Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian. Antolatzaileen esanetan Real eta Lagunak taldeak dira aurtengo gabonetako txapelketako talde faboritoak.

**KIROLA SUSTATUZ**

2006an antolatu zuen lehenengoz Arizmendik emakumezkoen futbol txapelketa eta aurten, esan bezala, laugarrena du edizioak. Emakumezkoen artean kirola sustatzea eta bereziki futbola sustatzea zen hasierako asmoa, eta horrek jarraitzen du izaten, gaur egun ere, antolatzaileen helburu nagusia.

Futbolariek eta ikusleek giro ederraz gozatu dezaten eta egun horietan gurean egingo duen hotzari aurre egiteko, hilaren 26an Almeneko futbol zelaian gaztainak erreko dituzte, bertan bilduko diren guztiek jan ditzaten.

Iker Larrea > Korrikalaria

# "Estadiora semearekin sartu gura nuen, baina epaileek debekatu egin zidaten"

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

**Bakarrik 32 urte ditu, eta dagoeneko 21 maratoi egin ditu. Iker Larrea da, antzuolarra. Donostiako maratoiaz gain, Sevillan, Madrilen eta Valentzian ere izan da. Gainera, egin dituen maratoi guztiak hiru ordutik behera amaitzea lortu ditu**

**Nola ikusi zenuen zure burua Donostiako maratoian?**

Ondo, gustura ibili nintzen. Aurtengoa Donostiako 11. maratoia izan da. Egia da oso gutxi entrenatu naizela aurten; hala ere, Behobia egin ostean nire burua ondo ikusi nuen eta maratoira aurkeztea erabaki nuen.

Maratoia ondo hasi nuen, baina 25. kilometro inguruan gaizki ikusi nuen nire burua eta atzean geratu nintzen.

**25. kilometroan zure burua gaizki ikusi eta aurretik beste 17 kilometro geratzen direla jakinda, zer pentsatzen da?**

Kontua da konturatu nintzela erritmo horretan ezin nuela jarraitu, eta erritmoa jaistea erabaki nuen.

Azkeneko zazpi kilometroetan erlojuari begira joan nintzen eta azkenean lortu nuen hiru ordutik behera jaistea.

Gainera, eguraldia lagun izan nuen. Hasieran haizea egin zuen, baina gero geratu egin zen eta ez nuen arazorik izan.

**Estadiora semearekin sartzea gura izan zenuen, baina epaileek ez zizuten utzi. Zer gertatu zen?**

Andreari esan nion itxura onean etorriz gero, umearekin sartuko nintzela estadioan. Jende askok egiten du hori. Hala, estadioaren sarreran zeuden nire zain. Umea hartu nuen eta nire asmoa helmugara oinez joatea zen, baina pistan zegoen epaileak ez zidan utzi. Hortaz, buelta eman nuen umea andreari uzteko. Aurten, itxura, epaileak zorrotzagoak izan dira, baina, egia esan, niri normala iruditzen zait ez uztea umearekin sartzea.




Iker Larrea, ASTELEHENEKO GOIENKARIA eskuan duela. A.E.

**Donostiakoa 21. maratoia izan da zuretako, guztiak hiru ordutik behera gainera. Ez da marka makala!**

Bai, hala da. Gainera, marka txarrena aurtengo Donostiakoa izan da –2.57:44–.

**Atzera begira jarrita nola ikusten dituzu 21 maratoi horiek?**

Lehenengoa 21 urterekin egin nuen. Urte bete lehenago anaiak eskatu zidan laguntzeko bizikletarekin; eta, hala, gustua hartu nuen eta hurrengo urtean nik ere egitea pentsatu nuen.

Lehenengoa ondo egin nuenez aurrera jarraitzea erabaki nuen. Gainera, Bergaran dago talde handi bat elkarrekin entrenatzen garena eta horrela samurragoa da entrenatzea.

**Eta, nolako bilakaera izan duzu urte hauetan?**

Orain aldapa behera noala esan daiteke! Lehenengo urteak onak izan ziren, eta marka onena orain dela zortzi urte inguru egin nuen, duatloietan ibiltzen nintzen garaian. Egia esan, orduan asko entrenatzen genuen. Lanera joan eta entrenatu, besterik ez genuen egiten.

**Zein da zure marka onena?**

24 urterekin egin nuen marka onena, 2 ordu eta 35 minutu. Denbora horren inguruan ibili naiz maratoi askotan: 2:37, 2:38, 2: 26, 2:42...

**"Behin anaiak eskatu zidan bizikletan laguntzeko eta horrela hasi nintzen"**

**"Orain dela zortzi urte, 24 urterekin egin nuen marka onena: 2 ordu eta 35 minutu"**

**Otsailean Sevillan jokatutako proban marka ona egin zenuen. Ez da hala?**

Bai, 2:38ko denbora egin nuen; hortaz, otsailetik hona 20 minutu igo dut denbora. Baina, hilabete hauetan gorabehera asko izan ditut; Sevillara asko entrenatuta joan nintzen, orain, ostera, ez dut askorik egiten.

**Zenbat maratoi egiten dituzu urtean?**

Aspaldiko urteetan pare bat maratoi egiten ditut urteko. Aurten, adibidez, Sevillakoa eta Donostiakoa egin ditut.

Gorputzak ondo eusten duen erritmo hori? Niri, maratoia bera ez zait pentsatzen gogorra denik. Nik uste dut duatloietan ibiltzen ginen garaia... hura bai zela gogorra!

**Eta, entrenatzeko zela moldatzen zara?**

Esan bezala, aurten gutxi ibili naiz. Egunean ordu bete hartzea izaten da egokiena. Lehen horrela egiten nuen, baina orain nahiko lanpetuta nabil eta ez naiz gura beste entrenatu.

Normalean nire kabuz egiten ditut entrenamenduak. Astean sei egunetan irten gura izaten dut, baina egunen baten kale egitea normala izaten da. Lanean errelebotan ibiliz gero, samurragoa da denbora ateratzea normal ibilita baino.

**"Orain arte egin ditudan maratoietatik gehien Sevillakoa gustatu zaidala esango nuke"**

**"Anaiekin bizikletan egingo dudan Paris-Roubaix daukat buruan orain"**

**Orain arte egin dituzun maratoi guztietatik zein da gehien gustatu zaizuna?**

Sevillakoa esango nuke. Donostiakoa ere ondo dago, baina agian politagoa da kanpotik datorren batentzat. Sevillakoak giro polita dauka; helmuga hiritik kanpora dagoen arren, maratoiak Sevilla erdiko kaleak zeharkatzen ditu. Gainera, laulaua da.

**Gustatuko litzaizuke New Yorkeko maratoia edo horrelako besteren bat egitea?**

Bai, gustatu bai, baina New Yorkera joatea dirua da. Orain buruan daukadana datorren urtean anaiekin bizikletan egingo dudan Paris-Roubaix da. 250 kilometro inguruko lasterketa da eta polita izango da.

**Jürgen Wolff** > Hizlaria

# "Umeei berba egiteko edozein hizkuntzak balio du, edozeinek"

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

**Umeei euskaraz berba egiteko beldurra edo lotsa nola ken daitekeen azalduko du Jürgen Wolff hizlariak eguaztenean Arrasateko Kulturaten, 18:30ean. AEDko Zaharberri ekimenak antolatu du hitzaldia.**

**Nola transmititu umeei euskara erabiltzeko arrazoiak?**

Argudioen bitartez. Esaterako, interesgarria izan daiteke sukalde hitzaren atzean *su* eta *alde*, baserria, daudela azaltzea. Beste argudio bat adibideak dira. Esaterako, gurasoetako bat erdalduna bada, baina umeak ikusten badu biak euskaraz ari direla, umeak ere hizkuntza biak erabiliko ditu.

**Ikusten eta entzuten dutena ikasten dute umeek.**

Bai, eta euskarari buruzko hitzaldiak egin beharrean, hobe da euskararen gaineko jakin-mina sortzea.

**Garrantzitsua da umeei euskaraz hitz egitea?**

Bai eta ez. Umearendako edozein hizkuntzak balio du. Ama edo aita erdalduna bada, komeni da hainbat momentutan, ipuin bat kontatzerakoan, adibidez, erdaraz hitz egitea umeari. Aldiz, badaude beste hainbat gauza euskaraz egin ditzaketenak; adibidez, kantatu edo telebista ikusi. Erdaldun batek ezi du egun osoan euskaraz hitz egin, euskara hori faltsua bada.

**Horrenbestez, nork bere ama hizkuntzan hitz egin behar du momentuak horrela eskatzen badu?**

Nork bere hizkuntza propioa zaindu behar du, eta euskaraz hitz egin daitekeen momentuetan euskaraz hitz egin. Esaterako, senide guztiak batera baldin badaude, komeni da euskaraz hitz egitea, erdaldunak ulertu bakarrik egiten badu ere.

**Batzuetan gertatzen da gurasoek gazteleraz hitz egiten dutela elkarren artean eta euskaraz hitz eginarazten diotela seme edo alabari.**

Eginaraztea ez da ona, horrek beldurra sor dezake-eta. Hizkuntza bat zabaltzeko modu onena jakin-mina sortzea da, ez hitz egitea derrigortzea.

**Eta nola galdu lotsa edo beldurra euskaraz hitz egiteko?**

Inori ez zaio gustatzen barregarri gelditzea eta denok dugu lotsa apur bat. Lotsa hori gainditzeko badaude trikimailu batzuk; adibidez, eskuetan zerbait izatea.

Guraso batzuek pentsatzen dute umeak ikusten badu euren euskara kaskarra dela, autoritatea galdu egingo dutela. Baina ume horrek ingeles eta matematikan egingo ditu akatsak, ikasten ari delako, eta euskara ikasten ari denek ere akatsak egitea normala da.

**Publikoan barregarri gelditzeari izaten zaio beldurra?**

Ikasi behar dugu akatsak eginez ikasten dugula, ez isilik egonda. Hobe da bi hitz euskaraz egitea, beldurragatik ezer ez esatea baino.



Jürgen Wolff, Arrasateko Kulturaten. O.E.

**"Erdaldun batek ezin du egun osoan euskaraz hitz egin, euskara hori faltsua bada"**

**"Ikasi behar dugu akatsak eginez ikasten dugula, ez isilik egonda"**

**EUSKARA**

## Kalean euskarazko produktuen katalogoa

Zortzi atal ditu eta sail batzuk adinaren arabera daude banatuta

**O.E.** > ARRASATE

Euskarazko produktuen 2009ko katalogoak euskaraz argitaratzen diren produktuak eta haien inguruko informazioa (argitaletxea, prezioa...) jaso ditu. Etxeko haur eta gaztetxoek euskaraz jolasteko, ikasteko, irakurtzeko edo gozatzeko dauden produktuen aukera jasotzen du.

Katalogoa zortzi ataletan dago banatuta: musika, filmak, aldizkariak, komikiak, liburuak, gurasoendako materiala, informatika eta jostailu eta jokoak. Zenbait ataletan, gainera, adinaren araberako banaketa ere agertzen da. Aurtengo edizioaren 240.000 ale inguru banatuko dituzte Euskal Herri osoan. Sarean ere ikus daiteke liburuxka, helbide honetan: *www.katalogoa.org*.



Katalogoaren azala. GOIENKARIA


Ume bat bularra hartzen. GOIENKARIA

**HIESA** > GIB-A DUTEN EMAKUMEAK

## Tratamendua GIBdun amendako

GIBa duten emakumeen artean birusaren kontrako botikak banatzeko eskatu du OMEk

**O.E.** > BERGARA

Haur txikiei titia ematen ari zaizkien GIBdun emakumeen artean birusaren kontrako botikak banatzeko proposamena egin du OMEk, Osasunerako Mundu Erakundeak. Aspaldiko kezka du OMEk birusarekin kutsatutako emakumeekin hartu beharreko neurriak. 2006an, esaterako, haurdunen artean botikak ematearen garrantziaz ohartarazi zuten. Orduan, tratamendua haurdunaldiko 28. astean hasteko proposatu zuen, eta orain, botikekin 14. astean hasi eta bularra eman bitartean etenik gabe botikak hartzearen garrantziaz ohartarazi du. Nazioarteko beste hainbat erakundek ere hitz egin dute Hiesaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira. NBEko idazkari nagusi Ban Ki-Moonek izurria kontrolatzeko ahaleginak fruitua ematen ari direla esan du, baina giza eskubideetan oinarritzea ezinbestekoa dela gogoratu du.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> AZOKA**
Krisia igarri den arren, jendez gainezka egon da Durangoko azoka > **30-31**



**> LIBURUA**
Jokin Zaitegi bekarekin egindako 'Basamortua' itzulpena salgai da > **32**



**> SARIAK**
Mikel Calvok irabazi du Bergarako film laburren lehiaketa > **32**

# Marka guztiak gaindituko ditu aurten ere Akordeoi lehiaketak

**JAIALDIA**
200 parte-hartzaile baino gehiago Gipuzkoako Jaialdian

**SARIAK**
Nazioarteko eta Gipuzkoako lehiaketen emaitzak, bihar



Gipuzkoako Lehiaketako Junior mailako lehiakide bat atzo, Amaia Antzokian. JOSETXO ARANTZABAL

**MIREN ARREGI** > ARRASATE
Urtero moduan, Arrasate akordeoiaren hiriburu bilakatu da oraingoan ere. Egubakoitzean hasi eta bihar arte, Gipuzkoako, Euskal Herriko eta nazioarteko akordeoi-jotzaile onenek hartu dituzte eta hartuko dituzte Amaia Antzokia, Kulturate, Arkupe eta Arizmendi Ikastola, besteak beste.

**ARRASATE HIRIA, NAZIOARTEKOA**
Nazioarteko akordeoi-jotzaileak batzen dituen lehiaketa da Arrasate Hiria deiturikoa. Aurtengoan, XVII. edizioa du; 22 akordeoi-jotzailek dihardute posturik onena nork eskuratuko lehian. Hala nola, Txinatik, Errusiatik, Alemaniatik, Finlandiatik edo Esloveniatik etorritako akordeoi-jotzaileak entzuteko aukera egongo da. Egubakoitzean jokatu zen Arrasate Hiria lehiaketaren kanporaketa fasea eta gaur, astelehena, jokatuko da azken fasea, egubakoitzean hurrengo faserako txartela eskuratu zutenen artean.

**GIPUZKOAN ERE MAILA ALTUA**
Zapatuan izan zen Gipuzkoako 22. Jaialdia, lehiarik gabekoa eta hezitzailea izan gura duena. Aurten, 200 parte-hartzaile inguru ari-tu dira. Atzo, domeka, jokatu zen Gipuzkoako 30. Akordeoi Lehiaketa, izaera lehiakorra duena eta Euskal Herriko zein Espainiako akordeoi-jotzaileak biltzen dituena. Infantil, Junior eta Senior mailatan banatuta, egun guztian zehar izan ziren akordeoi emanaldiak Amaia Antzokian. Maila ederra erakutsi zuten batzuek.

NIKOLA TANASKOVICEN KONTZERTUA

## Lanik konplexuenak ere bikain defendatu zuen Nikola Tanaskovic Serbiako gazteak

Iaz jokatu zen XVII. Arrasate Hiria Nazioarteko Akordeoi Lehiaketako irabazle Nikola Tanaskovicen kontzertua ikusi eta entzuteko ohorea izan zen zapatuan Aretxabaletako Arkupe Kultur Etxean. Jende gehiegirik ez, baina bertaratu zirenetako asko eta asko akordeoi-jotzaileak edo akordeoia ondo ezagutzen dutenak. Hori nabari egiten zen aretoan sartzeaz bat. Batzuk irrikatan akordeoi-jotzaile bikain baten kontzertuaren zain, beste batzuk urduri, minutu gutxi barru taula gainera igoko zen hura ezagutu eta sinadura bat eskatu gura ziotelako. Halakorik ez zen egon baina, azkenean. Lotsa kontuak.

Hori ikuslegoari dagokiona. Eskenatokian, berriz, aulki huts bat, norbait bertan eseri zedin oihuka zirudiena. Azkenean irten zen; 19 urteko gazte serbiarrak profesionalik handienaren gisan egin zuen agerpena: serio, kontzentratuta eta akordeoia eta musika klasikoa biziki sentitzen duenak, dituzten ezaugarri guztiekin. Nabaria zen gustuko zuela bere jarduera.

**MUSIKA KLASIKOA ABAGUNE**
Kontu handiz akordeoia altzoan eta beso artean zuela jo zituen kontzertuko lehen notak. Mugimendua, leuna eta gozoa; ez, ordea, soinua. Poul Rovsing Olsen XX. mendeko konposatzailearen *Without a title* lanarekin hasi zen kontzertua. Musika frantsesaren kutsua nabaria, eta doinu erasotzaile eta indartsuak nagusi. Orduan ohartu ginen zein gisako profesionalaren aurrean geunden; erregistroen aldaketa etengabekoa eta leuna, hauspoaren erabilera bikaina, atzamarren mugimendu ezin hobea eta musika klasikoa biziki maite duen baten tankera osoa. Johann Sebastian Bach konposatzaile eta organo-jotzaile barrokoaren *Preludio y fuga en Sol# menor* izan zen bigarren eskaini zuen lana. Hau ere indartsu, organoaren erregistroa nagusi eta musika barrokoaren ezaugarri nabarmenekin: baxu kontinuoa eta armonia tonala nagusi ziren partituran. Ganzerren *Silhouetten* lanarekin jarraitu zuen eta ondoren etorri ziren Domenico Scarlattiren bi *Sonata;* horiek ere musika barrokoaren ezaugarriekin eta, orain artekoak bezala, indartsu eta kasu batzuetan ikuslegoari beldurrezko film bat bizitzen ari ginen sentsazioa emanez. Nordheimen *Flashing* lanak argia ikusarazi zion ikusleari; doinu alaiagoak, ulerterrazagoak eta entzuteko errazagoak horiek. Bukatzeko, XX. mendeko akordeoi konposatzaile handienaren lan bat aukeratu zuen: Anatoli Kusyakov Errusiako konposatzailearen *Autumnal Sceneries* lanaren interpretazioak bukaera bikaina eman zion emanaldiari.



Nikola Tanaskovic. JOSETXO ARANTZABAL

**DURANGO** > 44. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

# Krisiari aurre eginez, literatura eta musika zaleak batu ditu Durangok berriro ere

Eguenetik domekara azokak emandakoarekin orokorrean pozik ziren saltzaileak

Debagoienak ordezkaritza zabala izan du martitzenean amaituko den Durangoko azokan

**EDU MENDIBIL** > DURANGO

Asteburu luzean Durangoko euskal liburu eta disko azokak emandakoarekin, orokorrean, pozik ziren saltzaileak, nahiz eta aspalditik han eta hemen entzuten dugun krisi hitza ere entzun izan den. Balorazio zehatzagoak laster egingo dituzte antolatzaileek eta argitaletxetako ordezkariek. Edozein modutan, bestetan baino jende gutxiago ibili dela ematen du eta, Jon Irazabal Gerediaga elkarteko presidentearen arabera, beharbada dagokion neurrira etorrita dago horrela azoka, hainbat ediziotan izandako ia-ia neurriz kanpoko bisitari kopuruaren ostean.

Etxekoen ikuspuntuaz gain, interesgarria izaten da kanpoko ahotsak entzutea. Aurten katalanez egindako kultura izan da gonbidatu nagusia eta Ramon Llull institutuko zuzendari Josep Bargallok zera azpimarratzen zuen domekan, *Egunkaria*-ren aldeko elkarretaratzean parte hartu eta gero: "Azoka honen herri izaera nabarmenduko nuke. Gainera, beste azoka batzuetan, Frankfurtekoan-eta, egile eskubideak izaten dira *negozioaren* muina eta hemen, aldiz, ikusten da jendeak liburuak eta diskoak erosten dituela. Badauka gure Sant Jordi festarekin nolabaiteko parekotasuna... baina diferentzia nabarmen batekin: han katalanez eta gaztelaniaz idatzitako liburuak erosten ditu jendeak". Aurretik, *Egunkaria*-ren pankartaren atzean adierazpen askatasunaren aldeko aldarria egin zuen Bargallok. Harekin batera, kultur arloko aurpegi ezagun ugarik egin zuten bat auzipetuekin.

**DEBAGOIENEKO AURPEGI ASKO**

Debagoienak ordezkaritza zabala izan du Durangoko azokan: Gosekoak egunero izan dira Landakon, beraiek ekoiztutako *Gorria* diskoa saltzen, eta domeka eguerdian emanaldia egin zuten Ahotsenea gunean; Baga-Biga diskoetxeko Ritxi Aizpuru itxaropentsu zegoen Des-kontrolen azken diskoarekin eta badirudi salmenta onak izan dituztela (zapatuan kontzertu arrakastatsua eskaini zuten arrasatearrek Durangon); Oñatiko Malenkonia taldekoek ere diskoak sinatu zituzten zapatuan; eta Juan Martin Elexpuru Iruña-Veleiako grafitoen egiazkotasuna defenditzeko idatzi duen liburua saltzen zebilen azokaren sarreraren ondoan; Karmele Igartuak Edorta Jimenezekin solasaldia izan zuen Ahotsenean, aretxabaletarraren *Denbora enaren hegaletan* poesia liburuaren harira; eta ikusi ez bagenituen ere, pentsa daiteke Ruper Ordorika eta Fermin Etxegoien oñatiarrek ez zutela hutsik egingo Durangoko hitzorduarekin; haien herrikide Juan Carlos Irizarrek 28. diskoa eraman du, *The Beatles eta ni*, Liverpooleko laukoteari egindako omenaldi moduko bat; Pello Zabala, Patxi Uribarren eta Miguel Angel Elkoroberezibar ere ikusi genituen domekan eta Amaia Diaz de Monasterioguren arratsaldean joatekoa zen, *Handitzen, handitzen* "defendatzera"...

Durangon gertatutakoa gertutik jarraitu dute Azoka Telebistan jardun duten Goienako lankideek. ETB3 eta Hamaika Telebistakoekin izan dira elkarlanean. Durangon grabatu dituzten klip guztiak eguenean ikus ahal izango dituzue GOITBn, *Gipuzkoa Kultura* saioan.



Domeka eguerdian jende ugari hurbildu zen Landakoko Kristalezko Kutxara. Aurten ere euskal



Bergarako Elkar dendako Josune, Landakon Elkarrek jarritako postuetako baten lanean. Adin




*Egunkaria*-ren aldeko elkarretaratzea egin zuten domeka eguerdian. J.A.



**Itxaro Artola eta Nerea Mendizabal**
AEDko eta Jarduneko ordezkariak

Domeka goizean Topagunearen postuan egotea egokitu zitzaien Itxaro Artola arrasatearrari eta Nerea Mendizabal bergarararri. Azokan lan egiteko txandak egin zituzten euskara elkarteetako ordezkariek. Ohikoa denez, euskara elkarteek kaleratutako hainbat produktu eraman zituzten Durangora. Aurten presentzia berezia eman diete hedabideei. Postuaren zati bat Tokikom, tokiko aldizkarien marka bateratuari eskainitakoa zen eta, beraz, GOIENKARIA eta ASTELEHENEKO GOIENKARIA ere izan dira Durangon. Lanean hasi berriak ziren Nerea eta Itxaro haiekin berba egin genuenean: "Momentuz nahiko lasai gabiltza, baina hasi da jendea produktuak erosten eta kontsultak egiten. Jende dezente dabil eta ziurrenik arratsaldean etorriko da jende gehien. Bai, aprobetxatuko dugu bueltatxo bat eman eta erosketa batzuk egiteko. Gauza ederra da horrenbeste euskarazko produktu eskura izatea".



**Josep Bargallo**
Ramon Llull institutuko zuzendaria

"Ohore handia da guretako aurten Katalunia izatea gonbidatua. Beste literaturekin gertatzen den moduan, gureak ere erakusleihoak behar ditu eta Durangok aukera paregabea eskaintzen digu bi kulturen artean zubi lana egiteko, eta hain dinamikoak diren bi kulturei bidea egiteko. Munduko 160 unibertsitaterekin harremana daukagu eta gure zereginetako bat hauxe da: atzerrian gure kultura ezagutaraztea".



**Ubane Uzin**
Gaztelupeko Hotsak

Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak hainbat nobedade eraman ditu Durangora: Esne Zopak, Esne Beltza taldearen inguruan sortutako egitasmo berria CD eta DVD euskarrietan; edo Kemen Lertxundiren *Begi berriak atzo gaueko irudientzat.* Ubane Uzin beteranoa da dagoeneko Durangon; "Nahiko ondo doaz salmentak, ezin gara kexatu". Diskoen ondoan, bitxikeri bat: Gaztelupeko Hotsak markako ardo beltza.



**Jerardo Elortza**
Idazle oñatiarra

Jerardo Elortza oñatiarrak ezin Durangoko hitzorduarekin hutsik egin. Domeka eguerdian egin genuen topo harekin. Orduko bazeukan poltsa liburuz beteta; "Beti gustatzen zait postuak arakatzea, gauza zaharren eta kuriosoen bila gehienbat, baina denetik erosten dut. Gainera, aspaldiko lagunak agurtzeko aukera eskaintzen du azokak eta giro polita egoten da. Aspalditik daukat etortzeko ohitura".



kulturaren topaleku izan da Durangoko azoka. JOSETXO ARANTZABAL



Gosek emanaldia egin zuen domeka eguerdian Ahotsenea gunean. J.A.



Maider Arregi (GOITB) JuanArrizabalagarekin. J.A.



uztietako jendea batu da Durangon asteburuan. J.A.



OMalenkoniakoak zapatuan izan ziren azokan. I.B.



Azoka Telebistan jardundako Goienako taldea. J.A.



**KRONIKA** > LIBURU AURKEZPENA

# "Oso nobela irakurgarri eta atsegina da"

**NON:** Arrasaten, Kulturaten.
**NOIZ:** Abenduaren 3an, eguena.
**ZER:** *Basamortua*-ren aurkezpena.
**ANTOLATZAILEAK:** AED eta Elkar.



Xabier Mendiguren (Elkar argitaletxea), Luis Berrizbeitia (itzultzailea) eta Nekane San Miguel (AED elkartea). ARRITXU BARRUSO

**ARRITXU BARRUSO-LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Luis Berrizbeitiari (Abadiño, 1963) "era guztietako sentipenak biziarazi" dizkio *Basamortua* lana egiteak (Jean Marie Gustave Le Clezioren *Desert* nobelaren itzulpena): "ilusioa, nekea, hastioa, berriz ere ilusioa, zalantza, eta azkenean, bukatu ondoren, lasaitasuna". Liburu hori AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak Kutxaren laguntzarekin antolatzen duten Jokin Zaitegi Literatura Nobel Sariak euskaratzeko bekaren bidez egin du Berrizbeitiak, eta eguenean, Euskararen Egunean, aurkeztu zuten Arrasaten. Durangoko Azokan ere egon da liburua, eta itzultzaileak hauxe diosku horren inguruan: "Argitaratu den puntutik liburu hori ez da gehiago nire ardura, bere bidea ebaki beharko du bere kabuz eta bere merituz. Azokan nolako harrera izan duen jakiteko modurik ez daukat, eta kezkarik ere ez. Nik etorkizun oparoa opa diot, eta egin dadila beti irakurlearen borondatea".

**ERREALISMOA ETA POESIA**

Berrizbeitiak berak azaldutako moduan zibilizazioen arteko gerra du oinarri Le Clezioren liburuak: XX. mende hasierako saharar eskualdeko biztanleak eta kolonizatzaile frantsesak. Aurkezpenean, itzultzaileak ondo saldu zuen liburua: nobela "borobila" dela esan zuen, "gozamen estetiko handia" dakarrena: "Nire ustez, oso nobela irakurgarri eta atsegina da. Gertakari historiko batean oinarritzen da baina kontakizun historikotik haratago doazen istorio eta gogoetak ere baliatzen ditu, errealitatea eta fikzioa maisuki konbinatuz". Liburuak bi hari ditu: bata oso zuzena eta narratiboa, eta bestea, "elementu mitiko-magikoak" txertatzen dituena. Azken hori itzultzeak zailtasun handiagoa eman ziola onartu zuen itzultzaile abadiñarrak, eta "itzultzailearen dilema" aipatu zuen. Hauxe dio Berrizbeitiak: "Leialtasuna eta ulergarritasuna dira itzultzaile batek belarrian xuxurlaka etengabe aditzen dituen ahots biak. Batak eskatuko dio ez dezala traditu jatorrizko testua. Aldiz, besteak eskatuko dio saia dadila irakurleari gauzak errazten. Gehienetan, ordea, itzultzaileak badaki biei egin behar zaiela jaramon".

Kulturatera hurbildutakoak liburua irakurtzeko gogoarekin utzi zituen Berrizbeitiak; horixe esan zioten itzultzaileari.

**Luis Berrizbeitia** > Itzultzailea

## "Liburua argitara ematen denean bukatzen da kezkabidea"

**L.K.** > ARRASATE

**Luis Berrizbeitia Abadiñoko Udaleko itzultzailea da, baina literatura ere itzuli izan du.**

**Pozik zaude *Basamortua*-rekin?**

Testua berriz errebisatzeko aukera izango banu, seguru nago gauza asko aldatuko nizkiokeela. Zorionez, liburua argitara ematen denean bukatzen da kezkabide hori.

**Le Clezio ezagutzen zenuen?**

Ez, baina banekien oso sona handiko gizona zela. Horregatik ausartu nintzen haren liburu bat itzultzeko lehiaketara aurkeztera, aukera ona izan zitekeelakoan ahots eta sentsibilitate interesgarri bat sakonkiago ezagutzeko.

***Traduktore, traidore* dio esamoldeak. Bat zatoz?**

Irakurleari axola zaiona da bere hizkuntzan testu horrekin gozatu ahal izatea, eta horretarako batzuetan behar dira lizentzia batzuk hartu, irakurleari bidea errazteko asmoz. Traizioaren bekatua, egon, badago, baina bekatu txikia da, fede onez eta ondo beharrez egiten delako.



Ezkerretik eskumara, Lexeia Larrañaga eta Alexander Gutierrez, Agurne Barruso alkatea eta Mikel Calvo. JOSETXO ARANTZABAL

**KRONIKA** > BERGARAKO FILM LABURREN SARI BANAKETA

# Hirugarren aldiz, Mikel Calvok irabazi du

**NON:** Bergarako Zabalotegi aretoan.
**EGUNA:** Egubakoitza, abenduak 4.
**PUBLIKOA:** Polito bete zen aretoa.
**IRAUPENA:** Hiru ordu laurden inguru.

**L.K.** > BERGARA

Mikel Calvo Abarzuza bergarar gazteak, *Hitzak* izeneko lanarekin, irabazi du Bergarako Udalak deitutako film laburren lehiaketa. Sari banaketa ekitaldia egubakoitz ilunkaran izan zen, Zabalotegi aretoan. Bigarren sariduna Lexeia Larrañagak eta Alexander Gutierrezek osatutako bikotea izan zen, *Hurbil egonik ere, urrun* izeneko lanarekin. Lehenengo saridunak 400 euro jaso zituen, eta bigarrenek, 300 euroko saria.

Horiez gain, beste lau film labur aurkeztu dira aurtengo lehiaketara: *Apaiz magikoa* (Andoni Moñux), *Arrotzak* (Irene Ortiz eta Miren Zarautz), *Sabina* (Otavio Sendoya) eta *Marinel itsua eta itsasneskak* (Josu Arteaga). Film guztiak ikusi zituzten lehenengo, eta sariak banatu zituzten segidan.

**USTEKABEA**

Mikel Calvok lehiaketa hori irabazten duen hirugarren urtea da; orain hiru urte eta orain bi irabazitakoa da. Hala ere, edo horrexegatik, ustekabean hartu du saria: "Beste batzuetan irabazi izanda, aurten ez nuen espero", esan du. Animaziozko filma da *Hitzak*, eta gaia, "oro har", askatasuna da. Mikel Calvok esan digunez, "beste inongo lehiaketara bidaltzea" ez dauka oraingoz buruan. Beste film labur lehiaketa batzuetan ere arrakasta izan du; adibidez, Bilboko Nontzefilm sariketan, lehenengo bederatzi onenen artean aukeratu zuten.

Arte Ederrak ikasten dihardu bergarar gazte horrek. Filmez gain, arte grafikoetan ere jaioa da, eta sariak irabazitakoa ere bai; besteak beste, iazko Mendekosteetako kartel lehiaketa.

GURE TALDEAK...

## Last Rebels

# "Gure zuzenekoak laburrak dira, gustura daudenak itzuliko dira"

Last Rebels arrasatearrek 'Amaiera gabeko bideak' izeneko diskoa kaleratu dute eta salgai dago Arrasateko hainbat tabernatan

Aretxabaletako Danatek estudioan grabatu dute diskoa eta Euskal Herri osoan zabaltzeko asmoa dute, entzuleek euren lana ezagut dezaten



Ezkerretik eskuinera, Julen, Jurgi eta Ibai, makurtuta; eta Letona eta Jon, zutik. LAST REBELS

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

**Ibaik, Julenek, Jonek, Jurgik eta Letonak osatzen dute Last Rebels taldea. 2004. urtean sortu zuten eta lehenengo lana kaleratu dute orain. Eurekin egin dugu berba diskoaren eta egiten dituzten zuzenekoen gainean.**

***Amaiera gabeko bideak* izeneko diskoa grabatu duzue. Zergatik izenburu horrekin?**

Uste dugulako hasten diren bide guztiek amaierarik ez dutela, eta horregatik aukeratu dugu, disko hau gure bidearen hasiera besterik ez delako. Bertan, punk-rock eta streetpunk doinuak daude, gehienbat. Era berean, azkarra eta melodikoa dela esango genuke. Abesti zaharrak eta berriak entzun daitezke.

**Gustura zaudete emaitzarekin?**

Oso gustura geratu gara egindako lanarekin. Gorabehera batzuk izan ditugu, baina estudioan ondo moldatu gara, eta lan hori diskoan islatuta geratu dela uste dugu. Era berean, garbi ikus daiteke esperientzia txikia dugula estudioko lanetan.

**Non grabatu duzue diskoa? Nolako esperientzia izan da?**

Diskoa Danatek estudioetan grabatu dugu, Aretxabaletan. Estudio berria da, eta han egin duten lehen lanetako bat da. Asierrekin egin dugu lan, laguna eta konfiantzazko pertsona delako. Haren laguntzarekin esperientzia eramangarriagoa izan da.

**Bederatzi kantu eta RIP taldearen kantu baten bertsioa grabatu duzue. Zergatik *Escoria* kantua?**

Bi arrazoirengatik: batetik, gogorra eta zuzena delako; eta bestetik, kantu hori jotzerakoan sentitzen dugunagatik.

**Zeintzuk dira zuen talde erreferenteak?**

The Clash, Oxymoron, The Bouncing Souls, Rancid eta RIP. Egun Arrasaten dauden taldeek ere eragina dute gure musikan.




### Etxean egindakoa ondo eginda

Arrasateko punk eta Oi! harrobiak ez dauka agortuko den inolako itxurarik; kontrakoa baizik.

Last Rebels boskotea da horren adibide. 77ko Ingalaterrako punka maite dutela agerian dago, eta baita Zakarrak taldearen Oi! doinuak ere, besteak beste. Hala, zortzi abesti propio eta RIPen *Escoria* hilezkorra batu dituzte estraineko lan honetan.

Kantuek punk-oi! musikaren ukitu kutsakorra daukate, lagun artean abestea eskatzen dutenak; baina ez hori bakarrik: melodiek pisu handia daukate eta tarteka punk-rockaren pareko gitarra biziak daude, baita erritmo gogorragoak ere.

Bestalde, hitzak atzera begiratzekoak, baina eraikitzaileak dira.

**Iker Barandiaran.**

**Beste talde batzuetako partaide izanik, nola konpontzen zarete entseguak egiteko?**

Egia esan, gure entseguak oso bereziak dira, ahal dugunean elkartzen gara-eta. Baina polikipoliki, eta esfortzu txiki bat eginez, aurrera goaz. Egia esan, ganorabako samarrak gara.

**Ze lortu gura duzue disko berriarekin?**

500 kopia egin ditugu, eta, gehienbat, Euskal Herrian zabaldu, etxeko jendeak ezagut dezan. Letrak euskaraz egin ditugu, gehienbat, baina Euskal Herritik kanpo ere ezagutzera eman nahiko genuke gure lana.

**Disko berriarekin kontzertu gehiago emango dituzue?**

Oraingoz, kontzertuak lotzen gabiltza. Gure asmo nagusia urtarriletik aurrera Euskal Herriko bazterrak nahasten hastea da.

**Nolakoak dira egiten dituzuen zuzenekoak?**

Indartsuak eta laburrak. Ez dugu luze joten, 45 minuturekin nahikoa dela uste dugu; eta gustatzen zaienak hurrengo batean beste emanaldi bat ikustera joan daitezela!

**Noiz sortu zenuten taldea, eta zergatik?**

2004an sortu genuen taldea. Lagun talde bat elkartu eta musika egiten hasi ginen. Ongi egiten genuela konturatu ginen, eta aurrera jarraitzea erabaki genuen. *Amaiera gabeko bideak* da taldearen lehen emaitza. Gustuko dugu musika egitea, eta horrek ematen digu aurrera egiteko indarra.

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aizarnazabal.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai Aizarnazabalen. Prezio oso interesgarria (180.000 euro). Behe solairua izan arren, argitsua da. 2 logela ditu, komuna, sukalde amerikanoa eta egongela-jangela. Komuna izan ezik, beste guztia kanpora begira. Altzari eta guzti dago salgai. Ingurune lasaian dago. 637 51 33 04 edo *rzarate@ehuntzen.net*

**Aramaio.** Herri erdi-erdian 91 metro koadroko etxebizitza. 32 metro koadroko ganbararekin. Bizi izateko moduan dago, baina berritu beharra dauka. Aukera ona. Premiazkoa da. 110.000 euro. 615 73 85 77

**Arrasate.** Erguin kalean etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, komuna eta sukaldea. 606 86 71 97

**Azpeitia.** Salbe auzunean, aukerako pisua 42,9 milioi pezetan. Berogailua gas bitartez. 3 logela bikoitz (bere armarioekin), sukaldea (guztiz osatua), sala eta komuna. 94,30 m2. Gela guztiek kanpoaldera ematen dute. Igogailua ipini berria. Pixu eguzkitsua, bidegorri aldera bixtak. PVCko leihoak, arotz lanak haritzean (zorua, ateak, armarioak) 656 31 60 31

**Bergara.** Etxebizitza salgai Bolun. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi komun, trastelekua eta garajea. Aukera ona. 688 67 10 31

**Eibar.** Eibar erdialdean, txokoa berriztua, sukaldeeta bainuarekin, saltzen edo alokatzen da. 90 metro koadro. Egoera ezin hobea. 669 29 34 27 (Sandra).

**Marieta (Araba).** Etxe bakarra saltzen da. 200 metro koadro eta nahikoa berria: 7 urte. 5 logela, 3 komun, 2 autorentzako garajea eta 40 metro koadroko egongela, beheko suarekin. 900 metro koadroko lorategia, eginda. 628 45 09 62

**Oñati.** Bidebarrieta auzoan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, bi bainugela, sukaldea eta ganbara. Garajea aukeran. Deitu 620 02 51 95 zenbakira.

### 102. EROSI

**Ataun.** Baserri bila gabiltza Goierri inguruan. Zurea saltzekotan bazara deitu 635 20 21 46 telefonora.

**Iruñea.** Nafarroako herri txiki batean etxea erosiko genuke. Iruñetik Iparraldera. Deitu 695 13 83 10 telefonora.

**Oñati.** Lau logelako etxebizitza erosiko nuke. 677 42 52 05

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Erdialdean guztiz berritutako 60 metro koadroko etxebizitza. Bi logela. 635 71 79 57

**Arrasate.** 40 metroko apartamentu kapritxosoa ematen da errentan herri erdialdean. Aproposa pertsona bakarrarentzat edo bikotearentzat. 600 euro hilean. 943 85 06 23

**Barañain.** Barañainen pisua alokatzen dut. Guztiz jantzia, bizitzera sartzeko prest. Deitu 647 50 35 69 telefono zenbakira arratsaldeko 15:30etik aurrera.

**Elgeta.** Etxebizitza ematen da errentan Salbador kalean. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. 650 23 10 19.

**Uharte-Arakil.** 165 m2ko adosatua alokatzen da Uharte Arakilen. 3 logela, 2 komun, sukaldea, tximinia duen egongela eta 50 metro koadroko garajea. 550 euro. Deitu 615 74 34 90 telefonora.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aramaio.** Bikote langile eta arduratsuak pisua edo etxea alokatuko luke Ibarra edo Aramaion. Deitu 699 40 73 35 edo 669 15 36 58 telefono zenbakietara

**Aretxabaleta.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Deitu 679 09 33 34 zenbakira

INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 m². Berritua.
- Aranerreka 85 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Alkabieta 88 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- San Antonio, 46 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m². Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, 196.200€.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**
**www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU/ALOKATU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 23 € (BEZ BARNE).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 31 € (BEZ BARNE).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Arrasate.** Arrasateko hiru gazte langilek etxebizitza errentan hartuko lukete. 665 75 40 36.

**Arrasate.** Bikotea urtarrilaren 1etik aurrera bi gela edo gehiagoko etxebizitza alokatzeko prest. Deitu 665 72 79 38 edo 635 70 96 43 zenbakietara

**Bergara.** Errentan hartzeko etxebizitza bila nabil. Deitu 697 88 35 62 telefonora.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke, bi edo hiru logelarekin. 636 80 87 68.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 600 25 98 54 edo 687 61 63 00.

**Bergara.** Bergarako neska batek etxebizitza hartuko luke errentan, merke.649 40 72 49

**Lekeitio.** Lekeition urte osorako errentan hartzeko pisu txiki baten bila nabil, 1 edo 2 logela. Telefonoa: 658 70 19 53

### 105. ETXEAK OSATU

**Antzuola.** Sagasti auzoan pertsona bat behar da etxea osatzeko. Beheko solairua da eta terraza dauka. 618 12 08 01

**Arrasate.** Gelak errentan Makatzenan, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Telebista, DVDa, kafe-makina... erosotasun guztiekin. Bista polit eta giro ezin hobea. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta Alexandragatik galdetu. 690 61 08 26

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. 270 euro. Deitu 618 00 08 28 telefonora.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. Deitu 670 59 73 62 telefono zenbakira.

**Bergara.** Gela ematen da errentan Irizar pasealekuan. Bikote batentzat edo pertsona bakarrarentzat. Deitu 943 03 62 00 edo 696 03 80 07 telefono zenbakietara.

**Donostia.** Gela errentan Donostian. Oso ondo kokatutako etxebizitza batean. Etxean pertsona bakarra bizi da. Ohe bikoitza, ikasteko mahaia eta armairua. Ekainera arte, besterik ez. Deitu 20:30etik aurrera 669 96 23 55 zenbakira.

**Donostia.** Gela alokagai emakume batentzat. Donostian, topo eta autobus geltokitik erdibidean, gela bat alokatzen da pisu konpartitu batean, emakume batentzat. Berdin ikasle edo langile. 943 65 16 92. Hartu ezean mezua utzi.

**Donostia.** Antiguan, hondartzatik gertu, gela bat dut libre pisua konpartitzeko. Telefonoa: 627 45 99 01

**Iruñea.** Etxeak hiru logela ditu baina bi lagunendako da. Berogailua,igogailua eta internet dago. Lekua oso lasaia da. Mutil langilea eta jatorra naiz. Berdin zait neska ala mutila bazara,beraz anima zaitez! Pedro. 647 88 60 24

**Iruñea.** Gela alokatzen da Iruñean. Deitu 658 80 34 07 telefono zenbakira.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m², oso ondo.
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

**DEBA**
- Txalet bateko etxebizitza, hondartzako lehenengo ilaran

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia salgai Santakurtz 25-27an. Prezio negoziagarria. Deitu 630 46 36 71 telefono zenbakira.

### 202. EROSI

**Bergara.** Garaje itxia erosi nahi dut erdialdean. Deitu 635 20 81 22 telefono zenbakira.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Garaje bat hartuko nuke errentan San Lorentzon. 665 73 51 59

## 3/ LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Lokal txikia, etxabea (baxua) edo garajea hartuko nuke errentan San Lorentzon. 665 73 51 59

**Taberna Debagoienean.** Taberna hartuko nuke errentan. 638 10 29 63

**Taberna Debagoienean.** Taberna hartuko nuke errentan.677 05 39 06

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Beasain.** Emakume euskalduna behar da, etxeko lanatarako, goizez,Beasainen. Telefonoa: 678 49 23 46

**Tolosa.** Arratsaldez ordu batzuetan ume bat zaintzeko pertsona eperientziaduna behar det tolosaldean. 692 05 58 60

**ARRASATE**
**Esperientziadun ile -apaintzailea behar da.**
**Deitu 20:00etatik aurrera.**
**699 96 45 41**

### 402. ESKAERAK

**Altsasu.** Asteburutan tabernetan edo jatetxeetan lan egiteko prest. 676 22 20 52.

**Altsasu.** Adin ertaineko emakume altsasuarra naiz eta haurrak edo adinduak zaindu edo etxeko lanak eginen nituzke. Deitu 654 23 08 66 telefonora.

**Aretxabaleta.** Alfonbra eta moketak garbitzen ditut,lehorrean, etxez etxe. Deitu 659 62 02 49 telefonora

**Aretxabaleta.** Emakume arduratsua gertu adinekoak zaindu, etxeko garbitasun lanak egin edo umeak zaintzeko. Esperientzia adinekoekin. Mari. 943 53 33 92

**Arrasate.** Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Mutila gertu edozein garbiketa egiteko: atariak, bulegoak... 650 14 69 10

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. 636 25 56 68 edo 943 25 02 94

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. 619 78 63 41

**Arrasate.** Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Neska gertu garbiketa lanetarako (10 euro orduko) edo nagusi zein umeak zaintzeko (9 euro orduko). 618 00 08 28 edo 943 79 82 43

**Arrasate.** Arrasateko neska gazte euskalduna arratsaldez lan egiteko gertu, umeak zaintzen edo etxeak garbitzen. Esperientzia handikoa. 618 41 24 79 edo 943 08 14 25

**Arrasate.** Etxeak garbitu edo umeak zainduko nituzke. Mari. 649 30 13 60

**Arrasate.** Neska euskalduna eguerdietan etxe zein atariak garbitzeko prest. 663 04 53 99

**Arrasate.** Bergara eta Arrasate. Emakumea garbitasun lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Eguneko edozein ordutan egin dezake lan. 650 62 12 94

**Arrasate.** Hemengo neska prest edozein lanerako, orduka ere bai. 659 55 27 16

**Arrasate.** Umeak zaindu edo garbiketak egingo nituzke. 649 30 13 60

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest.606 42 64 14

**Bergara.** Emakume gaztea gertu garbiketa lanak egiteko. Orduka lan egingo nuke. Telefonoa: 671 33 75 54

**Bergara.** Esperientziadun emakumea gertu orduka etxeko lanak egiteko. 622 60 84 68

**Bergara.** Esperientziadun mutila etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. 650 17 74 87

**Bergara.** Neska euskaldun arduratsua orduka etxeko garbiketak egiteko gertu. Telefonoa: 680 99 68 94

**Bergara.** Urte askoko esperientzia duen neska gertu sukalde laguntzaile lan egin edota etxez etxe nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 637 18 07 23

**Bergara.** Etxeko lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Esperientziadun mutila etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Telefonoa: 650 17 74 87

**Bergara.** Neska bergararra gertu etxeak garbitu, nagusiak zaindu edo bestelako lanetarako. Telefonoa: 943 53 29 18

**Bergara.** Garbiketarako lanak egin eta pertsona edadetuak zainduko nituzke. 649 83 08 82 edo 943 76 44 27

**Bergara.** Esperientziadun neska nagusiak zaintzeko prest. Astebukaeretan, jaiegunetan eta gauetan lan egingo nuke. 630 88 54 46

**Bergara.** Emakumea gertu edozein lan egiteko. Pertsona nagusiak gustura zainduko nituzke. Ordutegia: 09:00etatik 14:00etara. Telefonoa: 669 98 46 47

**Bergara.** Esperientziadun neska nagusiak zaintzeko prest. Aste bukaeretan, jai egunetan eta gauetan lan egingo nuke. 630 88 54 46

**Bilbo.** Sukaldaritzako ikaslea, janari manipulatzaile karnetarekin, prest nago sukalde laguntzaile, pintxoak egiteko, zerbitzari edota tabernari lanak egiteko. Asteburuetan libre nago.625 11 20 71

**Deba.** Emakume euskalduna ospitalean jendea orduka zaintzeko prest. 665 74 18 66. Marian.

**Debagoiena.** Bergara Arrasate. Emakumea gertu edozein lan egiteko, 09:00etatik 14:00etara. Pertsona nagusiak gustura zainduko nituzke. 669 98 46 47

**Debagoiena.** Antzeko lanetan esperientzia duen emakumezko batek lan egingo luke helduak zein umeak zaintzen. Ordutegi malgua eta lanerako prestutasuna. Deitu 669 02 91 30 telefonora.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, egunez zein etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak dauzkat. Ana. Telefonoa: 648 60 27 87

**Debagoiena.** Emakume gaztea gertu nagusi zein umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko: etxeak, atariak, tabernak edo bestelakoak. Sukaldean ere ariko nintzateke. Telefonoa: 676 28 87 84

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona edadetuen zein haurren zainketa lanak egiteko. Etxean bizi izateko prest. Telefonoa: 663 65 78 43

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, edota garbiketa lanak egiteko. Orduka edo gauez. Telefonoa: 678 23 54 93

**Debagoiena.** Esperientziadun neskaeuskalduna gertu nagusi zein umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Baita zerbitzari jarduteko ere. Informeak ditut.671 35 22 60

**Debagoiena.** Garbiketa lanak edo nagusiak zaintzeko gertu. Eli Cerezo. Telefonoa: 630 20 12 03

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu sukalde laguntzaile edo zerbitzari lanetarako. 610 82 02 17

**Debagoiena.** Gazte arrasatearra muntatzaile edo zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna. Deitu 605 76 05 59 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Gertu nago tabernari edo zerbitzari jarduteko, garbiketa lanak egiteko eta pertsona edadetuak zaintzeko. Telefonoa: 671 71 90 03

**Debagoiena.** Mutil gaztea gertu zerbitzari edo garbiketa lanak egiteko. Deitu 610 95 79 79 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile edo furgoneta gidari lanetarako. Legezko paperak dauzkat. Telefonoa: 628 48 05 41

**Debagoiena.** Gertu nago pertsona edadetuen zein haurren zainketa lanak egiteko. Garbiketa lanak ere egingo nituzke, egunez zein gauez, eta orduka. Telefonoa: 638 54 75 93

**Debagoiena.** Lau urteko esperientziadun neska nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bizi izaten ere bai. Telefonoa: 626 78 22 95

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko, etxean bertan bizi izaten. Telefonoa: 650 70 98 76

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke, orduka edo etxean bertan bizi izaten. 680 30 24 64

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gauez ere bai. Baserrietara joateko arazo barik. Deitu 660 37 20 47 telefono zenbakira

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta etxeak garbituko nituzke. Deitu 669 98 46 47 telefonora.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaindu edo garbitasun lanak egingo nituzke. Deitu 943 75 22 30 edo 636 17 27 65 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Arratsaldez eta baita aste bukaeretan ere. 697 93 73 32

**Debagoiena.** 27 urtekomutila gertu arotz edo soldatzaile lanetarako. Baita publizitatea banatzeko ere. Autoa daukat. Deitu 691 79 53 34 telefonora.

**Debagoiena.** Edozein lan egiteko gertu mutil gaztea. Manuel. 943 75 22 30 edo 636 17 27 65

**Debagoiena.** Emakumea edozein lanetarako gertu. Socorro Mora Soria. Deitu 627 14 63 79 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea edozein lan egiteko prest. Ana Luisa de los Santos. Telefonoa: 671 27 78 36

**Debagoiena.** Emakumea gertu edozein tokitan lan egiteko, baita baserriko lanak egiteko ere. Telefonoa: 639 88 64 13

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak zaindu edo supermerkatuetan lan egiteko gertu. Paperak ditu. 636 01 91 12

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egin edota pertsona edadetuak zainduko nituzke, egun osoz. 697 88 35 62

**Debagoiena.** Gazte arrasatearra edozein lan egiteko prest. Esperientziaduna zerbitzari lanetan eta makina muntaketa lanetan. 605 76 05 59

**Debagoiena.** Gizonezkoa lanerako gertu. Harremanetarako telefono zenbakia: 645 72 92 87

**Debagoiena.** Elektrikaria naiz, teknikari komertziala. Javi. 669 49 83 24 edo 680 30 30 52

**Debagoiena.** Iturgin laguntzaile lanak egingo nituzke. Magno Alberto. 600 76 43 14

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Gidabaimena daukat. Jhony. Telefonoa: 943 75 22 30 edo 636 17 27 65

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Deitu 638-10 29 63 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu: tabernan, garbiketak lanetan, baserriko lanetan... 671 45 96 26

**Debagoiena.** Neska arduratsu esperientziaduna gertu garbiketa, dendari, azafata edo bestelako lanetarako. Telefonoa: 639 86 96 76

**Debagoiena.** Neska boliviarra gertu edozein motatako lanetarako. Egunez zein gauez. Esperientziaduna. Legezko paperak dauzkat. Deitu 618 14 71 34 telefonora.

**Debagoiena.** Neska gaztea zerbitzari lanak egiteko, garbiketa lanak orokorrean egiteko edota pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Telefonoa: 671 71 90 03

**Debagoiena.** Neska gertu edozein lanetarako. Deitu 679 17 11 35 zenbakria

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketan, ume edo nagusiak zaintzen zein zerbitzari lanetan aritzeko. Deitu 660 56 65 58 telefonora.

**Debagoiena.** Neska gertu zerbitzari, garbiketa edo ume zein nagusiak zaintzen lan egiteko. Legezko paperak dauzkat. Deitu 628 48 05 41 edo 943 71 21 15 telefonora.

**Debagoiena.** Paperak eguneratuta dauzkan mutil gaztea gertu zerbitzari, lorezain edo garbiketa lanak egiteko gertu. Deitu 647 19 36 95 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona edadetuen eta umeen zaintza lanak egiteko gertu nago. Esperientziaduna naiz gaian eta baita oso arduratsua ere. Etxean zein kanpoan egingo nuke lan. Luis Marina. 606 85 67 08

**Debagoiena.** Neska langile eta esperientziduna garbiketak egiteko prest, orduka. Deitu 669 20 57 98 edo 665 70 00 63 telefono zebakietara.

**Debagoiena.** Denborarik ez badaukazu posta, banketxe eta abarretara joateko, nik egingo dut zugatik. Errekaduak ere bai. Deitu 605 74 52 19 telefono zenbakira.

**Donostia.** Nikaraguako mutil bat nahiz eta Donostian bizi naiz, bertan edo inguruko herrietan lanen bat egiteko prest nago, 3. adineko pertsonak zaintzen edota beste edozertan. Deitu 943 65 40 57 telefonora.

**Donostia.** Neska euskalduna, haur hezitzailea, haurrak zaintzeko prest. Donostia eta inguruko herrietan, edozein ordutegitan. Edozein gauzatarako deitu inongo konpromisorik gabe. Deitu 616 38 31 64 telefonora.

**Donostia.** Haurrak zaindu edo klase partikularrak emango nituzke Donostian bertan edo inguruan. Umeekin esperientzia dut begirale bezela baita partikularrak ematen ere. Biologian lizentziatua eta EGA titulua duen neska bat naiz. Deitu 679 28 08 28 telefonora.

**Gernika-Lumo.** Neska euskalduna umeak zaintzeko prest. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik 680 53 84 42 telefonora.

**Gernika Lumo.** Erizain laguntzailea geriatrian lan bila dabil Gernika Lumo aldean. Eskarmentu handia zaintze lanetan. Orduka zein egun osorako. Telefonoa: 645 70 40 20 (Marisa)

**Ordizia.** Garbiketa edo plantxa lanak eginez gustura ariko nintzateke orduka, Ordizian, inguruko herriren batean edota Donostian. Iragarkiak interesik pizten badizu, bidali mezu bat posta elektronikora edo eta dei egizu honako telefono zenbakira: 660 02 85 52 Posta-e: *fvpodpej@ehu.es*

**Tolosa.** Neska senegaldarra, adinekoak zaintzen lan egingo nuke, eragozpenik ez interna sartzeko. Haurrak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko ere prest nago.Interesatuak deitu 943 65 40 57.

**Tolosa.** 49 urteko autonomoa naiz. Nik lokala jartzen dut eta zuk ideiak edo lana baduzu harremanetan jarri mesedez. 943 11 73 43

**Zarautz.** Gizon euskalduna gertu lanerako, asteburuetan ere lan egiteko prest edozein lan: jardinero, mahastietan eta abar. 658 73 08 08

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Mutiko bati 6. mailako eskola partikularrak emango dizkion neska behar dugu. Eskola laguntza, etxeko lanak egin eta abar. Kristina. 617 36 67 96

**Batxilergoko** gaztelera eta literaturako eskolak jasoko nituzke Oñatin. 688 63 82 28.

**Bergara.** Batxilergoko bigarren mailako eskolak jasoko nituzke. 686 51 07 86

**Debagoiena.** EHUko Psikopedagogia ikaslea naiz eta Ikerketa Diseinua ikasgairako eskola partikularrak jaso gura nituzke. Telefonoa: 686 20 31 35

### 502. EMAN

**Arrasate.** Ingeniariindustriala naiz. LH, DBH edo batxilergoko eskola partikularrak emango nituzke: matematika, marrazketa teknikoa, fisika, ingelesa eta abar. Deitu 667 32 35 00 telefonora.

**Arrasate.** Ingeniaritza ikasi duen gazte batek DBH eta batxilergoko eskolak emango lituzke. Mikel. Telefonoa: 634 84 41 96

**Arrasate.** Neska euskalduna Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak emateko prest. Eguerdietan deitu. 663 04 53 99

**Arrasate.** Diseinu Industrialeko ikaslea naiz eta DBHko ikasle bati eskola partikularrak emateko prest nago. Arrasaten bizi naiz eta berdin zait nire etxera etortzea edo ni ikaslearen etxera joatea. 645 73 53 95

**Beasain.** Irakasle diplomatua, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako ikasleei edozein ikasgairi buruzko klase partikularrak emateko prest. Deitu 615 00 20 44 telefonora

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak. Maila guztiak. Elkarrizketa lantzeko ere bai. Telefonoa: 637 52 89 83

**Bergara.** Lehen Hezkuntza, DBH, batxilergo eta ingeleseko eskolak emango nituzke. Harremanetarako telefonoa: 675 00 59 48

**Bergara.** Neska euskalduna Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak emateko prest. Eguerdietan deitu. Telefonoa: 663 04 53 99

**Bergara.** Umeendako ingeles eskolak. Aitor. 671 76 22 28 edo 943 76 01 99

**Bergara.** Mintza praktika. Ingeleseko elkarrizketa saioak eskaintzen ditut Bergaran. Telefonoa: 654 94 87 26

**Debagoiena.** Neska euskalduna LHko nahiz DBHko eskola partikularrak emateko gertu. Natur Zientzien batxilergoa eta EGA tituluak ditut eta Erizaintzako ikasketak egiten ari naiz. Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Bergara nahiz Oñatira joateko arazorik ez. Telefonoa: 690 66 19 80 edo 943 03 78 31

**Debagoiena.** Musika eskolak. Gitarra elektriko zein akustiko eta harmonia eskolak ematen ditut. Maila eta estilo guztiak. Jon. Telefonoa: 679 22 86 07

**Eibar.** LH, DBH eta Batxillergoko partikularrak emateko mutila prest.Telefonoa: 630 81 77 87

**Gasteiz.** Biologian lizentziatuak batxillergo arteko natur zientzia eta euskarazko eskolak ematen ditu Gasteizen eta inguruetan. 945 56 43 83

**Gernika-Lumo.** Klase partilularrak emango nituzte Gernika zein inguruko herrietan, oro har, Busturialdean. Edozein gauzarako deitu inolako konpromiso barik zenbaki honetara: 680 53 84 82

**Gernika-Lumo.** Esperientziadun irakasleak talde txikitako klase partikularrak eskaintzen ditu Gernikan lehen hezkuntza eta DBHko ikasleentzako. Kontaktua: 656 77 20 12 (Nahia)

**Oñati.** Ingeniaritzako ikasketak ditut eta Lehen Hezkuntzako, DBHko eta batxilergoko eskola partikularrak emateko prest nago (matematika, marrazketa, fisika...). Telefonoa: 678 27 27 57

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Honda Varadero** XL 1000v motorra salgai. 2006koa. Egoera oso onean. 23.000 km. Estra askorekin: hiru maleta, eskuberogailua eta Givi defentsak. Beti garajean. Deitu 605 71 24 73 telefono zenbakira.

**Yamaha FZ6 Facer S** motorra salgai. 600 cc. 98 ZP. 2007koa. 32.000 km. Givi maleta ekipo osoa. Estrak. 4.500 euro. Deitu 679 81 87 87 telefonora.

**Kawasaki Z750 salgai .** Kawasaki Z750 Salgai 2007koa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000 km, azterketa denak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro.Harremanetan jartzeko deitu 660 33 77 16.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Ardiak salgai.** Ardiak salgai. Hamar, hogei... kopuru desberdinak aukeran. 620 13 83 86

**Kanarioak salgai.** Anilladunak. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta galdetu Mikelengatik. 635 75 54 53

**Pit Bulla.** American pit bull terrier txakurkumeak salgai. ADBA pedigriarekin oso prezio onean, 400 euro. Aita AEBetatik ekarria. Chinaman/Eli. 628 84 00 22

**Sabueso txakurrak.** Sabueso edo untxari txakurrak salgai. 100 euro. Deitu 615 74 34 90 telefonora.

**Untxi nanoak salgai.** Gabonetarako opari aproposa, eskaiozu Olentzerori! 676 90 05 47. ,

### 703. EMAN

**Katakumea opari.** Katakume eme bat ematen da opari. 685 79 07 61

### 704. BESTELAKOAK

**Katu ilegorria galdu da Bergaran.** Urriaren 10ean katu ilegorria galdu genuen Bergarako Labegaraietan, Santa Katalina auzoan. Aiki izena du. 943 76 33 78

Setter gordon zuri-beltza galdu zen asteartean, azaroaren 17an, Makatzenan. Galdu zenean katea zeraman arrastaka. Mesedez, deitu zenbaki honetara: 699 18 13 34.

Txakur txiki bat aurkitu da Lizarragan. Txuria da eta 3 hilabete ingurukoa. Lepoko polit bat dauka. Galdu duenak deitu dezala 686 92 51 95 telefonora.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Baserritar arropa.** 6-8 urteko mutikoarendako alkandora, 6 eurotan; eta gomazko abarka beltzak, 10 eurotan. Artilezko galtzerdiak opari. 656 78 64 64.

**Tronpeta.** Tronpeta salgai Bergaran. 638 89 78 76.

**Bikiendako** EasyWalker markako karroa salgai. 943 03 66 80.

**Eskiatzeko materiala.** Buzoa, 10 neurrikoa, 15 eurotan; botak, 6-7 urteko umeentzat, 20 eurotan; 1,40 neurriko eskiak, 15 eurotan; eta metro bateko bastoiak, 6 eurotan. Gore-Tex eskularruak opari. 656 78 64 64.

**Liburuak salgai.** Liburu sortak salgai, denetarikoak. Oso-oso merke. 665 73 59 83.

**Nokia 5800** mugikorra salgai. Movistarkoa. Berria. 150 euro. 661 68 11 24.

**Samsung J700** poltsikoko telefonoa salgai. Oso ondo dago. 30 euro. 615 49 09 36.

**Snow-taula** salgai, fijazioekin. Ondo dago. 85 euro. Deitu arratsaldez. 671 92 06 49.

**Umeendako motxila.** Salewa etxekoa. Aulkia, motxila, eguzkitik babestekoa eta ez bustitzeko zakua. 60 euro. Deitu 645 72 08 11 telefonora.

**Dendarako altzariak.** Dendarako altzariak saltzen ditut: mostradorea, erdiko mahai handia, bitrinak eta esekitzekoak. 627 96 19 22.

**Ibiltzeko zinta elektrikoa salgai.** Domyos etxekoa. Lau programa ezberdinekin. Berria. 270 euro. 652 76 25 41

**Monozikloa saltzen dut.** Monty etxeko monozikloa salgai. Pare bat aldiz bakarrik erabilia, berria. 100 euro. Deitu 605 73 07 77 telefonora.

**Ebanozko klarinetea salgai.** Oso aproposa hasten direnendako. 360 euro. Deitu 948 15 05 47 edo 646 16 74 74 telefono zenbakietara.

**Liburuak salgai.** Liburu sortak salgai, denetarikoak. Oso oso merke. 665 73 59 83

**Gitarra akustikorako pedalera salgai.** Gitarra akustikorako pedalera salgai. Erdi prezioan. 943 77 19 20

**Nokia 6124 telefonoa salgai.** Vodafone. 30 euro. Deitu 617 13 17 51 telefono zenbakira.

**Routerra.** Haririk gabeko routerra salgai. Telefonicako Amper Zyxelarekin batera. Deitu 608 36 26 07 telefono zenbakira.

**Gasolio-galdara salgai.** Osagarri guztiekin. Roca modeloa. 20.000 kcal. 12 berogailurentzat. Baserrirako egokia. Prezio negoziagarria. Deitu 943 79 34 74 edo 616 23 81 74 telefono zenbakira.

**Sofa-ohea.** Kanpokoneurriak 1,97x91x92 eta oheak 1,40x1,90. Mugimendu bakarrean irekitzekoa. Urdina eta oso gutxi erabilia. 500 euro. 616 09 46 34

### 802. EROSI

**Akordeoi-pianoa** erosiko nuke. 120 baxukoa. Deitu 699 10 74 45 telefono zenbakira.

**Klarinetea erosiko nuke.** Bigarren eskuko klarinetea erosiko nuke. Zuriñe. Deitu 627 22 45 79 telefono zenbakira.

**Zilarra erosiko nuke.** Zilarra erosiko nuke. Saltzeko badaukazu, deitu 656 75 76 98 telefono zenbakira.

**Lursaila Bergaran.** Lursaila erosiko nuke Bergara inguruan. Sarrera onekin ahal bada. Deitu 669 17 09 51 telefono zenbakira.

**Lursaila Getarian.** Getaria inguruan baratzerako lursaila erosi edo alokatuko genuke. Harremanetan jartzeko deitu 652 70 28 28.

**Lirsaila Iruñean.** Nafarroako herri txiki batean lursaila erosiko genuke. Iruñetik iparraldera. Deitu 695 13 83 10 telefono zenbakira.

**Lursaila Oñatin.** Oñatin lur saila erosi edo alokatuko nuke. Deitu 609 11 72 96 telefono zenbakira.

### 803. EMAN

**Egongelako mahaia** oparitzen dut. Baxua, kristalezkoa eta altzairuzkoa. Deitu 635 72 58 14 telefonora.

### 804. HARTU

Bi sofa hartuko nituzke. Botatzeko badituzu, deitu mesedez. 679 09 33 34

### 806. GALDU

**Bandolera argazkiekin.** McKinley etxeko bandolera beltza galdu nuen Arrasateko Iturripe frontoi inguruan. Barruan dokumentazioa eta argazki zahar batzuk daude. Balio sentimental handikoak dira eta aurkitu badituzu, mesedez, eraman itzazu BAZera. Eskerrik asko.

**Betaurrekoak.** Umearen betaurreko graduatu urdinak galdu genituen zapatuan, azaroaren 28an, Arrasaten, Iturriotz eta San Andres artean. Aurkitu badituzu, deitu, mesedez 665 72 23 06 telefonora.

**Nintendo DSa** galdu dut, Oñatin. Urdin argia da. Aurkitu baduzu, mesedez, deitu. 943 71 65 35 edo 635 55 67 23.

**Paparreko orratza** galdu nuen Bergaran azaroaren 21ean; Espoloitik zaharren egoitzara bitartean. 676 36 64 12.

**Bi giltza galdu dira Etxarri Aranatzen.** Biak uztai batean bildurik. Deitu 699 75 04 50 telefonora.

**Bizikleta lapurtu dute Etxarrin.** Etxarrin bizikleta lapurtu dute, laranja, txuria eta beltza. Amortiguadorea ere badu saltoka ibiltzeko. Deitu 699 75 04 50 telefonora.

**Eraztuna galdu da Oñatin.** Urriaren 31n eraztuna galdu nuen Oñatiko Ugarkalde eta Euskadi etorbidea artean. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez. Deitu 943 78 06 34 edo 656 74 53 90 telefono zenbakira.

**Neoprenozko trajea galdu dut.** Lekeitioko, Eusebio Maria Azkue kaleko 5. zenbaki inguruan neoprenozko trajea erori zaigu tenderetetik, aurkituz gero deitu: Deitu 665 70 42 96 edo 656 79 28 61 telefono zenbakira.

**Poltsikoko telefonoa galdu dut.** Bergaran edo Elorrion, azaroaren 12an. Gorria eta beltza da eta Nokia etxekoa. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez. Deitu 639 64 23 36 telefonora.

**Umearen jertsea galdu dugu.** Umearen jertsea galdu genuen azaroaren 1ean, Arientzan. Marraduna da, urdina eta marroia. Urtebete inguruko neurrikoa. Deitu 943 53 34 59 telefono zenbakira.

**Bikiendako karro-kapazoa salgai.** Bikiendako Arrue etxeko karro-kapazoa salgai. 2008koa. Oso praktikoa eta egoera bikainean. Deitu 649 00 53 42 telefono zenbakira.

**Bikiendako karroa salgai.** Bikiendako EasyWalker markako karroa salgai. Deitu 943 03 66 80 telefonora.

**Patinetea, umeen karrorako.** Patinetea. Umeen karrorako patinete unibertsala salgai. Deitu 650 96 23 08 telefonora.

**Umeendako motxila.** Salewa markakoa. Aulkia, motxila, eguzkitarako bisera eta ez bustitzeko sakua. Prezio erdian saltzen dut. Deitu 645 72 08 11 telefono zenbakira.

### 807. AURKITU

**Arrasate.** Ikasle Egunean, Arrasateko Basati tabernan, Trango markako txamarra beltza trukatu nuen poltsikoan MP3a zuen beste batengatik. Txamarra eta MP3a errekuperatu nahi badituzu, deitu 626 32 04 72 telefono zenbakira.

**Eskumuturrekoa** aurkitu nuen azaroaren 24an Aretxabaletan, Azbeko aparkalekuan. Zilar kolorekoa. Zurea baldin bada, deitu. Galdu baduzu eta zurea baldin bada dietu 615 79 20 66 zenbakira.

**Gurpildun aulkia** agertu zen zapatuan, azaroaren 21ean, Bergarako kiroldegiko taberna aldamenean. Galdu duena pasa dadila kiroldegiko tabernatik errekuperatzera.

**Kaskoa** aurkitu nuen Oñatiko plazan, azaroaren 15ean, domekan, iturri ondoan. Bizikletan ibiltzekoa da. Galdu baduzu deitu 658 75 64 65 zenbakira.

**Loteria txartel bat aurkitu dut.** Gabonetako loteria txartel bat aurkitu dut. Galdu duenak dei diezadala. Deitu 943 76 26 57 telefono zenbakira.

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Neska bila.** Kaixo! Donostiako 32 urteko mutil ezkondua naiz eta egoera berdinean dagoen emakume bila nabil konplizitaterako, interesatuak idatzi mezu bat *mgpelmaz@gmail.com* helbidera.

### 904. BESTELAKOAK

**Bergaratik Gasteizera j**oan-etorria egiten dut egunero, autopistatik. Bergaratik 9:00etan irten eta buelta Gasteiztik 17:00etan egiten dut. Norbaitek kotxea osatzea nahi baldin badu dei dezake inolako konpromiso gabe. Mila esker. Deitu 606 96 23 80 edo 943 76 32 23 telefono zenbakietara

**Oñati-Gasteiz.** Egunero joaten gara. 08:00etan heltzen gara eta irten 17:00etan. Interesatzen bazaizu, dei dezake inolako konpromiso gabe 635 20 33 14 telefono zenbakira.

Etxebila higiezinak
943-44 61 66
**ALOKAIRUAN**
**ERRONDO GAINA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Bista ederrak. 850€
**ERDIALDEAN** 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Oso polita. 1.200€
**ERDIALDEAN** Arrasate K/ Apartamentu polita. Igogailua. 700€
**PASAI SAN JUAN** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Balkoia. 675€
**PASAI SAN JUAN** Oso apartamentu polita. Balkoia. 600€
**SALMENTAN**
**ASTIGARRAGA** 2 logela, egongela, sukaldea, Bainugela. Kanpora. 29.500.000
**ANTIGUO** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 61.800.000
**AMARA** Madril etob. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 21.800.000
**AMARA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 38.625.000
**AMARA** Apartamentu polita. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Argitsua. 39.900.000
**AMARA** 100m2. 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. 58.000.000
**AMARA** 2 logela, egongela bikoitza, sukaldea, bainugela. Berritua. 41.500.000
**AMARA** Atikoa. 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela. Terraza. 39.950.000
**ALDE ZAHARRA** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 37.990.000
**ALTZA** Oso polita. 2 logela, egongela bikoitza, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. 36.990.000
**ALTZA** 3 logela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 28.950.000
**BIDEBIETA** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 30.900.000
**BIDEBIETA** 2 logela, egongela bikoitza, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 36.500.000
**LEZO** 75m2. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Eguzkitsua. 31.990.000
**ERRENTERIA** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 31.500.000
**HERNANI** 2 Atiko herri erdian. Igogailua. Berritzeko. 21.000.000 bakoitza.
**www.etxebila.net**
Felipe IV etorb. 4 - DONOSTIA

LAN ESKAINTZA

**Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak behar du:**

**TELEBISTARAKO ERREALIZADOREA**

Eskatzen da:
- Ikus-entzunezko titulazioa izatea.
- Euskaraz jakitea.
- Gidabaimena izatea.

Baloratuko da:
- Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziaduna izatea.
- Esperientzia izatea.
- Informatikako programak erabiltzen jakitea.
- Atzerriko hizkuntzak jakitea.

Interesatuok bidali curriculuma helbide honetara:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Basabe poligonoa E-0-5
20550 Aretxabaleta
edo posta elektronikoz: *idazkaritza@goiena.com*

Curriculumak aurkezteko azken eguna:
**2009ko abenduaren 10a**

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 6 | | | | 8 | 7 |
| | 6 | 3 | | 2 | 7 | 9 | | |
| 7 | | 5 | | 4 | | | | |
| | | | | 7 | 6 | 4 | | 2 |
| | 8 | | 3 | | | | 5 | |
| | | 6 | | 5 | | | | 8 |
| 2 | | | | 8 | | 5 | | 3 |
| | 5 | | | | 3 | | | |
| | 7 | | | | 4 | 2 | | |

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



- * IRUDIAN
- Arabako mendatea
- Departamendu frantsesa
- Ugatza
- Baratxuria
- Fruitu mota
- Gipuzkoako herria
- Nafarroako herria
- Nafarroako ibaia
- Egur zati erre
- Uhin igorlea
- Begiaren mintz biribila
- Nor, pluralean
- Haran
- Ardiak zaintzen ditu
- Galozeko herrixka
- Bi ken bat
- Kasik
- Asiako inperio ohia
- Aranokoa
- Kontsonantea
- Röntgen

GOIENKARIA

## hieroglifoa

Zer lapurtu zioten baserritarrari?




## hizki salda

Aretxabaletako bost pertsona ezagunen abizenak.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | T | X | A | B | E | A | D | E |
| E | D | E | A | R | E | B | X | R |
| S | A | R | A | S | U | A | D | R |
| A | R | T | T | A | G | K | F | A |
| R | E | Y | G | Z | D | E | X | S |
| R | N | F | B | E | R | R | A | T |
| E | A | G | Y | T | I | O | T | I |
| D | Z | A | S | D | F | L | J | K |
| Z | A | F | Ñ | D | F | S | J | D |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | T | X | A | B | E | A | D | E |
| E | D | E | A | R | E | B | X | R |
| S | A | R | A | S | U | A | D | R |
| A | R | T | T | A | G | K | F | A |
| R | E | Y | G | Z | D | E | X | S |
| R | N | F | B | E | R | R | A | T |
| E | A | G | Y | T | I | O | T | I |
| D | Z | A | S | D | F | L | J | K |
| Z | A | F | Ñ | D | F | S | J | D |

**Hieroglifoa:** Bi oilar.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 9 | 4 | 2 | 6 | 3 | 5 | 1 | 8 | 7 |
| 8 | 6 | 3 | 1 | 2 | 7 | 9 | 4 | 5 |
| 7 | 1 | 5 | 9 | 4 | 8 | 3 | 2 | 6 |
| 5 | 3 | 9 | 8 | 7 | 6 | 4 | 1 | 2 |
| 4 | 8 | 7 | 3 | 1 | 2 | 6 | 5 | 9 |
| 1 | 2 | 6 | 4 | 5 | 9 | 7 | 3 | 8 |
| 2 | 9 | 4 | 7 | 8 | 1 | 5 | 6 | 3 |
| 6 | 5 | 1 | 2 | 9 | 3 | 8 | 7 | 4 |
| 3 | 7 | 8 | 5 | 6 | 4 | 2 | 9 | 1 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ■ | O | ■ | A | ■ | B |
| | | | A | L | T | U | B | E |
| | | | ■ | E | I | B | A | R |
| ■ | O | ■ | A | N | T | E | N | A |
| I | L | I | N | T | I | ■ | A | K |
| ■ | A | R | T | Z | A | I | N | A |
| I | Z | I | Z | E | ■ | B | A | T |
| ■ | A | S | I | R | I | A | ■ | Z |
| A | R | A | N | O | A | R | R | A |

## asteko horoskopoa

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Indarrez gainezka sentitu arren, ez galdu alferrik energia, lanez lepo ibiliko zara. Horretarako beharrezkoa gordetzen ez baduzu estresa eta urdaileko mina izango dituzu.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Taldeko lana atsegin ez duzun arren, onartu beharko duzu emaitza onak lortzekotan. Azaldu zeurea eta entzun besteena, horrek arrakastarako bidea erraztuko baitizu.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Familia barruko aldaketa mingarriek egoera latza eragin dute zure bizitzan. Baztertu eta isildu beharrean, ekin familian zoriontasuna lortzeko.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Familia ondo ibili arren, ez ezazu nahastu beharrarekin. Laguntza behar baduzu kontratatu kanpoko baten bat, utzi senideak alde batera.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Ondo dago gozatu nahi izatea, baina ez baztertu zure ardurak, lanean arazoak izan ditzakezu eta. Denerako astia izango duzu, ez aztoratu.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Sentikorregi zabiltza, eta horren ondorioz larrituta zaude lana eta familiagatik. Sailkatu beharra lehentasunen arabera eta ekiozu pixkanaka, nekatu barik.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Beharrean aldaketa onuragarriak. Ez itzazu alferrik galdu, diru aldetik laguntza izateaz gain, zeure buruarenganako estimazioa indartuko baitute.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Uzta biltzeko garaia da. Hala ere, segi orain arte bezain langile. Familiak zure beharra igarriko du, baina ulertu beharko dute bolada on hau aprobetxatu behar duzula.

**SAGITARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Gehiegizko beharra dela eta aztoratuta zabiltza, baina zeu zara errudun bakarra, guztia bakarrik egin nahi izateagatik. Eskatu laguntza eta hobeto ibiliko zara.

**CAPRICORNIUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Ez geratu gora begira eta ekiozu. Egitasmoa prest dago, aurre egin zalantzei eta jarri martxan, horrela bakarrik lortuko dituzu eta hobekuntzak lanean.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Lasaitu, hausnartu eta aztertu ea orain arte lortutakoa gura zenuena den. Egin itzau aldaketa batzuk. Familiak erabaki garrantzitsuekin lagun zaitzake.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Ez jarri arretarik besteek diotenean eta ez pentsatu eurek hobe egingo dutela. Ekin lanari zure bidetik, horrela konturatuko baitzara zenbaterainokoa den zure gaitasuna.

## gazte zerbitzua

### BEKAK

**> Euskal etxea.** Eusko Jaurlaritza. Bi beketarako deialdia egiten du Kanpoko Euskal Gizatalde eta Euskal Etxeen eremuan pertsonen espezializazioa bultzatzeko. Epea: abenduaren 10a.

**> Masterrak.** Eusko Jaurlaritza. EHUan master ofizialak burutzeko ikasleei zuzendutako dirulaguntzak, betiere langabezian baldin badaude. Epea: abenduaren 11.

### LANA

**> Lan egin gurako zenuke Gabonetan?** Begiratu *www.gipuzkoangazte.info* gure blogean. Adi!, eskaintzak jaso ahala osatuz goaz.

**> Begiraleak.** Txatxilipurdi elkartea. Gabonetako Txikilandia parkean lan egiteko begirale bila dabil Txatxilipurdi. 18 urtetik gora baduzu, bidali zure curriculuma, *idazkaritza@txatxilipurdi.com*-era

**> Begiraleak.** Jauzika Heziketa Elkarteak begiraleen lan poltsa ireki du, Azpeitiko Udalak Gabonetan egingo dituen haur, nerabe eta gazteei zuzenduriko ekintzetan lan egiteko.

**> Liburutegirako teknikaria eta administrari laguntzailea.** Portugaleteko Udala. Liburutegirako teknikaria eta Gizarte Ongizate Sailerako administrari laguntzailea kontratatzeko oposaketa deialdia. Epea: abenduaren 7a.

### LEHIAKETAK

**> I. Rock in Bara rock lehiaketa.** Partaideek maketa bat aurkeztu beharko dute, gutxienez bi kanturekin.

**> Bakarrizketa.** Amasa-Villabonako bakarrizketa lehiaketa. Euskaraz eta gai librea, 10-15 minutuko iraupenarekin. Epea: 2009ko abenduak 21.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 7



**> Debagoieneko gaztetxoak kantuan**
**11:30**

Debagoieneko gaztetxoak kantuan eta dantzan ikusiko ditugu *Kantari* programan Amaia Txintxurreta oñatiarrarekin.

**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Barrebusa.
**11:30** Kantari.
**14:00** On Ein.
**14:30** Udazken loreak.
**15:00** Barrebusa.
**16:00** Marrazki bizidunak.
**18:30** Gipuzkoa Kultura.
**19:00** Kale kantoi.
**19:30** Itsasoari begira.
**20:30** 28 Klip.
**21:00** Ilunpean.
**21:45** On ein.
**22:15** Ikusten.
**22:45** Ikusmira.
**23:15** Wazemank.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

### Martitzena, 8



**> 'Wazemank' umorezko saioaren beste atal bat**
**21:15**

Anjel Alkainek zuzentzen duen *Wazemank* umorezko sailaren atal berri bat emango dute gaur Goiena Telebistan.

**08:00** Barrebusa.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Itsasoari begira.
**12:30** Wazemank.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Ur eta Lur.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Kale kantoi.
**15:15** Gipuzkoa Kultura.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Barrebusa.
**19:15** Kantari.
**21:15** Wazemank.
**22:00** Erreportajea.
**22:45** GipuzkoaKultura.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 9



**> Durangoko azokaren laburpena**
**22:15**

Durango Euskal Liburu eta Disko Azokan gertatu, aurkeztu, ikusi eta entzun dena jasoko du *Gipuzkoa Kultura* programak.

**113:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Udazken loreak.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Sakonduz.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:35** Harmailatik.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoa Kultura.
**23:00** Kalekantoi.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 10



**> Pedro Lasagabaster alkatea zuzenean**
**19:45**

Pedro Lasagabaster Eskoriatzako alkatea etorriko da *Alkateak zuzenean* saiora kazetarien eta herritarren galderak erantzutera.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Gipuzkoa kultura.
**15:45** Kalekantoi.
**16:15** Ikusmira.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Sakonduz.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Puntuz Puntu.
**22:45** Erreportajea.
**23:20** Itsasoari begira
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 11



**> 'Alex eta Alexis' marrazki bizidunak**
**13:15**

*Alex eta Alexis*-en istorio eta abenturak ikusi ahal izango dituzte etxeko txikienek eguerdian, arratsaldean eta iluntzean.

**13:15** Marrazki bizidunak .
**13:45** Kantari.
**14:15** On ein.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ur eta Lur.
**15:45** Itsasoari begira.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Sakonduz.
**22:45** Udazken loreak.
**23:15** Kale kantoi.
**23:45** Magazinea
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

FM 107.7

**> Arrasate Irratia, 'Igo autobusera'**
**10:00**

Zubiaren ostean bueltatuko da uhinetara Arraste Irratiko *Igo autobusera* irratsaioa. Eguaztenean, adibidez, Durangoko azokan zer nolako giroa egon den jakingo dugu han egon diren lagunen ahotik. Horrez gain, euskaraz hitz egiteko lotsa nola kendu azalduko du Jürgen Wolff hizlariak.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak...
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com* )
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Uda Giroan
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

## telealbisteak

**GOITB** > DURANGOKO AZOKA

# Durangoko azokan emitzen ari den Azoka Telebistan dago GOITB

Aldundiaren Gipuzkoa Kulturak bultzatu duen ekimena da Azoka Telebista eta Hamaika eta ETB3 daude GOITBrekin batera

**O.E.** > ARRASATE

Durangon egiten ari diren 44. Durangoko euskal liburu eta disko azokaren berritasunetako bat izan da azoka telebista egongo dela emititzen azoka zabalik dagoen bitartean. Eta GOITBk parte hartzen du aipatutako azoka telebista horretan, Hamaika telebista eta ETB3 katearekin batera. Hiru telebista horiek irudiak prestatu dituzte eta bost metro koadroko pantaila erraldoi batera bideratu dituzte. Edukia telebista ondotik entzun ahal daiteke, baina lantzen dituzten bost minutuko klip horiek, adibidez, megafonian ere sartzen dituzte.

**ELKARRIZKETAK ERE BAI**

Azoka telebista Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gipuzkoa Kulturak bultzatu duen ekimen bat da. Telebista horretan ikusi ahal dira egunero sortzen diren albisteak, bost minutuko klipak batbateko informazioarekin, zuzeneko konexioak ere egiten dituzte azokako guneekin eta askorendako urteroko zita garrantzitsura joango diren idazle, musikari eta bestelako famatuak ere elkarrizketan dituzte. Goienako lau lagun daude azokan, bi teknikari eta bi kazetari.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 1000 m2 baino gehiago handitu berri dugun erakusketa. 190 modulu interaktibo baino gehiagoko erakusketa. Objektuen manipulatuz eta esperimentuen bitartez egiten den komunikatzeko modu berri bat.

Bi gune bereizten dira:
**HIPATIA**, Zortzi areto ezberdinetan banatuta: Argi jokoak, Lur Ontzia, Energia Txinpartak, Mundu Mekanikoa, Komunkazioa, Zentzumena eta Sentikortasuna, eta Zientziaren Lorategia.
**GAIA** izeneko erakusketa iraunkor berria: 1.000 m2 baino gehiago dauzkan gune honetako ardatz nagusiak **Energia** eta **Natura** dira.

PLANETARIUM
**Erresoluzio handiko irudi ikusgarriak kupula osoan proiektatuta.**
12:00 (eusk.), 13:00 (gazt.), 15:30 (fran.), 17:00 (eusk.) eta 18:00 (gazt.)
**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa.
**Itsua izar begiekin:** Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat
**Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa
**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia
**Kartoizko suziriaren sekretua:** Haurrei zuzendutako saioa
**Eboluzioa:** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu.

BESTE ZERBITZU BATZUK
Doako aparkaleku zabala, Ingurune aparta, Haur-parkea, Lorategi botanikoa, Jatetxe-kafetegia, Denda, Kontsignak…

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org
**Ordutegia**
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera: 10:00-19:00
Asteburu eta jai-egunetan: 11:00-19:00

kutxa | www.kutxasocial.net

## zorion agurrak



OÑATI
**Mario Elizburu**
Azaroaren 28an, 2 urte. Zorionak, maittia! Jada bi urtetxo! Ondo-ondo pasatu zure urtebetzean eta segi horrelako alai eta pozik! Muxutxu asko asko etxeko guztien partetik.



BERGARA
**Hodei Zanguitu**
Azaroaren 28an, urtebete. Zorionak, Hodei. Unax eta gurasoak.



OÑATI
**Aimar Iturricastillo**
Abenduaren 1ean, 3 urte. Zorionak eta urte askotarako.



OÑATI
**Oier Iturricastillo Telleria**
Abenduaren 1ean, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako etxekoen partetik. Muxu bero bat.



ARETXABALETA
**Sandra Labrador Alonso**
Abenduaren 2an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako familiaren partetik.



ARRASATE
**Itxaso Urgoitia**
Abenduaren 2an, 4 urte. Zorionak, *prexiosa*! Patxito handi bat etxekoen partetik!



ARRASATE
**Julene Sarabia Mendia**
Abenduaren 2an, 6 urte. Zorionak, *Hanna Montana*! Ondo-ondo pasatu eta zorionak, bereziki Jakesen partetik.



ARETXABALETA
**Olaia Etxenausia**
Abenduaren 2an, 34 urte. Zorionak zuri, zorionak beti, zorinak amatxooo... Patxo handi bana zure bi printzesatxuen partetik. Ondo pasatu! Araitz eta Doltza.



OÑATI
**Ainhoa Mantxola**
Abenduaren 3an, 11 urte. Zorionak, Ainhoa! Patxo handi bat etxekoen partetik.



ANTZUOLA
**Bego Oncala**
Abenduaren 3an, 38 urte. Zorionak, Petu, zure familiaren partetik! Urte askotarako.



ARETXABALETA
**Inuntze Zabala**
Abenduaren 4an, urtebetetzea. Zorionak, tia! Ondo ibili zure urtebetetze egunean eta belarriak euki prest tirakada batzuk iteko. Muxu asko. Oinatz.



ARRASATE
**Nerea Artola**
Abenduaren 7an, urtebetetzea. Zenbat urte, sorgin? Hori galdetu dozkue Eñautek, Marisak eta Aitorrek. Jarraitu umore kutsakor horrekin! Lanekoak.



ARAMAIO
**Maddi Garcia Bidaburu**
Abenduaren 5ean, 6 urte. Konturatu orduko handi egiten ari zara. Zorionak, potxola, zure familiaren eskutik.



ESKORIATZA
**Lorea Agiriano**
Abenduaren 7an, urtebetetzea. Fagorren txoko ezberdinetan dittuzun lagun guztixen partetik, zorion beroenak eta eutsi irribarre horri!



BERGARA
**Ibai Rodriguez De Zerio**
Abenduaren 5ean, 2 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen partetik.



ARRASATE
**Luken Martin Izurrategi**
Abenduaren 6an, 6 urte. Zorionak, Luken! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu handi bana Gari, amatxo eta aitatxoren partetik. Maite zaitugu!



ARRASATE
**Mikel Alonso Esquina**
Abenduaren 7an, 41 urte. Zorionak, aitatxo! Urtetxo bat gehiago,he? Muga gainditu duzu. Ondo pasatu. Txokomarrubizko muxuak etxekoen eta, bereziki, Beñat, Maren eta amatxoren partetik. Patxitoak.



ARRASATE
**Nora Tena**
Abenduaren 7an, 3 urte. Zorionak, politxori! Etxekoen partetik.



ARRASATE
**Luken eta Uxue Urrutia**
Abenduaren 8an, 3 urte. Zorionak lehengusu eta etxeko danon partetik!



OÑATI
**Uxue Bolinaga**
Abenduaren 8an, 28 urte. Zorionak, guapa! Muxu handi bat lagunen partetik. Gabonetan zelebrauku digestibo batzuk edanaz e! je,je!



ARETXABALETA
**Manex Repecho Zurbano**
Abenduaren 8an. Urte bat, *pirata*! Zorionak etxekoen eta, bereziki, Kaiet, Garazi eta Itzelen partetik!



OÑATI
**Jon Sanchez**
Abenduaren 8an, 2 urte. Zorionak, *guapeton*! Oso ondo pasatu eguna eta muxu potolo-potolo bat etxeko danon partetik.



OÑATI
**Aitziber Etxeberriarteun**
Abenduaren 9an, 33 urte. Zorionak, Aitziber! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta patxo handi-handi bat etxeko guztien eta, bereziki, Iñakiren eta Oierren partetik.



OÑATI
**Jon Axpe Altube**
Abenduaren 9an, urtebete. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik.



OÑATI
**Enaitz Ugarte**
Abenduaren 10ean, 6 urte. Zorionak! Muxu pila bat eta ondo pasatu. Familia danan partetik.



OÑATI
**Jose Arregui**
Abenduaren 11n, urtebetetzea. Zorionak emazte, seme-alaba, biloba eta etxeko denon partetik. Muxu haundi bat eta ondo ospatuko dugu. Zorionak!



OÑATI
**Saioa Garai**
Abenduaren 4an urtebetetzea. Zorionak eta patxo handi-handi bat etxeko guztien partetik! Bereziki amatxo, Alazne eta aitatxo.



ARETXABALETA
**Damaso Uribesalgo**
Abenduaren 11n, urtebetetzea. Zorionak, aitaita eta urte askotarako! Eneko, Ander eta Alazne.



ARRASATE
**Julen Lizarralde Maidagan**
Abenduaren 11n, urtebetetzea.
Mutil handixa ein zarela, e! Muxu eta belarri tirakada asko danon partetik, bereziki: Mattin, Peru, Anje, Maialen, Xabier, Naia eta June.



BERGARA
**Paco Moreno**
Abenduaren 12an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako! Muxu eta besarkada handi bat etxekoen partetik! Bereziki Uxue.



OÑATI
**Irati Zumalde Altube**
Abenduaren 12an, 15 urte. Zorionak, Irati. Zure lagun danan partetik 15 patxo erraldoi! Ja, ja. Ondo-ondo pasatu eguna!



ARETXABALETA
**Aitor Zabala**
Abenduaren 13an, urtebetetzea. Zorionak, *aitatxo pistatxo*!
Ederto ibili zure urtebetetze egunien.Muxu handi bat amatxo eta nire partetik. Oinatz.

ESKER ONA

# Alfonso Garro Iñurria

# Carmen Diaz de Guereñu Garcia





Hileta-elizkizunetara eta urteurren mezara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2009ko abenduaren 7an.


# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 05**
Edo zatoz ordezkaritza batera.
**Eskelaren prezioa: 110 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.
**Goienkaria: astero, 44.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**



## kuxkuxeroa



Miren Arregi

# Ni ere han izan nintzen duela asko

Durangon izan da asteburu honetan jaia, euskal musikaren eta literaturaren urteko hitzordu garrantzitsuena. Lana egitea egokitu zaigunontzat, ordea, zaila bi lekutan batera egotea.

Ibarreko ordezkariak **Durangon** euren liburu eta diskoak aurkezten ibili diren bitartean, baina, gurean ere izan dugu zer ikusi. **Arrasateko Akordeoi Lehiaketa** izan da asteburuan Debagoienean izan dugun ekitaldi garrantzitsuenetariko bat, garrantzitsuena ez esatearren. Nik neuk ere, izan nuen

**"Nik neuk ere izan nuen lehiaketan parte hartzeko aukera artean ume moko bat nitzela"**

lehiaketa horretan parte hartzeko aukera, hiru bat bider, artean ume moko bat nintzela. Ez ditut inoiz ahaztuko akordeoia soinean eskenatokira igo aurreko momentuak. Urduritasuna zainetaraino eta eskuak izerditan... *Nola joko dut ba akordeoia, behatzek botoietatik irrist egiteko duten arrisku honekin?*, pentsatzen nuen neure artean. Aurten, baina, eskenatokiaren beste aldean egotea egokitu zait. Ezin burutik kendu duela 15 urte bizi izan nituen sentsazio berberak. Neskamutikoen azalean ni legez sartu den gutxi izango ziren Amaia Antzokian. Kontuak kontu, aitortu behar, nik ez dudala inoiz asteburuan entzun ditudan batzuen mailara iristerik izan. Zur eta lur utzi naute.

## ast4buruko albuma



**Ekialdeko dantzak Zestoatik.** Sabel-dantza erako mugimenduak ikusteko aukera izan zen zapatuan Bergarako Zabalotegi aretoan. Gezurra badirudi ere, Zestoatik iritsi ziren gurera ekialdeko dantzok eta arrakasta ederra izan zuten bertan bildutakoen artean. Ekialdeko dantzetan murgilduta, hainbat estilo aurkeztu zituzten: Egiptoko folklorea, batetik; sortaldeko estilo klasikoa, bestetik; eta belo fantasia, azkenik.



**Txalaparta jotzen ikasten hasi ziren 12-16 urteko gaztetxo batzuk.** Txalaparta ikastaroaren lehen saioa egin zuten Aretxabaletako gaztelekuan eguenean, abenduaren 3an. Ikastaro horrek jarraipena izango du hurrengo eguenean ere eta 12-16 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago. 10 gaztek hartu zuen parte joan den eguenekoan. Helburua euskal musika tresna hori ezagutu eta berau jotzeko lehen urratsak egitea da.

## jaiotakoak



**Izadi Martin Arana**
Arrasate > 3,000 kilo. Abenduaren 1ean. Gurasoak: Amagoia (Arrasate) eta Mikel (Arrasate). Argazkian, Izadi jaioberria, sehaskan lo.



**Eneida Ferreira Gomez**
Eskoriatza > 2,640 kilo. Abenduaren 1ean. Gurasoak: Angela (Eskoriatza) eta Manuel (Eskoriatza). Argazkian, Eneida jaioberria, gurasoekin.



**Ainara Revilla Urrutia**
Bergara > 3,100 kilo. Abenduaren 1ean. Gurasoak: Patricia (Bergara) eta Fernando (Bergara). Argazkian, Ainara jaioberria, amarekin.



**Maren Arenaza Altube**
Oñati > 3,300 kilo. Abenduaren 3an. Gurasoak: Uguzne (Bergara) eta Mikel (Oñati). Argazkian, Maren jaioberria, sehaskan.



**Ilia Madina Ozerinjauregi**
Arrasate > 3,280 kilo. Abenduaren 2an. Gurasoak: Eider (Arrasate) eta Mikel (Oñati). Argazkian, Ilia jaioberria, sehaskan lo.



**Jone Brunet Moreno**
Bergara > 2,870 kilo. Abenduaren 4an. Gurasoak: Maribel (Bergara) eta Asier (Bergara). Argazkian, June jaioberria, aitarekin.



**Oier Kortazar Lasagabaster**
Aretxabaleta > 3,310 kilo. Abenduaren 3an. Gurasoak: Miren (Aretxabaleta) eta Gaizka (Eskoriatza). Argazkian, Oier jaioberria, aitarekin.



**Lier Aranguren Arzelus**
Antzuola > 3,500 kilo. Abenduaren 2an. Gurasoak: Eider (Bergara) eta Jon (Antzuola). Argazkian, Lier jaioberria, aitarekin.



**Ekain Mendieta Rodriguez**
Bergara > 2,700 kilo. Abenduaren 1ean. Gurasoak: Asun (Bergara) eta Fernando (Bergara). Argazkian, Ekain jaioberria, sehaskan lo.

## HARTU PARTE!

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: *astelehena@goiena.com*

Goienkaria

BABESLEA



IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua
Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2009-12-07

**Ruper Ordorika** > Musikaria

# "Zapatak aldatu ohi ditut jotzera igo baino lehen"


Ruper Ordorika. OHIANE ISASI

**Orain hasi berria duzue bira, baduzu erritual berezirik eszenaratzerakoan?**

Arropaz aldatzea. Gustatzen zait tarte luze batez egotea, probetatik harik eta eszenatokira igo arte, bakarrik ala taldekideekin, geu bakarrik; isolatuta egotea jotzera igo baino lehen.

**Beti beltzez igotzen zara agertokira?**

Bai eta, gainera, arropaz aldatzea bada erritualaren zati bat eta bereziki zapatak; horretan badaukat erritual moduko bat. Zapatak beti aldatzen ditut, nahiz eta arropa aldatu ez. Hori iruditzen zait dela aldartean eragiteko modurik onena. Eszenatokirako hori niretzat gauza beharrezkoa da.

**Lan berri honekin lehen kontzertua Gatzagan, gela txiki baten eta, ostean, Bartzelonan, areto handi baten jo zenuten.**

Guztiz muturreko tokiak dira. Baina ganbera areto baten edo leku txiki baten gu beti pozik gaude, horretarako gaude gainera. Bietan gustura.

**30 urte agertokietan, 60 urterekin ere halatsu ikusten duzu zure burua?**

30 urte barru agian jarraituko dut musikari izaten, baina beste galaxia baten! Egunerokoari heltzen saiatzen naiz, eta hain luze ezin dut begiratu; ez daukat gaitasunik, ez aurrera ez atzera ere, iraganekoa ulertzeko ere zailtasun handiak ditut-eta.

Nire egitekizunean ez naiz plan luzeko pertsona. Eta atzera edo aurrera begirada botatzea ezinezkoa zait. Sekula ere ezin izan dut.

**Eta begiratzen diozu euskal musika eszenari?**

Ez nahiko nukeen adina. Gauza asko dago eta zein gailenduko den ezin esango nizuke. Eskaintza bezain besteko maila dago: handia. Baina euskal musikan, eskaintza eskaritik gora dago, beti esan izan dut hori.

**Eta kanpora begira, iritsi da egungo musikaren salbatzailerik?**

Esango nuke rockaren munduan, oraindik ere, azaltzen direnak ni baino lehenagokoak direla... nik mutikotan jarraitzen nituenak. Inpresioa daukat badagoela jende asko radarrak harrapatzen ez dituena eta ez gazteak direlako bakarrik, estilo aldetik ere urrun geratzen direlako. Hala ere, musikalki oso gutxi dira dagoeneko erabilitako ura edaten ez dutenak, oso gutxi daude talentu berriarekin.

SOSLAIA

## Desertua eta gero

Goxo eta hurbil lan berria aurkezteko hamaikagarren elkarrizketari heltzeko gertu ageri da oñatiarra; aldarte onean, galderak irribarrez entzunaz. *Haizea Garizumakoa* da Ruperren hamabosgarren lana. Kuba eta Antilletan aurkitu ditu haize berriok. Diskoaren azaleko irudia ere Karibeko hondartza batean aterea da, Garizumako haizeak ile eta jantziak harrotzen zizkiola. Penitentziaren desertua igarota, baikor eta irribarre batekin dator Ordorika disko berrian, disko goxoa.

## ai, ene!



### Koloreak hartzeko

Kaletik goazela gustuko kolore bat ikusi eta gure etxea margotzeko gura dugula? Orain ez dago halakoak egiteko arazorik; izan ere, errotuladore berri horrekin gustuko kolorea hartzeko aukera daukagu, gero erabili ahal izateko.

http://www.beladonalab

## biharamuna

Oier Bolibar

### Enara beltzak bezala

Energiaz betea atera nintzen joan den asteazkenean Aretxabaletako Arkupen izandako ilunabar literariotik. Aurreko urtean ere antzeko ekitaldi bat antolatu zuten nonbait. Eta aurten ere antolatu dute, ekitaldi bera Karmele Igartuak idatzitako azken poesia liburua aurkezteko aprobetxatuz.

Bertan izan ziren Jose Angel Irigarai eta Tere Irastorza idazleak, eta baita beste ilunabar literario batzuetan parte hartze aktiboa duten idazle eskolatik pasatako hainbat pertsona, besteak beste.

Aretoa lepo, Karmelek idatzitako poemak irakurri, entzun, ulertu eta sentitzeko irrikaz. Eta musika leun bat atzetik lagungarri, gitarra eta pianoa.



Egunerokotasuneko errotatik at sentitu ginela han bildutako denok esatera ausartzen naiz, gu deboran geldi, eta Karmeleren enara beltzak denbora zeharkatuz. Atmosfera egokia egunerokotasunetik abstraitu eta beste errealitate batzuetan murgiltzeko. Eguneroko lanetik at, eguneroko betebeharretatik at, hauek xurgatu ez gaitzaten.

Guk ere gure lekua behar dugu, beharrezkoa dugu kabitzea gure denbora geldian, olerkiko enara beltzak bezala.

## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
| --- | --- |
| +14 | +11 |

Haizea mendebaldera aldatuko da eta fronte bat inguratuko zaigu. Hodeiak izango dira nagusi eta euri pixka bat egingo du.

www.euskalment.net

iKER
SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
FAGOR
Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak
